

# SOZIOLOGIA

Maialen ASIAIN URDANIZ

MAITASUNAREN IRUDITEGI  
ANITZAK: NAFARROAKO  
HEZKUNTZA KOMUNITATEAN  
ANALISIA

TFG/*GBL* 2020

**upna**  
Universidad  
Pública de Navarra  
Nafarroako  
Unibertsitate Publikoa

Facultad de Ciencias Humanas y Sociales  
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea

Grado en Maestro de Educación Primaria  
*Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua*



**Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua**  
**Grado en Maestro en Educación Primaria**

Gradu Bukaerako Lana  
Trabajo Fin de Grado

**MAITASUNAREN IRUDITEGI ANITZAK: NAFARROAKO  
HEZKUNTZA KOMUNITATEKO ERAGILEEKIN ANALISIA**

**IMAGINARIOS DEL AMOR: UN ESTUDIO EN LA  
COMINIDAD EDUCATIVA DE NAVARRA**

Maialen ASIAIN URDANIZ

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN FAKULTATEA  
FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS Y SOCIALES

**NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA**  
**UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA**





**Ikaslea / Estudiante**

Maialen ASIAIN URDANIZ

**Izenburua / Título**

Maitasunaren iruditegi anitzak: Nafarroako hezkuntza komunitatean analisisa  
Imaginario del amor: un estudio en la comunidad educativa de Navarra

**Gradu / Grado**

Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua / Grado en Maestro en Educación Primaria

**Ikastegia / Centro**

Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea / Facultad de Ciencias Humanas y Sociales  
Nafarroako Unibertsitate Publikoa / Universidad Pública de Navarra

**Zuzendaria / Director-a**

Monika MENDIBERRI APEZETXEA

**Saila / Departamento**

Soziologia eta Gizarte Lana / Sociología y Trabajo Social

**Ikasturte akademikoa / Curso académico**

2019/2020

**Seihilekoa / Semestre**

Udaberria / Primavera



## Hitzaurrea

2007ko urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua, 2010eko 861/2010 Errege Dekretuak aldatuak, Gradu ikasketa ofizialei buruzko bere III. kapituluan hau ezartzen du: “ikasketa horien bukaeran, ikasleek Gradu Amaierako Lan bat egin eta defendatu behar dute [...] Gradu Amaierako Lanak 6 eta 30 kreditu artean edukiko ditu, ikasketa planaren amaieran egin behar da, eta tituluarekin lotutako gaitasunak eskuratu eta ebaluatu behar ditu”.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Lehen Hezkuntzako Irakaslearen Graduak, ANECAk egiaztatutako tituluaren txostenaren arabera, 12 ECTSko edukia dauka. Abenduaren 27ko ECI/3857/2007 Aginduak, Haur Hezkuntzako irakasle lanetan aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizialak egiaztatzeke baldintzak ezartzen dituenak arautzen du titulu hau; era subsidiarioan, Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak, 2013ko martxoaren 12ko bileran onetsitako Gradu Amaierako Lanen arautegia aplikatzen da.

ECI/3857/2007 Aginduaren arabera, Lehen Hezkuntzako Irakaslearen ikasketa-plan guztiak hiru modulutan egituratzen dira: lehena, oinarrizko prestakuntzaz arduratzen da, eduki sozio-psiko-pedagogikoak garatzeko; bigarrena, didaktikoa eta diziplinakoa da, eta diziplinen didaktika biltzen du; azkenik, Practicum daukagu, zeinean graduko ikasleek eskola praktiketan lortu behar dituzten gaitasunak deskribatzen baitira. Azken modulu honetan dago Gradu Amaierako Lana, irakaskuntza guztien bidez lortutako gaitasun guztiak islatu behar dituena. Azkenik, ECI/3857/2007 Aginduak ez duenez zehazten gradua lortzeko beharrezkoak diren 240 ECTSak nola banatu behar diren, unibertsitateek ahalmena daukate kreditu kopuru bat zehazteko, aukerako irakasgaiak ezarriz, gehienetan.

Beraz, ECI/3857/2007 Agindua betez, beharrezkoa da ikasleak, Gradu Amaierako Lanean, erakus dezan gaitasunak dituela hiru moduluetan, hots, oinarrizko prestakuntzan, didaktikan eta diziplinan, eta Practicumean, horiek eskatzen baitira Lehen Hezkuntzako Irakasle aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizial guztietan.

---

Lan honetan, oinarriko prestakuntzako moduluan garatutako gaitasunak lan osoan zehar nabarmendu egin dira. Izan ere, lan honetan garatzen den atal teorikoak soziologia eta psikologia sailek barne hartzen dituzten terminoak eta edukiak ditu oinarri. Modu honetan, modulu honetan izandako ikasgaietan garatu diren edukien bitartez landutakoak eta ikasitakoak lan honetan garatu den esparru teorikoa osatzeko oinarrikoak izan dira, ondoren egin den marko enpirikoaren testuinguratzea sortzeko balio izan dutenak. Modu honetan, modulu honetan jorratu diren “Gizarte, familia eta eskola inklusiboa” nahiz “Gizarte antolaketa eta giza garapena” ikasgaiei esker ikasitako ikasleek izan dituzten gizarteratze eragileen funtzioa nahiz gizakien arteko harremanen izaera ulertzeko ezinbestekoak izan dira.

Didaktika eta diziplinako moduluak bidea eman digu gela barneko ikasleen familia aniztasun egoera kontuan hartu eta hezkidetzaz lantzeko diseinatu diren programen nondik norakoak ezagutzeko. Ikasgai horiek ikasleek maila bakoitzean garatu eta landu behar dituzten gaiak adin eta garapen kognitiboaren momentuari egokituak izan behar direla kontuan hartzeko balio izan dute, ezagutza horiek atal enpirikoa jorratzeko momentuan erabili direlarik.

Halaber, Practicum moduluak ikasgela baten barnean dagoen aniztasuna eta genero ikuspuntutik dauden emozioak eta maitasuna ulertzeko modu ezberdinak ezagutzeko esparrua izan da. Lan honen atal enpirikoak, izan ere, praktika aldiaren garatutako jardueretan bildutako informazioa islatzen du, ikasleekin maitasunaren gaia lantzeko diseinatutako jarduera erabili denez gero ikerlan tresna gisa. Horrela, etorkizunera begira eskolen errealitatea ezagutzeko balio izan du, ikasleen harremanak ulertzeko eta zaintzeko dinamikak nola garatu behar diren ikasteko espazioa emanez.

Azkenik, aukerako moduluak, kasu honetan atzerriko hizkuntza ingelesaren aipamenak, irakasle eta ikasleen arteko komunikazioa emateko gakoak eta lan honetarako abian jarri den jarduera jorratzerako orduan hizkuntza aldetik kontuan hartu beharreko zehaztasunak eta egokitzapenak ezagutzeko baliagarria izan da.

Beste alde batetik, ECI/3857/2007 Aginduak ezartzen du, Gradua amaitzerako, ikasleek gaztelaniazko C1 maila eskuratuta behar dutela. Horregatik, hizkuntza gaitasun hau erakusteko, hizkuntza honetan idatziko dira “Sarrera” / “Introducción”, “Justifikazioa, helburuak eta lanaren egitura” / “Justificación, objetivos y estructura del trabajo” eta Maitasunaren iruditegi anitzak: Nafarroako hezkuntza komunitatean analisisa

“Ondorioak eta galdera irekiak” / “Conclusiones y cuestiones abiertas” atalak, baita hurrengo atalean aipatzen den laburpen derrigorrezkoa ere.

## Laburpena

Maitasun erromantikoaren mitoak modernizazioaren sorrerarekin batera gizartean txertatu dira ideia horiek pertsonen amodioaren inguruan duten iruditegia sortu arte. Modu honetan, inposaturikoak izan diren sinesmenak normalizatu eta mitoetan deskribatzen diren dinamikak pertsonak dituzten harreman sexu-afektiboetan txertatu dira, non, indarkeria, matxismoa, harreman ez-osasuntsuak eta pertsonon askatasuna gaituzten dituzten beste egoerak emateko testuingurua sortu den, horiek guztiak maitasun hitzaren formak direla legitimatuz.

Modu honetan, eskola pertsona baten bizitzako gizarteratze eragile garrantzitsuenetarikoa denez gero, jendartean indarrean dauden mito erromantiko horiek transmititzearekin ze harreman duen ezagutzea jakin nahi da lan honetan. Harreman horren dimentsioak ezagutzeko, garai postmodernoko Lehen Hezkuntzako etorkizuneko irakasleriak eta ikasleriak duen maitasun erromantikoaren iruditegia eta bikote harremanen inguruan dituzten ideiak analizatuko dira genero ikuspuntutik, emozioen aldetik dauden aldeak kontuan hartuta. Horrela, iruditegian maitasun erromantikoaren mitoen elementuak izatekotan haiek identifikatu eta hezkuntzak neska-mutilen maitasuna ulertzeko moduan norainoko eragina duen ezagutuko da, eskolan behintzat maitasunaren ideia modu egokian gara dadin iruditegiaren marko orokor bat definituko delarik.

*Hitz gakoak:* maitasun erromantikoa; gizarteratze emozioala; generoa; harreman sexu-afektiboak; hezkidetzak

## Resumen

Los mitos del amor romántico se incorporaron a la sociedad con el comienzo de la modernización hasta tal punto que han pasado a ser parte del imaginario que tienen las personas acerca del amor. De esta manera, las dinámicas que acompañan esos mitos han acabado normalizándose y han pasado a integrarse en las relaciones sexo-afectivas de las personas, donde se ha facilitado que se cree un contexto para la violencia, el machismo, las relaciones tóxicas y otras situaciones que trascienden la libertad de las personas, legitimando que todas ellas son formas de la palabra amor.

Maitasunaren iruditegi anitzak: Nafarroako hezkuntza komunitatean analisisa

De esta manera, dado que la escuela es uno de los agentes más importantes de socialización en la vida de una persona, el objetivo de este trabajo es descubrir la relación que tiene la escuela con la transmisión de estos mitos románticos que están vigentes en la sociedad. Para descubrir hasta qué punto la escuela influye en dicha transmisión, se analizará el imaginario de amor romántico entre las futuras maestras y maestros así como el del alumnado de quinto curso de la escuela primaria posmoderna y sus ideas sobre las relaciones de pareja desde una perspectiva de género, teniendo en cuenta las diferencias emocionales. Con este análisis, se pretende identificar los elementos de los mitos del amor romántico dentro de dicho imaginario, para que al menos la escuela se convierta aún más en uno de los espacios donde se transmita el amor de una manera adecuada.

*Palabras clave:* amor romántico; socialización emocional; género; relaciones sexo-afectivas; coeducación.

## **Abstract**

The myths of romantic love were incorporated into society with the beginning of modernization to such an extent that they have become part of the imaginary that people have about love. In this way, the dynamics that accompany these myths have ended up normalizing and have become integrated into people's sexual-affective relations, where it has been facilitated to create a context for violence, maleness, toxic relationships and other situations that transcend the freedom of people, legitimizing that they are all forms of the word love.

In this way, given that the school is one of the most important agents of socialization in the life of a person, the objective of this work is to discover the relation that the school has with the transmission of these romantic myths that are in society this days. To discover the dimensions of this relation, the imaginary of romantic love between future teachers will be analyzed, as well as that of postmodern primary school fifth-year students and their ideas about couple relationships from a gender perspective, considering emotional differences. With this analysis, it is intended to identify the elements of the myths of romantic love within this imaginary so that at least the school becomes even more a space for a proper understanding of what love is.

*Keywords:* romantic love; emotional socialization; gender; sexual-affective relations; co-education.





## AURKIBIDEA

<b>Sarrera / Introducción</b>	<b>1</b>
<b>1. Justifikazioa, helburuak eta lanaren egitura / Justificación, objetivos y estructura del trabajo</b>	<b>3</b>
1.1. Justifikazioa / Justificación	3
1.1.1 Vinculación del trabajo con el currículo educativo	5
1.2. Helburuak / Objetivos	6
1.3. Lanaren egitura / Estructura del trabajo	6
<b>2. Marko Teorikoa</b>	<b>8</b>
2.1. Generoa gizarte antolaketaren oinarri bezala	8
2.2.1 Sexuaren araberako lanaren bereizketa	11
2.2.2 « Maskarada postfeminista » (Angela McRobbie, 2007)	12
2.2 Maitasun erromantikoaren ideien genealogia	13
2.2.1 Kapitalismoaren sorrera eta maitasunaren ideia	13
2.2.2 Egungo maitasun erromantikoaren ideien egoerara testuinguratzeko bat	15
2.3 Maitasun erromantikoaren mitoak	18
2.3.1 Definizioa eta motak	18
2.3.2 IKT-ren eragina mitoen eraikuntzan	23
2.4 Generoaren araberako gizarteratze emozional desberdindua	23
2.4.1 Emozioen eraikuntza generoaren ikuspegitik	25
2.4.2 Generoa eta indarkeria	28
2.5 Eskola eta familia: heziketa adozentrikoaren sustatzaile?	31
2.5.1 Hezkuntza Sistemaren sorrera eta bilakaera	31
2.5.2 Hezkuntza eredu androzentriko eta sexistaren birsortzea	33
2.5.3 Hezkuntza txarra	36
2.5.4 Familia ereduak; pentsamendu heterosexuaren transmisioak?	36
2.6 Hezkuntza eredu hezkidetzailerantz	<b>39</b>
<b>3. Metodologia</b>	<b>41</b>
3.1 Metodologia kualitatiboa: Lehen Hezkuntzako bosgarren mailako ikasleriak maitasun erromantikoaren inguruan duen iruditegiaren analisia	42
3.1.1 Justifikazioa	42
3.1.2 Lagina; Lehen Hezkuntzako bosgarren mailaren ikasleriaren deskribapena	42
3.1.3 Tresna; Jarduera bideratu baten behaketa	44
3.1.4 Prozedura	44
3.2 Metodologia kuantitatiboa: Lehen Hezkuntzako Irakasle Gradua ikasten ari den Nafarroako ikasleriaren maitasunaren iruditegiaren analisia	46
3.2.1 Justifikazioa	46
3.2.2 Lagina; Lehen Hezkuntzako Irakasle Gradua ikasten ari den ikasleria	46
3.2.3 Tresna; Galdetegia	46
3.2.4 Prozedura	48

3.3 Ikerlanean zehar egon diren zailtasunak eta oztopoak	48
<b>4. Marko enpirikoa; Emaizak</b>	<b>49</b>
4.1 Testuingurua	50
4.1.1 Ikastetxearen testuinguruaren analisia	50
4.1.2 Nafarriako Unibertsitate Publikoko testuingurua	51
4.2 Emaizak	51
4.2.1 LH-ko bosgarren mailako ikasleriaren maitasunaren iruditegia	51
4.2.2 Maitasunaren inguruko iruditegia LH Irakasle Gradu- ikaslerian	66
<b>5. Ondorioak eta galdera irekiak / Conclusiones y cuestiones abiertas</b>	<b>82</b>
<b>Bibliografia</b>	<b>88</b>
<b>Eranskinak</b>	<b>92</b>
<b>A. Eranskinak I</b>	<b>92</b>
<b>A. Eranskinak II</b>	<b>93</b>
<b>A. Eranskinak III</b>	<b>96</b>



## INTRODUCCIÓN

La manera en la que los niños y niñas comprenden el amor romántico y las relaciones sexo-afectivas es fundamental ya que las actitudes y dinámicas que irán desarrollando a medida que vayan teniendo relaciones amorosas tendrán como base los valores y los principios que se integran de manera implícita en los mitos del amor romántico.

Partiendo de la realidad de que los mitos del romanticismo han acabado siendo parte de las relaciones sexo-afectivas, es un hecho que a los jóvenes y adolescentes hoy en día se les transmiten dichas creencias, fomentando de esta manera que los valores románticos y creencias que estructuran la sociedad en lo que a las relaciones amorosas respecta se introduzcan en las experiencias sexo-afectivas de los mismos.

Este trabajo, por lo tanto, va a partir de la base de la existencia de dichos mitos románticos en la sociedad, y se va a centrar en investigar hasta qué punto la escuela puede participar en dicha transmisión de ideas, analizando por un lado el ideario del amor romántico de los estudiantes de quinto de primaria de una escuela pública de Navarra del modelo D, y por otro lado, haciendo un análisis de las ideas que predominan en el imaginario del amor romántico del futuro profesorado de primaria.

Desde una visión actualizada de la situación del conjunto de ideas que existen acerca del amor romántico en la sociedad occidental actual y de la realidad educativa así como la experiencia tras realizar el periodo 3 de prácticas en una escuela pública de modelo D, mediante este trabajo se pretende analizar el vínculo que hay entre la futura educación y la transmisión de dichos mitos, creando así un marco general del imaginario de dos de los agentes más importantes dentro del sistema educativo; de los docentes y del alumnado.

El objetivo principal de este trabajo por lo tanto será analizar dicho imaginario de la comunidad educativa desde una perspectiva de género, para poder identificar así elementos como el machismo, violencia de género, y otros que vayan en contra del respeto y la libertad individual de las personas. De esta manera, con programas basados en la coeducación y en la igualdad de género, podría desarrollarse un plan para reestructurar ese ideario y crear uno nuevo basado en valores como el respeto, la

aceptación, la igualdad de género, la libertad de pensamiento y otros que puedan ayudar a crear una sociedad más justa.

En esta realidad de la sociedad que vivimos hoy en día donde existen muchas maneras de amar, formar una familia o de relacionarse afectivo-sexualmente, el problema es que el muchas veces el pensamiento popular no acompaña a esta realidad, ya que las creencias románticas que existen no se han renovado ni adaptado todavía del todo en el discurso de las nuevas generaciones.

# 1. JUSTIFICACIÓN, OBJETIVOS Y ESTRUCTURA DEL TRABAJO

## 1.1 Justificación

El tema de este trabajo es el análisis de las creencias que forman parte del imaginario del amor para identificar si los hay elementos de mitos de amor romántico en el alumnado de la escuela primaria y los estudiantes del Grado de Maestro de Educación Primaria que forman parte de la comunidad educativa de Navarra. Dentro de las diferentes dimensiones que existen en lo que respecta a las diferentes relaciones interpersonales en la sociedad, mi trabajo se va a centrar en analizar la forma de comprender las relaciones sexo-afectivas y las ideas de amor romántico que se han establecido a raíz de la modernización y la nueva forma de amar. Este análisis se llevará a cabo mediante una actividad diseñada para alumnos y alumnas de quinto de primaria por el Departamento de Educación de Navarra (el programa SKOLAE) que de forma no explícita hace reflexionar a los alumnos acerca del amor y mediante un cuestionario con diferentes ideas de amor romántico que existen hoy en día en el ideario de la sociedad dividido en diferentes dimensiones en caso del futuro profesorado.

La elección de este tema se justifica tras observar que dentro del currículo de primaria no se le ha dado espacio a trabajar el amor romántico y las relaciones sexo-afectivas. Desde mi experiencia como alumna y basándome en mi entorno, puedo decir que esta falta de información y de trabajo respecto a este tema ha hecho que jóvenes no hayan podido tener relaciones sexo-afectivas saludables en sus primeras experiencias, mezclando ideales establecidos a través de un proceso socio-histórico y teniendo como referente el modelo de familia de cada individuo, basado principalmente en familias monógamas heterosexuales biparentales. De esta manera, se puede decir que a las jóvenes generaciones se les han transmitido los valores y principios que acompañaban esas creencias de lo que lo que constituye, como lo que se denomina en el presente trabajo, el amor romántico, normalizando dinámicas y modelos relacionales que atentan contra la libertad y los derechos individuales y colectivos; hablamos del machismo y la violencia de género que derivan de la organización social desigual patriarcal. Y es que, el Instituto Navarro del Deporte, a través del Diagnóstico de la

---

Juventud que presentó en 2018, mostró que las denuncias por violencia de género han aumentado considerablemente desde las 145 que se presentaron en el 2003, a las 487 que se registraron en el año 2017, donde la media de edad de las denunciantes pasó a ser de 21,7, más baja si se compara con la de 2003, que fue de 24,4 años (Instituto Navarro del Deporte, 2018). Este trabajo, toma como referencia la Ley 17/2015, de 21 de julio, de Igualdad Efectiva De Mujeres Y Hombres a nivel estatal que alberga por la igualdad de género y castiga la violencia contra las mujeres; y más concretamente la Ley Foral 17/2019, del 4 de abril, de Igualdad Entre Mujeres Y Hombres del marco jurídico navarro, que en su artículo 32 hace referencia explícita a que las políticas públicas educativas deberán garantizar un modelo educativo orientado por los principios coeducativo, que por las cuestiones citadas, y dada también la dificultad que hemos tenido para encontrar investigaciones recientes que se hayan desarrollado en Navarra sobre los imaginarios del amor y sus consecuencias relacionales de la comunidad educativa, este trabajo será en gran medida de carácter exploratorio. Mediante el presente estudio, se pretende analizar así la relación que pueda existir en la creación de dicho imaginario de los alumnos y de la escuela pública, ya que al ser uno de los agentes de socialización más importantes en la vida de un niño y de una niña, recae sobre dicho agente la responsabilidad de educar al alumnado para crear una sociedad más justa y adaptada a desarrollar y fomentar diversas formas amorosas y relacionales.

En este contexto, me parece importante identificar y analizar el marco de creencias de la comunidad educativa, para poder de esta manera saber cuál es el punto de partida y definir la situación real de dicho imaginario a la hora de trabajar el amor romántico y las relaciones amorosas. De esta forma, se podrán diseñar actividades y espacios que fomenten el diálogo entre los estudiantes con respecto al tema que tratamos y fomentar el pensamiento crítico; Del mismo modo, se les podrá invitar a replantear y poner en cuestión mitos e ideales, que a su vez impliquen la apertura hacia prácticas afectivas y relacionales más igualitarias y sanas. Es verdad que, en el caso de Navarra, el Gobierno ya ha comenzado a desarrollar actividades para el trabajo de temas relacionados al amor y a las relaciones en el aula insertas en el programa SKOLAE, unas de las cuales ha constituido como base para realizar el estudio de campo de este



trabajo. Por ello precisamente, consideramos interesante y necesario analizar y continuar profundizando en el marco del imaginario del alumnado, para poder evaluar las actividades con mayor precisión, y en caso de que fuese necesario, reformular dichas dinámicas y redefinir los objetivos de las mismas.

### *1.1.1 Vinculación del trabajo con el currículo educativo*

Dentro del currículo de las enseñanzas de educación primaria en la comunidad foral de Navarra se describen competencias y objetivos que hacen referencia al tema de este trabajo. El DECRETO FORAL 60/2014, de 16 de julio, por el que se establece el currículo de las enseñanzas de Educación Primaria en la Comunidad Foral de Navarra, concreta que las competencias que se describen en él suponen una combinación de habilidades, prácticas, conocimientos, motivación, valores éticos, actitudes, emociones, y otros componentes sociales y de comportamiento que se movilizan conjuntamente para lograr una acción eficaz.

Por un lado, dentro de los objetivos de la etapa que recoge el artículo 4 del currículo, se incluye conocer, comprender y respetar las diferentes culturas y las diferencias entre las personas, la igualdad de derechos y oportunidades de hombres y mujeres [...]. Por otro lado, dentro de esos objetivos de etapa se contempla también desarrollar sus capacidades afectivas en todos los ámbitos de la personalidad y en sus relaciones con los demás, así como una actitud contraria a la violencia, a los prejuicios y discriminaciones de cualquier tipo y a los estereotipos sexistas.

Así mismo, el artículo 7, donde se enumeran los temas transversales a tratar, recoge que los centros educativos desarrollarán acciones encaminadas a la promoción de los valores inherentes al principio de igualdad de trato y no discriminación por cualquier condición o circunstancia personal o social, y para ello, entre otras medidas, evitarán comportamientos y contenidos sexistas y estereotipos que supongan cualquier tipo de discriminación.

Igualmente, la Ley Orgánica 8/2013 del 9 de diciembre nombra entre las competencias educativas las sociales y cívicas. En lo que a la asignatura de Valores Sociales y Cívicos respecta, en ella se describe que el área incita a la reflexión y propone aprendizajes relativos a la dignidad personal, al respeto a los demás y a los valores sociales en la

convivencia. De esta manera y teniendo en cuenta los objetivos de etapa, elementos transversales y competencias nombradas, se puede decir que trabajar las relaciones sexo-afectivas entre personas y el amor romántico se incluyen dentro de la enseñanza primaria.

En ese sentido, con la intención de desarrollar el marco general del ideario que existe del amor romántico en el alumnado de quinto de primaria y el futuro profesorado, se desarrollarán dos métodos para extraer dicha información. De esta manera teniendo el conocimiento de la situación actualizada de dicho ideario del amor y las relaciones sexo-afectivas se abrirá la oportunidad de crear dinámicas para trabajar las competencias previamente mencionadas en el aula a través del tema y se definirá también si existe el modo en el que la escuela influye en la creación de dicho imaginario del alumnado y en consecuencia de los jóvenes.

## **1.2 Objetivos**

El objetivo principal que se desarrolla mediante este TFG es analizar la influencia de los mitos del amor romántico en el imaginario del alumnado y futuros docentes de primaria de la comunidad educativa de Navarra. Dentro de este objetivo general existen otros objetivos específicos a conseguir, que son los siguientes:

- I. Completar una genealogía del amor romántico, haciendo una contextualización al sistema educativo actual.
- II. Analizar las creencias de los alumnos de quinto de primaria sobre el amor romántico, las relaciones sexo-afectivas y las normas de género a través de una actividad diseñada por el programa de coeducación SKOLAE.
- III. Estudiar la influencia del amor romántico en el imaginario de los futuros maestros y maestras.
- IV. Analizar el ideario del amor de los alumnos de primaria y futuros y futuras docentes en Navarra desde el punto de vista de la diferenciación emocional de género.

- V. Estudiar la relación entre el imaginario del amor romántico del futuro profesorado y el alumnado en el 5º de Educación Primaria en Navarra con la violencia de género.

### **1.3 Estructura del trabajo**

Este trabajo está compuesto por siete partes. Para empezar, se realizará una introducción al tema, contextualizando y explicando brevemente los objetivos de este estudio. A continuación, se procederá a explicar la justificación, los objetivos y la estructura del trabajo.

Pasando a la parte teórica, el marco teórico detalla información acerca de diferentes ramas en la que se basará la parte empírica, donde se ha realizado el análisis de este trabajo. Dentro del marco teórico, por lo tanto, se hablará sobre el género y la forma que ha tenido de estructurar la sociedad, la genealogía del amor romántico, los mitos románticos, la diferenciación emocional y la violencia de género, la educación androcentrista y por último, el camino que está desarrollando la educación actual hacia un modelo coeducativo.

En lo que a la parte empírica respecta, en ella se analizará a fondo la información recogida mediante las diferentes herramientas empleadas para conocer el ideario del amor romántico de los alumnos y de los futuros docentes, y a su vez, estudiantes del Graduado en Maestro de Educación Primaria. Para terminar con el análisis, se realizarán unas conclusiones finales y unas cuestiones abiertas respecto al tema analizado previamente. Finalmente, se citarán las referencias bibliográficas y se mostrarán los anexos.

## 2. MARKO TEORIKOA

Atal teoriko honetan, proposaturiko helburuei erantzuteko asmoz, maitasun erromantikoarekin zerikusia duten ardatzak azaltzera joko da, generoa eta hezkuntza deskribatzen diren ataletan ikuspuntu bezala edukita. Dimentsio ezberdinei dagokienez, lehenik eta behin generoa gizartea antolatzeko oinarri bezala nola funtzionatzen duen azalduko da, egungo gizartea egituratu duen aldetik. Bigarrenik, maitasun erromantikoaren ideia genealogia biltzen duten garai historikoen inguruko informazioa helaraziko da, egungo maitasunak duen egoerara testuinguratzeko bat eginez. Hirugarrenik, ikerlanaren gaia diren maitasun erromantikoaren mitoen inguruan hitz egingo da. Horren ostean, generoaren araberrako gizarteratze emozional desberdinaren berri emango da, izan ere, generoaren araberrako emozioen aldetik dauden desberdintasunetan oinarrituko da atal enpirikoan jorratzen direnak, baita generoa eta indarkeriaren artean dagoen harremanean ere. Laugarrenik, heziketa androzentrikoaren bertsioa azalduko da, familia ereduak eta eskolaren bilakaera analizatuko direlarik. Horrela, atala ixteko, hezkuntza eredu hezkidetzaille baterantz doanez gero, martxan jarri diren programak eta inizatibak aipatuko dira.

### 2.1 Generoa gizarte antolaketaren oinarri bezala

Generoa, gizartea antolatzeko oinarri edo printzipioa da (Esteban, 2011). Zentzu honetan, jendartea ordenatu eta hierarkizatzen du, beti ere tokian tokiko testuingurura egokituz, garai historikoaren arabera aldatzen delarik. Sexua eta sexualitatea ere, eraikuntza kulturalak direla esan daitekeenez gero, ikerlan hau testuinguru kultural eta sozialbaten barnean ulertu behar da, mendebaldeko garai postmodernoko herrialde bateko maila soziokultural ertaineko gizartean, alegia. Hori dela medio, jarraian agertzen den marko teorikoak garai postmodernoko mendebaldeko gizartearen egoerari egingo dio erreferentzia, kontzeptuek, izan ere, momentuan momentuko eta tokian tokiko gertaeren ondorioz hartzen dutelako duten esanahia.

“Genero” hitzaren jatorriaren inguruan, Scottek (1940) jaso zituen generoa lehen aldiz Ameriketako emakume feministen artean azaldu zenaren teoriak, sexuan oinarritutako bereizketen ezinbesteko giza nolakotasuna nabarmentzea desira zutenak. Egileak

Maitasunaren iruditegi anitzak: Nafarroako hezkuntza komunitatean analisia

azaltzen duenez, “genero” kontzeptua emakumeen jakinduriak paradigmaren diziplina transformatuko zutela baieztatzen zutenek proposatu zuten. Modu honetan, idazleak “emakume” hitza “genero” hitzaren sinonimo zela esan zuen bere ikuspuntutik, izan ere bere hitzetan, “genero” hitza emakumeen inguruko liburu eta artikulua izendatzeko erabiltzen da; horrela, neutralagoa eta objektiboagoa denez gero, gizarte zientzien terminologiara hobe egokitzeke asmoarekin erabilia.

Scottek jarraitzen du esanez, beraz, “genero” kontzeptua eraikuntza kulturala izendatzeko modu bat dela, emakumeei eta gizonezkoiei egokitutako rolen inguruko ideien erabat soziala den sorkuntza, alegia (Scott, 1940). Definizio honen arabera, hortaz, generoa gorputz sexual baten gainean ezarritako kategoria soziala izango litzateke.

Generoa horrenbestez, kategoria sozial bezala interpretatu daiteke eta haren funtzionamendua ulertzeko sexu-genero sistemaren nondik norakoak zeintzuk diren jakiteak lagunduko luke. Honen harira, Gayle Rubinek sexu-genero sistema definitzeko beharra zein den demostratzeko, marxismo klasikoaren sexuaren zapalkuntzaren espresioari eta kontzeptualizazioari egiten die erreferentzia. Izan ere, esaten du, marxismoa, bizitza sozialaren teoria bezala, ez dagoela ia sexuan interesaturik. Ez dago emakumeen zapalkuntza azaltzen duen teoriarik, ezta klase zapalkuntzaren teoria marxistari indarrarekin egindako azalpenaren antza duenik (Rubin, 1986).

“Sexu-genero sistema” definitu baino lehen, autoreak hori adierazteko “ugaltzeko modu” edota “patriarkatu” bezalako terminoak erabili direla esaten du, bere iritziz nahastea eragiten dutenak. Horrela definitu zuen Rubinek sexu-genero sistema; antolaketen multzo bat zeinarenatik gizarte batek sexualitate biologikoa giza produktuetan transformatzen duen (Rubin, 1975, citado en Cobo, 2005).

Sistemaren nondik norakoak azaltzerako orduan, egileak gizarte sistema behintzat teoriarik sexualki berdintasunezkoa edo “generoaren arabera estratifikatua” izan daitekeela baieztatzen du, ezagunak diren adibide guztietan gertatzen den moduan. Gainera, sexu/genero sistema terminoa neutroa dela adierazten du, hau da, sisteman zapalkuntza gertatzea saihestezina ez dela, hura antolatzen duten harreman espezifikoaren produktua baizik.

Generoa jendarte ordena patriarkalaren printzipio hierarkitzailea dela defendatzen duen ideiarekin harira, esan daiteke patriarkatua zentzu globaleko gizartea antolatzeko forma dela, erabat errotua dena, non botere taldeak -politikoa, ekonomikoa, erlijiosoa, soziala eta militarra- gizonezkoen eskuetan aurkitzen diren. Antzinakotasun handiko antolaketa da, gure egunerokotasuneraino iristen dena, eta Puleoren hitzetan ezinezkoa da egungo botere harremanen adibideetan honen ondorio direnak aurkitzea (Puleo, 2005). Poulain de la Barrek izan ere, emakumezkoen gutxiagotasuna gizartearen analisirako irizpide sozial determinatzaileena eta eraginkorra dela dio (Poulain, XVII, Cobon zitatua, 1995).

Sistema patriarkal honek gizarteak egituratzen ditu determinatzaileak diren gizartearen botere taldeetan gizonezkoen nagusitasunari mesede eginez, haren iraunkortasuna praktika material eta sinbolikoen sistema batean sostengatzen delarik, non horren instituzio guztietan adieraztera ematen den. Emakumeen gainean gizonezkoen aldetik egon den botere hartze historiko hau ordena biologikoaren aitzakia batean oinarritzen da, eta kategoria ekonomiko eta politikoetara bideratzen du (Sau, 2000).

Gayle Rubinek 1975an beraz, genero kontzeptuari forma eman zion eta momentu horretatik aurrera pentsamendu feministaren kategoria zentrala bihurtu zuen. Generoa kategoria sozial bezala interpretatzetik aurrera norabide ezberdinetan garatu da. Rosa Cobok, Rubinen generoaren birformulaketan oinarrituz, terminoa garatzen joan den norabide ezberdinen inguruan honako hau esan zuen; “el concepto del genero se refiere a la existencia de una normatividad femenina edificada sobre el sexo como hecho anatomico” [genero kontzeptuak sexuaren zentzu anatomikoaren gainean eraikitako arautegi femenino bati egiten dio erreferentzia] (Cobo, 2005; 250). Honek, generoa arau sorta batean oinarritzen dela esan nahi du, sexu biologikoaren gainean sozialki eraikia izan dena. Bigarrenik, Cobok arautegi femenino hau gizarte sistema baten gainean eraikia dela esaten jarraitzen du, non generoa hierarkizazio printzipio bat den espazioak egokitzen eta baliabideak banatzen dituen emakume eta gizonengan.

Hirugarrenkoz eta azkeneko nozioari erreferentzia eginez, autoreak “gizarte zientzietan generoa parametro zientifiko erantzunezinean bihurtu dela” baieztatzen

Maitasunaren iruditegi anitzak: Nafarroako hezkuntza komunitatean analisisa

du. Hala ere, azpimarratu beharra dago generoa XXI. mendetik aurrera feminismotik bereizten ari dela bai eremu politikoan baita eremu akademikoan ere, termino hau teoria feministaren analisirako instrumentu gisa erabilia izan den arren (Cobo, 2005).

### *2.1.1 Sexuaren araberako lanaren bereizketa*

Sistema patriarkalari eta bertan jorratzen diren ezberdintasun egoeren inguruan, Lagardek sexuaren araberako lanaren bereizketa azaltzeko genero ikuspuntua definitzen du lehenik eta behin. Izan ere, genero ikuspuntua generoaren analisia egiteko ikuspuntua da, etika oinarri izanda eraikitzen den eta filosofia posthumanistara bideratzen duen bizitzaren eta munduaren ikuskera feminista bat, gizatasunaren ikuskera androzentrikoa kritikatzeko duena gizatasunaren generoaren erdia kanpoan uzteagatik; emakumeak, alegia. Horrela, genero ikuspuntuak "tiene como uno de sus fines contribuir a la construcción subjetiva y social de una nueva configuración a partir de la resignificación de la historia, la sociedad, la cultura y la política desde las mujeres y con las mujeres" [genero ikuspuntuak historiaren, gizartearen, kulturaren eta politikaren birdefinitzea abiapuntu hartuta eraikuntza subjektibo eta sozialari laguntzea du helburu, emakumeengandik eta emakumeekin] (Lagarde, 1996: 13).

Modu honetan, esaten du autoreak, lana genero ikuspuntutik begiratzen bada emakumezkoen kontzesio bezala bizia izatera ailegatzen da, izan ere, haiek kontuan hartzea eta izendatzea ez dira praktika adierazgarriak ezta benetan inportanteak. Izan ere, suposatzen da emakumeak ez direla politiko eta ekonomikoak diren ahalegin instituzionalen parte izan behar, garapena eta demokrazia bezalako esparruak gizonen kontuak direnez gero (Lagarde, 1996).

Horrela, munduaren publiko/pribatu bereizketa hori antolaketa honen arabera ematen da: lanaren bereizketa eta emakume eta gizonen partehartzean desberdintasuna espazio eta gizarte jardueri dagokienez, emakumeen eta gizonen segregazio sexuala nahiz betebeharren elkarbanatzea eta bien arteko elkarbizitza ere. Ondorioz, esan daiteke eraikitzen diren emakumeen eta gizonen identitateak eta haien arteko harremanak aldakorrek direla bizi garen munduan (Lagarde, 1996).

Honi lotuta, Izquierdok (2010) merkatuaren eta merkatuaren parte ez diren harremanen inguruan, administrazio publikoaren harreman hauek emakumeen

gaineko gizonezkoen nagusitasunezko posizioa eratzten dutela dio, hauen esplotazioaren bidez. Izan ere, emakumeak eremu pribatuan lan egiten dutenez gero, bizitzaren zaintza praktika hondar-jarduera bilakatzen da, emakumeak familia produkzioarekin erlazionatzen direnaren aldetik (Izquierdo, 2010). Horrenbestez, emakumeak ez dira bakarrik emakume moduan esplotatzen, langile bezala ere. Haien lan esparrua gehien bat eremu pribatuan ematen denez, emakumeen lanak ez du baliorik gizonezkoek maneiatzen dituzten instituzio publikoetan, azken hauen lana gainera sozialki baloratua izateaz aparte ekonomikoki soldatapekoa izanik.

### 2.1.2 “Maskarada postfeminista” (Angela McRobbie, 2007)

Angela McRobbiek 2007 idatzi zuen artikulua batean ondorengoa planteatu zuen: “Nola azaldu dezakegu emakume gaztearen kategoria berri bati bidea eman dioten eraldaketa sozial, kultural eta ekonomikoen multzoa?” (McRobbie, 2007). Azken mende honetako ikuspuntu feministetan oinarrituz izan ere, Angelak garai postmodernoetan eman diren transformazioak positibo bezala interpretatuak izan direla dio, emakumeen bizitzak onera egin duenaren oroitzapen gisa, alegia. Hala eta guztiz ere, horrela jarraitzen du, berak aurkezten duen ikuspuntu feminista erne dago azkenaldi honetan egon den politika eta ekonomiaren indarren aldeko mugimendu feministaren sakontzearen aurrean. Izan ere, instituzioak feminismoaren nozioak birformulatzen ari direla dio, forma ekonomiko eta sozial neoliberalen parekoago izan daitezaren asmoarekin.

Emakume gazteetan dauden azken garai honetako aspirazioak emakume arrakastatsu eta partehartzaile izatearenak dira. Eredu hauek praktika espezifiko batzuen agerpena ekarri dute, erabat progresista eta femeninoak diruditenak. Honek gizartean nolabait emakumeek berdintasunerako borroka irabazi dutenaren sentazioa zabaldu, gobernuaren partetik ere merezi duten arreta jaso eta banako askeak direla iradoki du, dagoen feminismoa zalantzan jartzeko beharra itzaliz (McRobbie, 2007). Honela, autoreak “maskarada postfeminista” deituriko ideia agerpena ematen dela esaten du, patriarkatuaren aldetik ematen den uste-estrategia bat, desberdintasun sexualaren binarioritasun egonkorraren momentuko etenaldiari aurpegia ematen diona (McRobbie, 2007). Modu honetan, emakume gazteak, boterean dauden eragileek bultzatutako feminismo berri honen parte direnaren eta haien berdintasunarengatik borrokatzeko Maitasunaren iruditegi anitzak: Nafarroako hezkuntza komunitatean analisisa



arrazoiak galdu dituztenaren usteak dituzte, modernizazio hasieratik zegoen sistema patriarkalaren formara egokitzen direlarik.

## **2.2 Maitasun erromantikoaren ideia genealogia**

Maitasun erromantikoak gaur egun izandako bilakaera aztertzeko, garrantzitsua da marko historiko, sozial eta kulturalean kokatzea. Jakina da izan ere, maitasunaren marko honek bilakaera bat jasan duela, gaur egungo egoerara heltzeko aldaketa eta eboluzio bat eman dela, alegia. Horiek horrela, ezinbestekoa da maitasun erromantikoaren genealogia eta ideia edo mito honen jaiotzari erreferentzia egitea eta analisi sakon bat egitea; aldi berean, lan honen eta ondoren deskribatuko diren prozesu eta ikerketen oinarri direlako eta haiek ondo kokatzeko eta ulertzeko ezinbestekoa delako sorburua zein den ezagutzea. Mito erromantikoek garai soziohistorikoen arabera beraz aldaketak jasan dituzte, eta eskoletan ez da modu beretsuan landu beti, genero aldetik ere hezkuntza munduan prozesu ezberdinak gertatu direlarik. Horretarako, garai historikoetan zehar maitasun erromantikoak izan duen bilakaera aztertuko dugu, egungo egoerara testuinguratze bat egiteari begira.

### *2.2.1 Kapitalismoa eta maitasun erromantikoaren ideia*

Maitasunaren mitoaren hastapenetara joanez, hezkuntza sistemak historian zehar izan duen emakumeekiko eta gizonekiko trataera eta baldintza desberdinak hartu behar dira kontutan. Izan ere, esan daiteke maitasun erromantikoaren ideia ulertzeko genero aldetik dagoen desberdintasuna hezkuntzak garai historiko bakoitzean genero bakoitza hezteko izan duen moduari dagoela loturik.

Ruth Iturbidek (2015) maitasun erromantikoaren ideia sorrera garbi zein den azaltzen du. Egileak dioenez, maitasun erromantikoaren ideia bere horretan, modernizazioaren hasierarekin bat dator, izan ere, modernizazioaren prozesu historiko, kultural eta sozialek sekulako eraldaketa eragin dute maitasunaren ulertzeko eta bikoteen harreman- atzeko moduan. Modernizazioarekin batera aurretiko ideia eta diskurtso askoren egiatasuna zalantzan jarri ziren, hauek guztiak izan ere, “se dan en un contexto social, cultural e histórico concreto y suponen, también, un impacto sobre

---

los discursos de género” [testuinguru sozial, kultural eta historiko konkretu batean ematen dira, generoen diskurtsoetan inpaktua sortaraziz] (Iturbide, 2015, 21p.).

Kapitalismoaren sorreraren inguruan, bestetik, Silvia Federicik bere *Caliban y la bruja* liburuan garai modernoaren hasieran eman zen ehun mila emakumeen erailketaren eta emakumeen aurkako borroka honetan zergatik kapitalismoa jaio zen inguruko analisia egitea da du xede. Izan ere horrela jarraitzen du autoreak, eman zen sorginen ehiza hori emakumeek haien ugalketa funtzioaren gaineko kontrola hondatzeko sortu zenaren iritzia zabaltzen da emakume akademiko feministen artean, sortu zen zapaltzaileagoa zen erregimen patriarkalari bidea emateko. Bestetik, sorginen ehiza hau kapitalismoaren sorrerarekin batera eman ziren transformazio sozialekin lotuta dagoela defendatzen da ere (Federici, 2004). Horrela, kapitalismoaren sorrera emakumeen kontrako borrokarekin harremantzen da, sistema patriarkalaren indartzearen saiakera batean.

Kapitalismoaren sorrerak, gizarte egitura eta harremanetan eraldaketa sakona eragin zuen (Iturbide, 2015). Halaber, merkatuaren sorrera honek maitasunaren dimentsioetan ere adaketak ekarri zituelarik. Modernizazioak ekarri zuen merkatuaren eta maitasunaren ekonomizazio prozesu horretatik abiatuta familiak konpromisoz ezkontzetik sortu ordez, maitasunetik sortzea, hau da, erromantizismo eta afektibotasunetik sortzea, ez ordea ez ordea garai aurrekapitalistan gertatu ohi zen bezala, hitzarmenetatik edota familia barneko nahietatik. Hala ere, Eva Illouzen esaten duen moduan, “todavía no comprendemos los mecanismos mediante los cuales se entrecruzaron el mercado y el amor, es decir, los modos en los que la experiencia romántica se tradujo en prácticas económicas” [oraindik ezin dugu jakin ze mekanismoren bitartez uztartu ziren merkatua eta maitasuna, hau da, esperientzia romantikoa praktika ekonomikoetan bilakatu ziren moduak] (Illouz, 2009, p.47). Hau horrela bada, hortaz, esan daiteke erromantizismoaren kultura kapitalista honetatik jaiotako iruditegiak legitimatu egiten dituela kapitalismoaren oinarriak eta filosofia.

Merkatuan eta lan munduan emakumeek duten posizioari begira, esan beharra dago sexuaren araberako lanaren bereizketa ez zela kapitalismoaren asmakizuna izan. Izan ere, betidanik eman den egoera dela esan daiteke. Kapitalismo historikoan berriki gertatu zena emakumeen lanarekiko balio gutxitzea izan zen, gizonezkoen lana

Maitasunaren iruditegi anitzak: Nafarroako hezkuntza komunitatean analisia

goraipatzen zen bitartean. Horrela, lan egiten eta etxera dirua eramaten zuen gizonezkoa “familiako buru” eta etxean lan egiten geratzen zen emakumeak “etxeandre” bezala izendatuak izan ziren. Testuinguru honetan, etxetik kanpo lan egiten zuten gizonezkoak biztanleria aktiboaren parte kontsideratuak izan ziren, baina ez ordea etxeandreak, modu honetan sexismoa instituzionalizatu zelarik (Wallerstein, 1983).

### *2.2.2 Egungo maitasun erromantikoaren ideia egoerara testuinguratze bat*

Modernizaioan jaio zen maitasun erromantikoaren ideia mitoa denaren aldetik, esan daiteke mito orok badaramala bere baitan errealitatearen parte bat. Honek berekin dakar errealitatearen atal hori aztertzea, izan ere, errealitateak kontraesan hori indartu egiten du amodioaren barnean dauden sineskera horiek guztiak zalantzan jarriz. Egun, hortaz, esan daiteke ideal erromantikoak “reproduce la ideología democrática de la era capitalista [...], las desigualdades propias del mercado al ser éstas transferidas a la vinculación amorosa de pareja” [garai kapitalistaren ideologia demokratikoa erreproduzitzen du, merkatuarenak diren desberdintasunak, hauek bikote harremanetara transferituak diren aldetik] (Illouz 2009, p.45).

Bada, egoera honetara iristeraino erromantizismoaren ideiak zenbait aldaketa eta prozesu jasan ditu. Aurretik esan bezala, mitoa beti ere marko eta testuinguru baten barnean ulertu behar da, garai historikoa beti etengabeko aldaketan dagoelako. Izan ere, prozesu dinamiko hauek gizarteak ideia batekiko duen ulertzeko eta bizitzeko modua erabat aldatzeko ahalmena dute. Hori kontuan izateak lagunduko du ideiak diren bezalakoak zergatik diren ulertzen, baita kontzeptua inguratzen duen marko orokor hori ikuspuntu zabalago batetik analizatzen.

Esan bezala, kapitalismoaren sorrerak berekin ekarri dituen iraultza industrialak eta haren elementu hauskor eta eraldatzaileak gizartearen antolatzeko moduan txertatzea eta finkaturik zeuden hainbat jokamolde eta eredu desagertzea edo zeharo eraldatzea eragin du. Teknologia berritzaileak, eraberritzea bera eta aurkikuntza zientifikoek eragindako iraultza honek lehenik eta behin, gizartean finko zeuden ainguratze askoren desagertzea eragin du, hala nola, erlijio eta erritoena baita familia kopurutsuena, *familia nuklearraren* ereduari bide emanez eta ohiturena, momentuan

---

zegoen ziurgabetasunak lagunduta beti ere. Hauek era berean, gizartearen eta maitasunaren esanahiaren transformazioa eragin dutelarik (Garcia Garcia, 2006 ; Iturbiden zitatu, 2015).

Egoera honetan, esan daiteke gaur egungo prozesu eta eredu hauek bereziki nabarmentzen direla aurretiko prozesuekiko duten errefusatzearengatik. Egun dagoen dinamismo honek ez dauka tokirik izan ere, lehendik zegoen erlijioaren atxikimendu, familiaren tamaina, ohitura edota bizi estilo eta komunitatearentzako. Modu honetan, esan daiteke mitoaren esanahiak jasandako prozesu eta transformazio hauek guztiak posible izan direla testuinguruak horrela ahalbidetu duelako. Azkeneko honek, mito horrela izatea eragin du bere hiru oinarritzko egituretan; sozialean, merkatuaren egituretan, eta kulturean edo ideologikoan gertatzen diren fenomenoekin (Ibid.).

Kapitalismoaren askatasunak interes pertsonala edota kompetentzia justua bezalako ideiak dakartza harekin, harreman interpersonalak beste modu batean interpretatzen dituelarik, norbanakoaren espresioan eta aukeratzeko eskubidean, hain zuzen ere (Illouz, 2009, p.86). Esan bezala, aldaketa bat ematen da aukeraketa prozesuetan modernizazioarekin batera, esparru emozionalek garrantzia hartzen baitute alderdi sozialen aurrean. Pertsonok mendebalde globalizaturako herrialdeetan indibidualki aukeratzen dugu nor maitatu eta norekin ezkondu, talde aukeraketa bat izatetik norberaren irizpideen eta emozioen arabera egindako aukeraketa izatera pasatuz, norberaren kargu eta erantzukizun izatera, alegia (Iturbide, 2015).

Pertsonen indibidualtasuna indartu eta erabat dinamiko bihurtzen dituen testuinguru eta fenomenoak bestetik, indarrean dauden bikote harremanenagatik ikuspegi monotonoarekin eta "laranja erdia" bilatzeari deritzon fenomenoarekin sekulako anibalentzia bat sortu du (Ibid.). Erabateko mugikortasunean bizi den gizartea, monotonia goraipatzen eta bikote iraunkorrak bilatzera bultzatzen duten ideiekin elkar bizitzera pasa da izan ere, sekulako kontraesanean eroriz, existitzen diren ezberdintasunak gizonezkoen eta emakumezkoen balioari eta egoera hau bizitzeko moduari dagokionez.

Merkatuaren oinarritzko egituraren trantsizio fenomenoaren harira, erromantzearen kontsumo eta haren ondasun osagarrien kontsumoa, lehenagotik zeuden senar-emazteen harreman eta ezkotzetan nahiz balio sozial berrien (bikote harremanen Maitasunaren iruditegi anitzak: Nafarroako hezkuntza komunitatean analisia

dibertimendu eta pasioaren ideiak) artean zegoen konbinaketa horretan txertatu dira. Horiek horrela, sexuaren araberako lanaren banaketa, lanaren banaketa sozialaren lehenengo forma dena (Izquierdo, 2003), zeuden bikote harreman heterosexualen ezaugarri bihurtu da eta horren arabera funtzionatzera jo dute azken hauek.

Egoerak honelakoa izanik, harremanezko anibalentzia eman da. Izan ere, kontuan hartu beharrekoa da guztiontzako erromantzea zabaltzen hari den bitartean, indarrean dagoen sistemak klase eta genero desberdintasunak legitimatu egiten dituela. Horrela, modernizazioaren bukaeraren garai transformatzailearen testuinguru honetan, genero deserditasun ezak eta hierarkizazioak borraraten dituen *Girl Power* bezalako mugimenduak zabaldu dira (McRobbie, 2004 zit. Iturbide, 2015).

Beste alde batetik eta gaiarekin jarraituz, ezkontzaren eta senar-emazteak definitzeko moduan ere aldaketak eman dira. Bikoteen iraunkortasun eta zurruntasunaren aurrean, beste motatako bikote harreman pasionalak, kidetasunean oinarrituriko eta esperientzia hedonistak barneratzen dituzten harremanak sortu dira. Momentu honetan jaio dira ere Illouz-ek (2009) horrela deituriko “erromantzearen ekonomia politikoa” eta Izquierdok (2000) horrela izendatutako “familia fusionalaren” kontzeptuak. Lehenengo kontzeptuak momentuko ekonomia sistemak, zeuden gizarte klaseen eta genero desberdintasunak konfiguratzeko zituelari egiten dio erreferentzia, eta bigarrenak, garai postmodernoetako gizartearen familia ereduari (Iturbide, 2015). Familia eredu honetan, gizonezkoei egokitzen zaie eredu hegemoniko patriarkal klasikoaren papera. Emakumezkoei, berriz, etxeakoandre eta ume zaintzailearena.

Erljioan ere maitasunaren kontzeptuak bere tokia aurkitu du. Jainkoarenganako maitasuna oso presente dago mendebaldeko gizartean, hala ere, geroz eta gehiago dira erlijiorik ez dutenak eta jainkoengan sinesten ez duten pertsonak. Kontraesan honekin bizitzera pasa da orduan gizartea, momentuko bizi erritmo dinamikoak eta eraldatzaileak aspaldiko ideologia erlijioso finkoekin nahastu bait dira (Iturbide, 2015).

Beste puntu batera joanez, momentu honetan ere, identitate indibidualen ideia fantasiosoa aurkeztu da. Autorearen hitzetan gainera, “bi edo gehiagoaren arteko bizikidetasunak sortutako arazoek ikusezintasuna” eman da (Ibid, 29 pag). Autorearen hitzetan, honek berekin ekarri du egoera xumeago eta behartsuan dauden kolektibo

naiz pertsonen desbabesa. Sistemaren ikuspegitik, barne dinamika hauek pribatu eta intimo bezala ulertzen dira, horregatik ez dute esku-hartzerik egiten edota giza talde hauek babesten. Honen adibide garbi bat emakumeen aurkako indarkeria da.

Gizarte kontsumista honetan maitasunaren eta bikote harremanen merkaturatzea fenomeno azpimarragarria izan da. Hau da, harremanak, kapitalismoaren estutik doazen hainbat dinamiken eta prozeduren menpe daude, horien artean, jatetxetan afari garestiak izatea, pelikula erromantikoak ikustea, opariak, hotelak, San Valentín eguna .... (ibid.) Pelikuletan agertzen zen maitasun erromantiko horren bilaketan, bikoteek kapitalismoaren eskutik eskaintzen diren produktu eta dinamikak kontsumitzen dituzte, egunerokotasuneko bikote harremanen eta ideal erromantikoan aurkezten den maitasuna bizitzeko estiloen artean anibalentzia sortuz.

Kultura eta klase ideologiara salto eginez, sistemaren oinarritzko egitura honetan ere aldaketa nabariak egon dira. Hasteko, erromantzean egondako anibalentzia kulturala aipatu behar da, “bi dinamika dibergenteen arteko konbinaketa; inklusioa (maitasuna denontzat) eta eskusioa (praktika erromantikorik ez gizarte klase ezberdinen artean)” (ibid., 31). eman denez gero, bi errepertorio kulturalen konbinaketaren eskutik, hedonista eta produktiboa.

## **2.3 Maitasun erromantikoaren mitoak**

### *2.3.1 Definizioa eta motak*

Maitasunak dituen formen artean, maitasun erromantikoak sortu dituen mitoen inguruan hitz egingo da atal honetan. Mito bat sinismen bat da, malgutasun gutxirekin egi bezala formulatua eta modu absolutuan adierazia izan arren. Sinesmen hauetan emozio fluxu handiak daude, sentimendu asko kontzentratu eta taldearen ideologia sortzera eta mantetzera laguntzen dutenak. Arrazoi honegatik, mitoak aldaketei eta arrazonamenduari eusteko gai dira (Ferrer eta Bosch, 2002). Generoaren sistema honetan izan ere, emakumezkoengan eragin handiagoarekin, mito, sinesmen eta ideia hauek maitasunak “denarekin ahal duenaren” ideologia indartzen dute, eta badirudi sentimenduak autonomoak direla kontzientzia eta nahiarekiko (Esteban, 2011).

Maitasunaren iruditegi anitzak: Nafarroako hezkuntza komunitatean analisia

Gizarte modernoan indarrean dauden mito erromantikoak zeintzuk diren, eta, ondorioz, jendartean sortzen dituzten kalteak eta eredu sexistak eta matxistak zeintzuk diren zerrendatu eta komentatu aurretik, maitasuna zer den definituko da. Maitasuna modu askotan uler daitekenez gero, eta izan ditzakeen forma ezberdinak kontuan hartuta, denboran zehar zeinbait autoreek emandakoak aipatuko dira jarraian. Lan hau maitasun erromantikoren mitoan zentratuko denez, hor jarriko da fokoa. Beraz, amodioaren forma erromantikoaren denifinizioa izango esanguratsuena ondoren egingo den analisia egiteko.

Amodio erromantikoaren inguruan hainbat autorek baietatzen dute bai amodioa orokorrean eta baita erromantizismoa edota maitemintzea bezalako kontzeptuak “eraikuntza sozialak” direla, hau da, gizarteak dortu ditu eta gizarteak transformatzen ditu denboran eta garai ezberdinetan zehar. Barronek, Martínez-Íñigok, Paúlek, eta Yelak (1999), adibidez, maitasun erromantikoa eraikuntza sozial bat denaren aldetik, garai historikoaren arabera modu ezberdinean kontzeptualizatu dela diote (Barron, Martinez-Iñigo, Paul eta Yela, 1999; Yela, 2000, 2003; Merinok zitatua, 2016).

Maitasun erromantikoa lau elementuetan oinarrituz difini daiteke: idealizazioa, bestearen erotizazioa, intimitatearen desira eta etorkizuneko itxaropena. Unibertsala den formulazio batengan oinarritzen da, gurea balitz bezala hartzen duguna, ez ordea elementu horiek ez daudelako edo beste maitasunaren firmetan aurkitu ezin direlako -gurasoena, anai- arrebera edota laguntasuna, besteren artean-, baizik eta mendebaldeko gizartean duten traterak espezifikorengatik maitasun sexualari erreferentzia egiten dioten bakoitzean (Jankowiak, 1993, citado en Esteban y Távora, 2008).

Maitasuna ez da materiala den entitate bat, behatu daitekena, eraikuntza psikologikoa baizik; barne egoera bat zeinek ez dauka kanpo adierazlerik, “sintomarik” nolabait. Horregatik, haren jatorria edota bizipenak zehaztea zaila da (Sangrador, 1993). Sozialki eta historikoki onartu dugu “maitasun erromantikoa” eta “maitasuna” aurrez aipaturiko elementuez ezaugarrituriko sentimendu unibertsal bezala. Baina ez da horrela, testuinguru sozio- kultural jakin baetan garatzen den sentimendua da (Pascual, 2016). Bestalde, esan daiteke fenomeno soziokultural ez unibertsaletik

eratorritako amodioak gizarte modernoan duen garrantzia mendebaldeko kulturak eragindakoa dela, beste garai eta herrialdeekin zerikusirik ez duena.

Sangradorrek (Op. cit.) gainera, familiak amodio erromantikoa abiapuntu hartuta sortzen direla azpimarratu du. Izan ere autoreak baieztatzen du egin diren ikerketa empiriko askok islatzen dutela, galdetu zaien pertsonen gehiengoak haien desirako gaitasunak izanda ere maitemindurik egon gabe inoiz ez zirela ezkonduko. Egoera honek beste herrialdetan eta garai historikoetan ez luke zentzurik izanen, horrenbestez, garaian garaiko eta tokian tokiko maitasunak duen interpretazioak bereiztu, eta, hortaz, sortzen diren mitoek duten kutsua testuinguru baten barnean ulertu behar dira.

Maitasunak herrialde eta momentu historiko bakoitzean duten esanahiak bereizteaz aparte, gizonezkoen eta emakumezkoen mitoen inguruko ikaskuntza desberdindua azpimarratzea komeni da. Maitasunaren inguruko ikaskuntza izan ere, ez da modu berdinean ematen gizonengan eta emakumezkoengan. Horrek, patriarkatuak duen maitasun erromantikoaren inguruko eskema iraunaraztea dakar berarekin (Pascual, 2016), gizonezkoek matxistak diren rol klasikoak eta emakumezkoek berriz menpekotasun rola erreproduzitzen dituztelako behin eta berriz.

Genero ikuspuntik aztertuz gero, mito erromantikoek neska eta mutilengan izan ditzaketen eraginak desberdinak izan daitezke, esan den moduan, genero gizarteratze ezberdindua dela eta modu desberdinean ikasten dutelako maitasuna zer den. Mito erromantikoaren artean ere, indarkeria sustatzen duten ideiak daude, horregatik garrantzitsua da haiek identifikatzea eta ikasleekin lantzea. Horrela, amodiaren negoziaketa beharrezko bihurtzen da, amodio forma berriak "hezitzea", hauek modu demokratiko batean eta berdintasunean oinarrituta eman daitezkeen (Pascual, 2016).

Coral Herrerak 2010. urtean egindako elkarrizketa batean izan ere, maitasun erromantikoak mutilei ze rol egokitzen zien inguruan galdetu ziotenean, honek gizonezkoen "animalia basatiaren" rola egokitzen ziela esan zuen. Doktorearen iritziz, mutilen funtzioa abenturak biztea eta konpromezutik ihes egitea da, beti ere emakumetaz disfrutatuz. Behin ezkondata, gizonak babeslearen rola hartzen du familian, pentsatzen duen burua da.

Maitasunaren iruditegi anitzak: Nafarroako hezkuntza komunitatean analisia



Emakumeen kasuan berriz, adituak emakumezkoek rol bikoitza jasotzen dutela esan zuen. Alde batetik izan ere, gizonezkoen heiztariak daude, haiek aseko eta manteduko dituen gizonen bila dabiltzanak. Bestalde, rol pasiboa mantentzen duten emakumeak daude, etxean geratzen direnak “printze urdinak” haien identitatea entregatuko dienaren esperoan (Califragilistiko; Herrerari elkarrizketa, 2010), haien hutsuen esistentziala beteko duen identitatea.

Mito erromantikoen artean, “laranja erdia”-ren mitoa aurki daiteke. Mito horren izenak berak esaten duenez, pertsona bakoitzak haien osotasuna osatzen duen pertsona bat daukate egokituta munduan, biak batuz gero “laranja oso” bat sortuko dutelarik. Sinismen honek pertsonok nolabait predestinatutako pertsona aukeratzeko dugula dio, izan zitekeen aukerarik hoberena eta bakarra izanik. Mito honek bere jatorria Grezia Klasikoan dauka, Amodio Adeitsuan eta Erromantizismoarekin batera indartu egin zena (Ferrer, Bosch eta Navarro 2010).

Pertsona batek mito hau plantetzen badu, Mari Luz Estebanek egindako elkarrizketa bateko (2011) pertsona baten iritziz, frustratzeko aukera asko izango ditu, izan ere, pertsona bat itxarotea eta, gainera, berarengandik dena espero izatea bizitza zapuzteko modukoa da. Mito erromantikoen inguruan Estebanek egin zuen elkarrizketan, emakumezkoen gehiengoak gainera, ez zuen mito honetan sinesten, baina onartu zuen gartzetan horretan noizbait sinistu izana.

Bestalde, bikote harreman heterosexualei buruzko mitoen harira, ezkontzaren, eskusibotasunarena, fideltasunaren nahiz jeloskortasunaren ideiak aurki daitezke gizarte modernoan. Alicia Pascualek (2016) eta E. M. Peñak egindako sailkapenean oinarrituta, mito hauek “maitasuna posesio eta eskusibotasuna da” taldeare barnean sartu ditu. Ideia hauek guztiak, gizartean txertatuak izan ziren Kristautasunaren eskutik bikote harreman eredu berri bat ezartzeko asmoarekin, beste kultura eta urrezko garaietatik desberdinduz (Ferrer, Bosch eta Navarro, 2010).

Sailkapen horretan oinarritzen jarraituz, banatzen den beste dimentsioetako bat “maitasunak dena gairi dezakearen” dimentsioa bereiz daiteke. Mito honek berekin ekartzen ditu beste hainbat uste, hala nola, gatazkak maitasu erromantikoaren parte normala direnaren ustea, tratu txarren eta maitasunaren bateragarritasuna eta

benetako amodioak dena aguantatu eta barkatu egiten duenaren ideia, besteak beste. Uste hauek gure gizartearen bikote harremanetan indarrean dauden ideiak direnez gero, genero indarkeria bezalako auziak edota toxikotasuna harreman sexu-afektiboetan sartzeko eta haiek normalizatzeko arriskua dago, izan ere, indarkeria inplizituki ematen da, eremu pribatuan, instituzio publikoentzat ikusezin bilakatzen delarik.

Hurrengo dimentsioak maitasuna gauzarik garrantzitsuena eta gauza guztien erdigunean jartzen duten ideia multzoari egiten dio erreferentzia. Maitasun erromantikoa bizitzerako momentuan “erabateko entrega” edo “intimitatearen galtzea” ematen direnaren usteak emakumeak “haietzako izatetik” “besteentzako izate” (Basaglia Ongaro 1987; Pascual 2016n zitatua) izatera pasatzen dira ere, sakrifizio hori maitasunaren parte denaren sinesmena zabaldua baitdago jendartean, emakumeei zaintza lanarek egokitzen zaizkien momentutik.

Azkeneko dimentsioak barne hartzen ditu eksklusibotasuna eta jabetza bezalako kontzeptuak, ezkontza maitasunaren iraunkortasun eta finkatzea izatearen edota norbaiten jabetasuna ematen denaren ideiekin batera, adibidez. Hauekin guztiekin bikote harreman monogamoak eraiki eta hori harremanak izateko modu bakarra denaren sinesmena zabaltzen da gizartean, ezkontza harreman horiek indartzeko eta batak bestearen jabetza duela bermatzeko erreminta bihurtzen delarik. Ezkontza izan ere modernizazio garaitik hona maitasunari lotuta egon da erabat, gizarte antolaketaren oinarri izan dena hau “zibil” edo “eklesiastiko” izanda ere, non harreman afektibo- seksualak maitasunezko hierarkiazko klasifikazioaren erdigunean ipintzen diren (Esteban, 2011; Iturbiden zitatua, 2015).

Garai berritzaileek alde aurretik zeuden sineskera eta praktikak sustatu eta haiek gogor kiritkatzea ekarri dute haiekin. Mito erromantikoak izan ere harreman afektio eta emozionalen parte direnez, ez dira beste auziak bezala kritikitzen jendartean. Brigitte Vasallok izan ere amodio monogamoaren inguruan honako hau dio; “la monogamia es el unico pacto social, junto con el patriotismo (la otra gran forma de monogamia) que es intocable, incuestionable” [monogamia patriotismoarekin batera (monogamiaren beste forma handia) ukiezina eta eztabaidaezina den itun sozial bakarra] (Vasallo, 2020). Vasallok honekin jendearen askatasuna defendatzeko

Maitasunaren iruditegi anitzak: Nafarroako hezkuntza komunitatean analisisa

moduak zalantzan jartzen dituela esan nahi du, izan ere ezkontza, heterosexualitatea eta aurreko garaietan zeuden beste ideologia kontserbatzaileei kritikotasunez eragin die gizarteak, baina norberaren harremanak iraultzaren aurrean jartzea gehiago kostatzen du, dirudienez.

### *2.3.2 IKT-ren eragina maitasun erromantikoaren mitoen eraikuntzan*

Genero rola eta amodio erromantikoaren ideiak eraikuntza soziokulturalak direnaren aldetik esan daiteke eskolan eskaintzen diren ikus-entzunezkoek eragina izan dutela ikasleen amodio erromantikoaren ideien eraikuntzan eta genero rolen arauak bereganatzerako orduan. Izan ere, garai postmodernoetan ere produktore eta sortzaile askok errealitatea bitan banatzen duten generoaren estereotipo sozialei lotuta jarraitzen dute (Pascual, 2016). Horiek horrela, ikasleek gara modernoetatik haratagoko urteetan ere eskolan jasotzen dituzten ikus-entzunezkoetatik genero rolen inguruko mezu klasikoak jasotzen jarraitzen dituzte.

Maitasun erromantikoaren inguruan esan daiteke hura garai postmodernoetako mendebaldeko kulturak banakoaren konfigurazioaren nukleoan jartzen duela, azken hau subjektuak definitzerako orduan ezinbesteko bihurtuz, horrela, bikotea ez izatea “hutsunetzat” interpretatzen delarik gizartean (Esteban eta Tavora, 2008). Modu honetan, ikasleek maitasun erromantikoa haien bizitzaren erdigunean jartzeko arriskua dago egun ere, non eredu heterosexual monogamo klasikoaren eredu gehien nagusitzen dena den eskaintzen zaien ereduetan.

Horrela, eskolan eta hortik kanpo jasotako mezuak haiek garai teknologiko berritzaileekin batera jasotako mezuekin nahasi eta haien identitatea sortu egiten dute. Modu honetan, edukien digitalizazio prozesuan difusio, eskuragarritasun, administrazio eta sortzearen gastuak bezalako onurak ekarri ditu (Rodriguez-Lopez, 2015). Hala ere, genero estereotipoen ideien zabalkuntzarako ere lagungarri izan dira. Modu honetan, autoreak jarraitzen duen moduan, IKT-ak balioen eta genero estereotipoen zabalkuntza bultzatzen dute, komunikabideetan emakumeek duten papera ere barne hartuz.

## **2.4 Generoaren araberako gizarteratze emozional ezberdindua**

Gizakiok sentitzen ditugun emozioek lotura zuzena daukate momentuan indarrean dauden dinamika eta prozesu soziokulturalekin. Emozioetatik eraikitzen dira hein batean gizartea egituratzen dituzten ideiak, eta haietaz baliatuz sistemak inposaturiko jokamolde eta arauak bete egiten dira. Horregatik, emozioak gizakiok kontrolatu gabe sentitzen dugun energia bezala ulertuak izanda ere, beharrezkoa da haiek nola sortzen diren aztertzea. Emozioen analisisa egiten duten zenbait autoreen ikerketak ikuskatuko dira orain, zeintzuk genero ikuspegi batetik aztertuz gero, maitasunaren mitoaren eraikuntzaren inguruko informazio asko emango diguten. Izan ere, emozioa eta maitasuna lotuta daude erabat, “maitasuna subjektu modernoa egituratu eta harengan eragiten duen bigarren mailako emozioa” (Iturbide, 2015: 213) da eta.

Emozioak beraz, elkarrekintza sozialen eraginez sortzen dira, eta, ondorioz, egitura sozial eta aktore sozialen lotura bezala jokatzen dute hauek. Horrela, egitura sozial berdina partekatzen dutenek antzeko emozioak sentitu ditzakete (De Miguel Calvo, 2011). Horregatik ondoriozta daiteke emakumeek egitura sozial antzekoa elkarbanatzen dutenez gero, berdintsuak diren emozioak bizi ditzaketela, gizonezkoen kasuan ere berdin gertatzen delarik.

Azpimarratu beharra dago ere, Hochschildek bere liburuan, “La mercantilización de la vida íntima” (2008) eta Ruth-ek honela islatzen duen moduan, emozioen eta sentimenduaren arteko bereizketa egiten duela. Emozioa “ideia, pentsamendu, edota emozio batenganako gorputzaren kooperazioaren kontzientzia da, eta kontzientzia horrekiko etiketatzea” eta bigarrena berriz, “emozio suabeagoa”.

Emozioak, autore askoren iritziz, kulturalki eraikiak dira. Hau da, gure sentipenak lehenagotik ezarritako marko baten barruan sentitzen ditugu, testuinguru sozioekonomiko baten barnean alegia, “zoriontasun pribatuaren utopia berriak” (Iturbide, 2015, 212) bezala deiturikoen barnean. Illouzen arabera, (2007 eta 2010), emozioak, gizarte zientzien aztergai geroz eta komunitarikoak izatera pasa dira afektibotasunaren munduaren instrumentalizazio progresiboaren ondorioz, beti ere testuinguru kapitalista batean, zeinak emozioak produkzio handiagoa lortzeko erreminta gisa erabiltzen dituen, ahalik eta debora gutxienean eta gastu txikiarekin eginez.

Maitasunaren iruditegi anitzak: Nafarroako hezkuntza komunitatean analisisa

Zentzu honetan, esan daiteke gizarte zientziek egin dituzten ikerketen harira, emozioak, prozesu subjektiboak, hauen elkarrekintza eta gizabanakoaren dimentsio emozionalak, momentuan bizi garen testuinguru sozialaren eraginpean daudela, baita pertsonok aurrera eramaten ditugun bizi prozesuen menpe ere, bai indibidualki baita kolektiboki ere (Iturbide, 2015). Hau da, harreman emozionalak ez dira soilik testuinguru sozial baten barnean gertatzen, gainera, historikoki dinamikoki eraiki eta eraldatzen dira.

Mari Luz Estebanek (2011) bere “Crítica al pensamiento amoroso” lanean, emozioen inguruko hausnarketa bat elkarbanatzen du eta horrela definitu egiten ditu, generoaren ikuspegitik: “emozioak gorputzeko nahasmendu bezala daude kontsideratuta, eta emakumeek aipamenak eta erreferentziak (gizonezkoek baino aldi gutxiagotan) haien elkarrizketetan etengabe egiten dituzte bai kontrolari eta haien ez-kontrolari, baita haien kudeaketari ere” (orrialdea bakarrik, egilea aipatu duzu aurretik).

#### *2.4.1 Emozioen eraikuntza genero ikuspegitik*

Atal honetan, emozioak genero ikuspuntutik nola eraikitzen diren aztertuko dugu, baita hauek marko soziokulturalaren barruan nola garatu diren, haien egitura zein den aztertzen dugularik. Emozioak aktore betan eta haren inguru sozialaren elkarrekintzetik jaiotzen direnaren aldetik, aktore batek botere maila eskasa den posizio batetik jasotzen duenean, bere burua izate ahultzat hartzen du, beldurra edo antisetatea bezalako emozioak berpizten dituelarik (De Miguel Calvo: 57, 2011). Berdin gertatzen da beraz kontrako norabidean, gizonezkoen kasuan botere postuak ahaldun eta boteretsu izatearen emozioak sortuarazten dituen aldetik.

Emozioak indarraren eta ahultasunaren adierazle bezala kontsideratzen diren arren, eredu kulturala da hauen erregulazioa eskatzen eta finkatzen duena, eta eredu berdina da hauen erregulazioaren beharra adierazten duena gizartean, azkenean honen kontrol gai bihurtzen direlarik emozioak, batez ere menpeko sektoreetan eragina izanik. Egoera honetan eta Estebanek (2011) hitzetan, emakumeen emozioen eraikuntza kulturala gizonezkoen emozioen errepresio edota ezabapen bezala ikusi beharrean, emakumezkoen emozioen eraikuntza bezala ulertu daiteke. Izan ere,

egileak deskribatzen dun moduan, emozioaren sorkuntza nahiko kaotiko bezala interpreta daiteke, irrazionala eta antisoziala, eta bere existentziak autoritatea eta kontrolaren beharra legitimatu egiten du (Esteban, 2011).

Emozioak behin definitu eta kokatu egin ditugularik, emozioen egituratze horretara pasako gara. Egituraketa hainbat prozesu konplexuen ostean ematen da. Dinamika emozionala elkarrekintzan jarduten duten testuinguruaren eragile eta legitimatzaile da non momentuko egitura sozialak, genero ikuspuntu batetik abiatuz, ezaugarri asko biltzen dituen. Dinamika emozional hauen jatorria aztertze beraz, ezinbestekoa dugu lehenengo egitura honen ezaugarri hauek deskribatzea generoen arteko bereizketa eginez. Iturbideren (2015) lanean bi oinarritzko ezaugarri zehazten dira. Lehenengo ezaugarri hau gizonezkoen erdiguneko posizioa azpimarratzean oinarritzen da, ondorioz emakumea posizio periferiko, subordinatu eta sekundarioan kokatuz. Honek eraikuntza emozional dibergentea egotea eragiten du, kolektiboa eta indibiduala aldi berean, eta horregatik sortzen dira emakumeak eta enpatia femeninoaren edota maskulinitasuna eta bortizkeriaren arteko loturak.

Bigarren ezaugarria lehenengoaren ondorio bezala deskribatzen du Iturbidek, eta konfiguratzeko subjektiboan oinarritzen da, “gizonezkoen “haintzako izate” eta emakumezkoen “besteentzako izatean” horretan, hain zuzen (Ibid; 213). Emakumeen “besteentzako izate” kondizioa kontzeptua lehenengo aldiz Basagliak formulatu zuen 1983an, Simone de Beauvoir-en “gizonezkoentzako izate” kontzeptutik abiatuta. Horren inguruko hausnarketa eginez Lagardek hurrengo esan zuen:

“La humanidad de las mujeres sólo es reconocida si su existencia es reducida a la sexualidad, a la inferioridad y a la minoridad. Por eso, cuando somos subsumidas en lo humano, se nos asigna como condición de género y contenido de vida personal ser-para-otros y de-otros” (Lagarde, 2012: 28).

Modu honetan, emakumeen “besteentzako izate” kondizioa sorkuntza historiko bat da zeinaren edukia zirkunstantzia, ezaugarri eta nolakutasunen multzoa den, emakumea izate sozial eta kultural orokor bezala definitzen duena” (Lagarde, 2005: 33) horretan, hain zuzen. Genero sistemak baldintzaturiko testuinguru sozialak emakumeen ezbalioztatze sinboliko eta soziala ezartzen du, eta gizonezkoen egoerarekin konparatuz gero, pentsatzen, sentitzen, egiten eta espero dutenak uneoro besteenganako

Maitasunaren iruditegi anitzak: Nafarroako hezkuntza komunitatean analisia

menpekotasunaren eraginpean egotea dakar. Izan ere, menpekotasun horren kanpo gelditzen badira ez dute gizartearen balioztatze eta errekonozimendu hori lortuko, biak gizakiontzako ezinbestekoak izanik. Horrela, emakumeek, haien menpeko izate horrekin lotutako eta sistemak inposaturiko praktikak bereganatzen dituzte haienak izango balira bezala, eta aldi berean gizonezkoen beste muturreko praktiken lotura sustatuz.

“Dicha identidad de género femenina es clave en el establecimiento de prácticas también genéricas como es la de los cuidados, confundida ésta con prácticas de servicio 50 y la desconexión de éste área vital en los varones, o una conexión entendida fundamentalmente como provisión económica o como provisión de protección.” (Iturbide, 2015, 213. pag)

Autoreak orain, emozioen kontzeptuaren eta tipologiaren inguruko sailkapena egiten du. Teoria eta ikerketa hauetan oinarrituriko zerrendatze honetan, beharrezkoa izan da lehen aipaturiko emozioen eta sentimenduen arteko bereizketa egitea. Izan ere, emozioak zerbait primitibo eta instintibo bezala ulertzen ditugu (Damasio, 2012) eta sentimenduak berriz, emozioaren ondorio bezala, emozioak espresatzeko erabiltzen duen kondukta bezala, alegia. Gainera gizakiok sentimenduen kontzienteagoak gara, hau da, arrazionalagoak dira.

Mota ezberdinetako emozioen artean maitasunaren emozioa dago. Maitasunezko irudimenak guregan bi efektu sortarazten ditu, maitasuna emozio aurreratu bat izatea eta “emozio errealak eta fikziozkoak bata bestearen etengabeko gainezarpentzean” aritzea (Ibid,p.269). Kontsumoaren dinamika da, izan ere, gozamen horren bilatzea bultzatzea, baita zorionaren naiz norberaren nortasunaren bilatzea ere.

Beste motatako emozioak dira fikziozko emozioak. Fikzioa ezinbestekoa da gizarteratze prozesuan. Izan ere, “gizarteratzearen parte bat, nahi ala ez, asmatutakoa da, irrealak” (Iturbide, 2015, pag 216). Ikerketa askoren analisietan izan ere aztergaia izan da ea emozioek zergatik hartu duten kutsu narratibo, kontzeptual eta fikzionala. Hemen dauka jatorria emozio fikzionala deritzonak, norbaitek fikziozko produkturen bat irakurri edo kontsumitu ostean sortzen den emozioa dena. Horiek horrela, maitasunaren fikziozko maitasuna irrealak diren maitasunezko eszenak, produktu edo eszenak kontsumitzean sortzen da. Modernizazio garaian, maitasuna istorio

narratiboen xede eta motibazio bihurtu da, eta edozein arazo gainditzeko gai den emozio indartsu bezala aurkezten da.

Emozioen eta generoaren munduan murgildurik, esan daiteke emozioak harreman sozialengandik konfiguratua daudela, ez direla askatasunean eraldatzen, alegia, eta modu honetan, “modernizazioaren instituzioak barneratu eta kondentsatu egiten ditu” (Illouz 2012, pag 313). Horrela, gizarteak pairatzen dituen maitasunarekin zerikusia duten sufrimenduak instituzioek eta indarrean dagoen sistemak moldeatutakoak dira.

#### *2.4.2 Generoa eta indarkeria:*

Ideologia patriarkalaren harira beraz, hau gizartean erabat barneratua dagoela esan daiteke, non harremantzeko moduak hain diren indartsuak indarkeria libreki desiratua eta aukeratua izan dela dirudien. Gizartean indarkeria legitimatu egiten da, legitimazio hori emakumeak gutxiestearengatik eta gizonezkoen jabetza direnaren kontzeptualizazioaren ondorioz ematen delarik, zeinei errespetua eta obediencia zor dieten, genero araua hausten duten haiek “gaiztoak” eta “sorginak” direla esaten duten diskurtso erlijiosoek babestuta (De Miguel, 2005).

Historian zehar emakumeen aurkako indarkeria pasa den momentu historikoen arabera gizartearen aldetik ikuskera eta onarpen maila ezberdinak jasan ditu. Modernizazio aurreko garaietan adibidez, indarkeriaren erabilera hain zen bortitza non emakumeen kontrakoa ia oharkabean pasatzen zen, hau da, ez zen inolaz ere kuestionatzen eta ez zuen juizio sozialik jasotzen. Ilustrazio garaian emakumeak kolektiboki antolatzen eta haien banakotasuna defendatzen hasi baziren ere, garai postmodernoetara arte iritsi da indarkeriaren kultura. Indarkeriaren jatorri naturalaren inguruko teoria asko egon arren, ikerketa askok horrela adierazita, hormona mota aparte utzita, behin baino gehiagotan frogatua izan dena indarkeria ikasi eta onartzen ikasi egiten dela da (De Miguel, 2005). Luis Boninok horrela adierazita, boterea ez da kategoria abstraktu bat, boterea gauzatu egiten den gauza bat da, elkarreraginetan ikusgarri bilakatzen dena (Bonino, 1996).

“Emakumeen aurkako indarkeria” terminologia berriarekin batera datorren helburua gizadasunaren sufrimenduaren arazoari dagokion marko kontzeptual desberdina eraikitzea da. Honek berarekin dakar indarkeriaren izate egituratua nabaritasunean

Maitasunaren iruditegi anitzak: Nafarroako hezkuntza komunitatean analisia



jartzea eta marko patriarkala salatzea, emakumeak eta gizonak diren bezalakoak izatea eta egiten dutena egitea eragiten duen hori, hain zuzen. Izan ere, sexismoak emakumeen heriotza soziala eragiteaz aparte, gizartean bertan ondorioak era sufrimendua dakartza, biztanleriari bere osotasunean (Izquierdo, 2007).

Eremu publiko eta pribatuen gaira bueltatuz, emakumeen aurkako indarkeria gehien bat esparru pribatuan ematen denez gero, botere eta berdintasun ezaren egoera horiek ikusezinak bihurtzen dira bikote harremanetan, horietan erabat berdintsuak eta elkarrekikoak diren praktikak garatzen direnaren ustea zabalduz, gizonezkoei sozialki ematen zaien boterea, emakumeek ez dutena, ezkututzen den bitartean (Bonino, 1996). Horrela, eremu pribatua ere egiturazko botere harremanen eremua denaren adierazgarri da “pertsonala politikoa da” mugimendu feministaren bigarren olatuak ezagun egin zuen leloa.

Genero indarkeriaren inguruan, Simonek (2007) eskoletan haren transmisio inplizitua ematen dela baieztatzen du. Zentzu honetan, lehen aipatu den moduan ondoriozta daiteke jarrera lehiakorra sustatzen dituzten edukiei eta praktikei ematen zaiela garrantzia gehien ikastetxeetan, hala nola, gizonak historian egindako lorpenak azpimarratu, neskak bigarren plano batean kokatzen dituztelarik, haiekin zerikusia duten gaiak baztertuz.

Testuinguru honetan, irakaslegoaren papera, ezarritako eredu andorzentrikoa erreproduzitzeko izan ohi da, inposaturikoak onartu eta sustatu egiten ditu, autoreak esaten duen moduan, “jarrera estereotipatuak zalantzan jarri gabe, naturalak izango balira bezala toleratuz” (Simon, 2007, pag 4. Eg. itzulia). Irakaslegoak izan ere, modernizazio aurreko eredu klasikoa jarraitzeko joera hartu du, non nesken era mutilen jokamoldeak justifikatu egiten diren generoaren berriazko ezaugarri naturaltzat onartuz, ez ordea generoaren berdintasun ezaren ondorio bezala. Horrela, mutilak haien posizio pribilejiodunean ateratzen dira eskolatik, eta neskak periferia horretan kokatuak, haien posizioa hori dela gain hartuz.

Garrantzitsua da beraz, hezkuntza komunitateak egoera hau onartzea eta aldaketak martxan abiatzea. Hori horrela izango ez balitz, generoen arteko lanaren bereizketak, emakumezkoen eta gizonezkoen pribilejioen arteko desorekek naiz emakumezkoen

menpekotasun egoerek indarrean egoten jarraituko dute jendeartean. Horregatik, egoera alda dadin, ezinbestekoa da eskolek “ikustezina den hori ikusgarri bihurtzea”-ren konpromisoa hartzea (Simon, 2007, 4 or, eg.itzulita), baita sistemak erabiltzen duen berdintasunaren ispiatzearen kontra joatearena ere.

Beste alde batetik, autoreak ikasketa informala deritzonaren inguruko alderdiak deskribatzen ditu, hauek ere ikasketa prozesuaren parte garrantzitsua direnez gero. Adibidez, mezu eta mitoen inguruan, Simonek dio batez ere mutilek indarkeria oinarri dituzten jolasak dituztela gustokoen. Haiek burutzen dituzten praktiketan norgehiagoka ibiltzen dira ikasleak garai postmodernoetan ere, haien buruzagitzaren bila beti, guduaren etika aplikatuz, dinamika guztiak alderdi binario zaharkituan murriztuz; irabazi edo galdu.

Aldi berean, azpimarratu beharra dago mutilek eredu maskulino hegemonikoen eragina jasotzen dutela uneoro, gizartean, izan ere, indarrean dauden ereduak dira. Familietan bertan familia patriarkarreko aitaren rol klasikoa betetzen duten gizonen modernizazio aurreko ereduak erreproduzitzen dute askok, eta ikasleagoak zuzenean jasotzen ditu horren eraginak. Adibidez, aita lanera joatearena eta ama etxean garbitzen geratzearen ereduak.

Adiskidetasunaren harira, mutilen jokoetan femeninoa den horren aurka jotzea eta gailentzeko praktikak jorratzea batzen dira haien identitatea eraikitzerako orduan. Mutilek haien artean jotzera jolasten dute, eta eskolak hori onartu egiten du, lehen esan bezala, bortizkeria haien izatearen ezaugarri naturaltzat interpretatuz. Femenino eta etikoa den hortaz bereizteko, mutilen dinamiketan haien abileziak erakustea da berebiziko, indarrean eta normalean fiskoa den horretan oinarrituz. Modu honetan, haurtzaroan bereganatutako identitate maskulino klasiko hau eskala txikitik handira pasatzen da nerabazarora iristean, eta helduarora iristerako orduan, haien nagusitasun posizioa hain dute barnetratua non normaltzat hartzen diren jokabide matxista eta emakumearen kontrako diskriminazioa.

Aipatutakoak gain, nesken harremantzeko moduak ez dauka mutilen moduarekin zerikusirik. Eskoletan txikitatik hasten dira haien artean imitatzen, amak eta irakasleak imitatzen, haien artean lehiatzen eta besteen intimitatean sartzen, besteak beste. Esan beharra dago hala ere, “nesken arteko etsaitasunak ia beti maskulinitatea duela izen”

Maitasunaren iruditegi anitzak: Nafarroako hezkuntza komunitatean analisisa

(Simon, 2007, 9. or, eg.itzulia ). Zentzu honetan, neskek bai hezkuntza munduan baita familian ere enpatia, babesa, laguntza eta bigarrenezkotasuna bezalako kontzeptuak bereganatzen dituzte haien izatearen alderdi bezala. Hori dela medio, hura aldatzeko sistema eta jendarte oso bat aldatu behar da sustraietatik.

## **2.5 Eskola eta familia: heziketa androzentrikoaren sustatzaile?**

Atal honetan Hezkuntza Sistema eta familia ereduak heziketa androzentrikoaren sustatzaile noraino izan diren aztertuko da. Horretarako, batetik hezkuntzaren sorreratik gaur egungo eskola mistoen errealitatera iritsi arte eman den bilakaera eta bestetik familia ereduak analizatuko dira, androzentrismoaren elementuak identifikatzeko asmoz.

### *2.5.1 Hezkuntza Sistemaren sorrera eta bilakaera*

Hezkuntza Sistemaren sorreran inguruan, Espainian eman ziren lehenengo aipamenak 1812ko Kadizeko Konstituzioan biltzen dira, non hezkuntza sistema nazional baten inguruko oinarriak deskribatzen diren (Flecha, 2013). Flechak horrela azaltzen duenez, 1813an egin zen Kintanako Informean bildu ziren Konstituzioaren printzipioetan oinarritutako Hezkuntza Sistemaren lehenengo oinarriak. Oinarri hauetan ez zen nesken aipamenik egiten, haienzako beste motatako hezkuntza pentsatu zen eta. Autoreak horrela biltzen duenez, nesken hezkuntza “pribatua eta etxekoa” izateko zegoen pentsatua. Haienzako pentsatuta zegoen proposamena kondizio femeninoa bat zen, zeinak biztanleria modernoaren idealaren paradigma eta prozedura androzentrikoari erantzungo zien, emakumeak gai publikoetatik at ipiniz. Ondoren, Moyano Legearekin batera 1857an, parlamentuan egindako kotsentsu zabal baten ostean nesken hezkuntzan murrizketa berriak eman ziren. Instrukzio publikoko lege honetan berretsi egiten da neskenentzako oinarrizko hezkuntza eskaintzen duten eskolen inguruan (Flecha, 2013).

XX. mendeko hainbat hamarkada pasa behar izan zuten nesken eskolaratzea egunerokoaren errealitate bat bihurtu, eta modu honetan nesken alfabetizazioaren tasa igo zedin. 1920 eta 1930 urteen artean aldaketa handiak eman ziren ere,

---

denboraldi horren barruan kontrako alderdiak egon ziren arren haien asmoa alfabetizazio tasa igotzea izan zelako (Flecha, 2013).

Modu honetan eta Bonalek (2002) azaltzen duen moduan, frankismoaren garaian jorratu zen hezkuntza sistemak berdintasun eza indarrean zuen sistema utzi zuen Espainian, instituzioen barnean erabakiak hartzeari dagokionez erabat autoritarioa eta baliabideen banaketan eta kudeaketan burokratiko eta zentralista zena. Horrela 1970. urtean LGE diseinatu zuen estatu frankistak, meritokrazia hezkuntza sistemaren oinarri izateko azken saiakera horretan, beste sistema kapitalistetan oinarrituta (Bonale, 2002). Horiek horrela, frankismoaren ondoren eman zen hezkuntza sistemaren berritze prozesu horretan alderdi politikoen ez-adostasunek egoera zaildu zuten, hezkuntza sistema berriaren diseinua prozesu zaila bilakatu zelarik.

Ez zen 1978ko Konstituziora arte izan hezkuntza sistemaren oinarriak finkatu egin zirela, alderdi eskuindarrek eta ezkertiarrek esparru ezberdinen inguruko erabakietan adostasuna izan zuten gero, eztabaida askoren ondoren. Oinarrizko hezkuntza izateko eskubidea, derrigorrezkoa eta doakoa izatea, hartu ziren lehenengo erabakietakoak izan ziren. Ostean, beste puntu batzuk finkatzen joan ziren, hala nola, beste hizkuntzen txertatzea, publiko/pribatu izatearen askatasuna, botere publikoen sostenguekin, irakasleen erlijiozkotasun eza, haiek kontzientzia eta katedra askatasuna izanda (Bonale, 2002). Azkeneko puntu hauek batez ere eskuindarren aldetik onartutako alderdiak izan ziren, aldaketei begira.

Honek garbi uzten du historian zehar eman diren Lehen Hezkuntzatik unibertsitatera igarotzeko prozesuaren baldintza eta egoerek ez dutela berdin eragin emakumeengan eta gizonengan eta haiek izan duten garapenean. Izan ere, emakumeek haien formakuntzan garai sozioekonomikoaren arabera oztopo ezberdinak gainditu behar izan dituzte, non beti gutxietsita sentiarazi dituzten, bizitzarako baliagarriak diren eguneroko bizitzaren ezagutzei garrantzia eta haiek merezi izan duten autoritatea kendu dietelarik. Autoreak azpimarratu egiten du, batez ere “se sostuvo durante demasiado tiempo la limitación de oportunidades que podían abrir a una vida femenina con mayor autonomía” [denbora gehiegiz autonomia handiagoko bizitza femininoari bidea ireki ahal izan zioten aukeren mugaketa mantendu zen] (Flecha, 2013: 86).

Maitasunaren iruditegi anitzak: Nafarroako hezkuntza komunitatean analisisa

Modernizazio hasieratik, horrela, eskola mistoekin batera emakumeen eta gizonen hezkuntza berdintzera aurrera pausuak eman ziren. Bide honetatik, emakumeen eta gizonen hezkuntza ez da eduki aldetik bereizten. Hala ere, emakumeek oraindik ez dute berdintasun soziala lortu, hein batean sexu araberako lanaren bereizketa dela eta, aukeratzen dituzten lanbide eta haietatik jasotzen duten statusa eta onura ekonomikoak direla medio (Subirats, 1994: 62).

### *2.5.2 Hezkuntza eredu androzentriko eta sexistaren birsortzea*

Modu honetan, esan daiteke modernizazio garaian garatzen den hezkuntza sistemak izaera androzentrista izaten jarraitu duela (Simon, 2007), modernizazioan garatzen den sistemaren eredu neurri handi batean erreproduziturik. Androzentrista, gizonen egintza eta ikuspegiaren unibertsalizazioa adierazten du, figura maskulinoa neutrotzat hartzeko joerari erreferentzia eginez. Hala, androzentrista jendarte eredu patriarkarreko aspektu anitzetan islatzen eta birsortzen den eredu, hezkuntza eremuan ere modu anitzetan adierazten dela antzeman daiteke.

Izan ere, zentrotan jorratutako gai orok gizonen lorpenak goraipatzeaz aparte, emakumeenak ez dituzte ezta aipatu ere egiten. Honek irakaspen erabat desorekatua eskeintzen die egun eta eskaini die ikasleei urteetan zehar ere, neska mutilek ez baitutelako modu berdinean ikasi haien sexuaren ezta beste sexuaren inguruko edukiak. Gizonen lehenengo lerroan eta emakumeen bigarren plano batean, gizonen egintza egun dugun egoerara iristeko giza jasan duen eboluzioaren protagonista delarik. Horregatik, esan daiteke oraindik ere garai postmodernoetan berdintasun formala lortu den arren horrek ez duela errealitatean gertatzen denarekin zerikusirik, desberdintasun soziala existitzen delarik (Subirats, 1994).

Testuinguru honek ez du uzten hortaz, ikasleek emakumeen erreferenterik izatea. Lehen aipatu den modura, azpimarratu beharra dago ikasleek ez dutela berdinean ikasten. Edukiak guztiontzako komunak izan arren, ez dira modu berdinean ikasten baten sexua eredu eta protagonista bada eta bestea beti itzaletan agertzen bada (Simon, 2007). Honekin esan nahi da neskek haien burua itzaleko posizio horrekin identifikatuko dutela beti, eta mutilek berriz, egile ereduarekin. Honek nolabait bideratu egingo ditu

ikasleak, haiei eskaini egin zaizkien eredu horiek erreproduzitzen edota haien izatea erabat baldintzatuz, etorkizunean.

Simonek (2007) horrela aipatzen duenez, eskoletan ez dira zaintza eta heztearekin zerikusia duten edukiak eta lanketak ematen. Eskola gizarteratze eragile garrantzitsuenetarikoa da, eta sinbolikoki garrantzitsuak diren gai horiek bertan lantzen direnaren ustea dago gizartean. Zaintza, heziera eta antzeko edukiak indarkeriaren aurkako erremintak dira; hauek ez lantzeak, hortaz, haurregan haiekiko desbalioztatze bat ematea eragiten du, eta ondorioz, indarkeria ez da garrantzizko auzi bihurtzen.

Simonek (2008) generoaren gizarteratzeari ematen dion azalpenen artean “la ley del agrado” [atseginaren legea] eta “la ley del dominio” [nagusitasunaren legea] kontzeptuen deskribapena aukitzen da (Simon, 2008). “Atseginaren legea”-k egitura aldetik emakumezkoei egokitzen zaiena da, eta hiru ardatzetan garatzen da; edertasunean, afektuan eta zaintzan. Horrela, emakumeek alderdi hauek barne hartzen dituzten jokabideak txertatzen dituzte haien izatean onartuak izateko eta gainontzekoen errekonozimendua lortzeko (Simon, 2008 Iturbidek zitatu, 2015). Aldi berean “nagusitasunaren legea” delakoa gizezkoei egokitzen zaie, hauek “hoberenak izatearen” eta “lehenengoak izatearen” ideiekin lotzen direlarik. Gizezkoei lege honek sinbolikoki eskatzen diena boterea, indarra eta dirua eskuratzearekin erlazionatutako ideiak dira, haien gizontasuna indartu eta finkatu dadin (Iturbide, 2015).

Beste alde batetik eta Subiratsek horrela adierazten duenez, irakaskuntza emakumeen kopurua nabaria den sektoreetako bat da. Hala ere, emakumezkoen presentzia handiagoa den arren, lanpostuen posizioak gizezkoenak baina azpikoagoak dira. Izan ere, autoreak jarraitzen du esanez, errealitate bat da emakumeak diren irakasleen proportzioak behera egitea ikasleen adinak gora egiten duen eta ziklo akademikoaren prestigio sozialak gora egiten duen heinean (Subirats, 1994).

Simonek bestetik jarraitzen du esanez, neskak neurri handiago batean identifikatzeko joera duten lanei ez zaiela balio ekonomikorik ezta kurrikularrik ematen, hau da, gizezkoak identifikatzen direnekin konparatuz ikusezinoak dira hezkuntzaren arloan, erabat bananduta geratzen direlarik lanaren ideia horretatik. Zaintza eta etxekeo

Maitasunaren iruditegi anitzak: Nafarroako hezkuntza komunitatean analisisa

lanak emakumeek berez egin behar dituzten lan bezala ulertzera pasatzen dira, edozein motatako balio oro galtzen dutelarik.

Modu honetan, lanaren bereizketa sexualaren eraldaketa progresiboaren inguruan Subiratsek baieztatzen du oso garrantzitsua dela oinarrizko beharretan eragina duten jardueren birbalioztatze bat ematea, bai gizonezko eta baita emakumezkoetan ere, horrela, batak eta besteak oreka handiago bat aurki dezan autonomia pertsonalen eta dependentzien banaketan (Subirats, 1994: 65). Modu honetan, eremu pribatuan garatzen diren audurak banatu eta haien balioztatzea eman dadin, hau da, bertan jorratzen diren praktikek kutsu femeninoa galdu eta bi generoen arduera izatera pasa daitezten.

Esan daiteke hala ere eta Simonek horrela adierazia, gaur egungo garai postmodernoko gazteriak haien baitan rolak birmoldatzen hasi direla, hau da, neska gazteek adibidez ez dituztela guztiz haien amen rolak erreproduzitzen, esaterako etxeko lanen ardura edota bestean zaintza bezalakoak, etxe berdinean bizi diren heinean (Simon, 2007). Honek aurrerapausua iruditu arren, modernizazio eta haren aurreko garaiko blaunaldiek erreproduzitu egiten dituzten genero arteko desoreka handitzea dakar harekin, nagusiagoak diren generazio hauek izan ere estereotipo eta rol zaharrak erreproduzitu egiten dituztelako, non, emakumeek, etxeko lanen zama daramaten eta zaintzaren ardura hartzen duten.

Egoera hauek guztiek eskola eredu andorzentrikoa eta sexista izaten jarraitzen duela argi uzten dute. Testuinguru honetan, horrela definitu du sexismoa Marina Subiratsek (1994): “el término «sexismo» se utiliza en las ciencias sociales para designar aquellas actitudes que introducen la desigualdad y la jerarquización en el trato que reciben los individuos, sobre la base de la diferenciación de sexo” [«sexismo» terminoa gizarte zientzietan banakoek jasaten duten hierarkizazioa eta berdintasun eza barneratzen duten jarrerak izendatzeko erabiltzen da, sexu bereizketaren oinarriaren gainean] (Subirats, 1994). Sexismoa horrela, eskoletan ematen dela baieztatu egiten du autoreak, aldatu behar diren auzi ezberdinak aipatzen dituelarik, hala nola, zientzietan ematen den androzentrismoak nola eragiten duen eskolan, emakumeen azpiko posizioa hezkuntza lanpostuetan, lengoia androzentrikoa, testu liburuak eta haurrentzako irakurgaiak transmititzen dituzten mezuak, besteak beste (Subirats,

1994). Horiek guztiek oraindik sexismoa eta emakumearen aldeko diskriminazioa erakusten dutela azpimarratzen dute, hezkuntzaren irizpideen birformulaketa proposatzen duelarik.

### *2.5.3 Hezkuntza txarra*

Garai postmodernoetako eskola mixtoen arazoetariko bat genero berdintasuna lortzeko lanketen urruntzea da, non Hezkuntza Sistema osatzen duten organoek ez dituzten haien diskurtso berdintzaileak eta transgresoreak praktikarekin lotzen. Hori horrela izanda, ikasleei aspaldiko garaietan erakusten ziren eredu sexistak eskeintzen zaizkie bakarrik, non gizonezkoek erdigune posizioa eta emakumezkoek periferiazko posizioa hartzen duen.

Testuinguru honetan Elena Simonek hezkidetzaren inguruko artikuluan, modernizazio ondorengo gizarteak jaso duen hezkuntza oro “hezkuntza txarra” delakoaren barnean kokatzen ditu, izan ere, berak azaltzen duen moduan, hezkuntza testuinguruan ematen den teoria ez dator bat ematen den praktikarekin. Berdintasunerako hezkuntzak, garai berritzaileetako instituzioetan azpimarratzen den kontzeptua izanda ere, ez du errealitatean gertatzen denarekin bat egiten. Simonek horrela adierazita, garai postmodernoan benetan generoen arteko berdintasuna eman dadin, edukiak zaindu, gaia landu, eta belaunaldi berriak kontzientziatu behar dira.

Eskolen harira, autoreak nabarmentzen du espazio hauetan ez dela hezkidetzarako tokirik egon orain arte. Hezkuntza Sistemaren barnean eskola mixtoak existitu direnetik, hauek ez diote arretarik ipini neska eta mutilen arteko desberdintasunak gutxitzeari ezta sexismoa, misoginia, edota emakumeen kontrako diskriminazioari. Horiek horrela, eskolaren barruan aurrera eramaten diren dinamiketan neskak mutilak izango balira bezala hezten dituzte, eta modu honetan, mutilek nagusitasuna garatzen dute, baita edozer egiteko gai izango direnaren sentsazioa, nesketan ematen ez dena.

### *2.5.4 Familia ereduak; pentsamendu heterosexualaren transmisoreak?*

Familia hitzak askotariko definizioak ditu, horregatik zaila da hura esaldi batean bakarrik sintetizatzea. Lan honen zenbait alderdi ulertzeko, beharrezkoa izango da kontzeptu hau azpimarratzea, ikasleek haien familiengandik jasotzen duten informazio, balio eta arau sorta horretan oinarritzen delako ere amodio erromantikoaren ideiarekin. Maitasunaren iruditegi anitzak: Nafarroako hezkuntza komunitatean analisisa



eraketa eta transmisioa, familia banakoak eta kanpoko mundua konektazen dituen organoa denaren aldetik. Bestela esanda, familia -hezkuntza eta komunikabideekin batera- gizarteratze eragile nagusia den aldetik. Roche Olivarrek 2006an adibidez, familia harreman pribilejiatuen nukleo bezala aztertu daitekela adierazten du, bai talde txikitan antolatua eta bizilekura lotuta dagoena bezala, "sabai berdinen azpian" bizi den giza talde batek sortua.

Jose Luis Sangradorrek (1993), maitasuna interpersonalaren fenomenoaren dela esan zuen, giza jokabideak gidatzeko ahalmen handia daukana. Horiek horrela, interpersonalak diren instituzioen oinarri da ere, gizartean ezinbestekoa den instituzio honetan, familian, ardatza da. Beraz, maitasunak gidatutako instituzio sozial honetan garatzen diren maitasunaren inguruko ideiak zeintzuk diren nabarmentzeak, familien eraketen irizpideak eta harremanen inguruan haurrek jasotzen dituzten balio eta jokamoldeak zeintzuk diren finkatzen lagunduko dio lan honi.

Gizarteratze eragileak pertsona bati jaiotzen denetik balioak, arauak eta ereduak transmititzeko ardura dutenak dira, eta haien barnean familia garrantzitsua da. Lehenengo eragilea izateaz aparte, esan bezala jendartearen eta haurraren arteko lotura bezala jokatzeko du, eta hura da haurrari kulturaren oinarriko elementuak barneratzea eta haren izaeraren oinarriak finkatzea ahalbidetzen diona (Miller, P.A, eta besteak., 1995, Rodriguezen zitatua, 2007). Familiak orduan, haurrek behin lingoaia manperatu dutenean, hau da, ezagutzaren oinarriak finkatu dituztenean, munduan kokatzen laguntzen dien organoa da. Prozesu hau ez da libreki ematen, ez eztabaidarengatik, heteronomiarengatik baizik (Roche Olivar, 2006).

Familia Hezkuntza Sistemaren parte hartzen duten ikasleen lehen eredu eta gizarteratzeko bidea izanik, interesgarria izango litzateke familian bertan jasotzen den lehenengo informazio transmisio horren inguruko analisisia egitea. Jakina denez, mota askotariko familiek osatzen dute ezagutzen den gizarte postmodernoa. Familia ereduak ere transformazio handia jasan dutela esan beharra dago ere, modernizazio aurreko garaietatik, industrializazioa eta ondorengo urteetara iritsi arte, gaur egungo gizartearen osatzen duten familia aniztasun egoerara iritsi arte, alegia.

Esan bezala, egungo, garai postmodernoko gizarteetan, askotariko familiak aurki daitezke, eta familietan ere, maitasunak kutsu ezberdinak izan ditu garaiz garai. Modernizazio aurreko garaiko "adostutako" familia eredu horretatik, familia nuklearrera pasa zen, "amodioarengatiko" ezkontzetara. Horren ostean, familiak bestelako formak hartzen hasi ziren, genero eta sexualitate egitura binariotik kanpo kokatzen zirenak. Hau da, maitatzeko modu heterosexual, monogamo eta iraunkorretik ateratzen ziren beste motatako harremanak ematen hasi ziren gizarteetan, bestelako familia ereduak sortu zirelarik.

Familiak orain XX. mendean baina neurri handiago batean, eredu tradizionalak hausten saiatzen hasi dira. Denbora tarte laburrean, organo uniforme honek bestelako forma eta aukera askotan egin du eztanda, banakoen izaeretan eragin zuzena izan duten aukeretan, aniztasun handiko gizartea osatzeraino (Torio Lopez, 2004). Horrela, XXI. mendean, familiak seme-alabak dituzten ama edo aita ezkongabetaz osatuta egon daitezke, baita seme-alabarik gabeko bikoteetaz, lan egiten duen ama batez eta etxeo lanez arduratzen den gizonaz, eta abar. Lan egiteko aukerak ere aldatzen joan direnez gero, familiek haien ohiko egitura aldatzea eragin dute. Aisialdia, erlijioa, elikadura, bizimodua nahiz errutinak ulertzeko moduak aldatu egin dira erabat, aniztasuna jariatzen duen gizartearen isla direnak, geroz eta gehiago erronka eta aukera gehiagoz beteta daogena (Ibid.).

Familia testuinguruan, beraz, familia instituzio gisa aldaketak jasaten ari dela esan daiteke, nahiz eta eredu hegemonikoak oraindik indarrean iraun. Egungo familietan Bi seme-alabarekin edo bakarrarekin, ez da balioen eta arauen transmisioa berdinean ematen belaunaldi askotako senideak zituzten familia klasikoetan ematen zen bezala, orain izan ere, "bigarren transizio familiarra" delakoa jasaten ari da gizartea (Flaquer, 1991, Torio Lopez zitatu, 2004). Hortaz aparte, garai berritzaileekin batera, esan daiteke familiek garai industrialen gatibu bihurtzeko arriskua daukatela, industrializazioarekin batera sortutako mito eta ideologiaren gatibu bihurtzeko, alegia (Roche Olivar, 2006).

Maitasun erromantikoaren mitoaren transmisioaren inguruan familiek izan dezaketen eragina azpimarratzeakoa da beraz. Izan ere, gizarte modernoan, antzina zeuden sare komunitarioak hautsi eta familia erantzukizun eta balio espazio bihurtzen da,

Maitasunaren iruditegi anitzak: Nafarroako hezkuntza komunitatean analisia

sentimenduz beterikoa (Esteban, 2011). Mito erromantikoen artean, esaterako, gurasoen arteko bereizketa porrotaren esanahi izatea, edota maitatzen den norbait kaltetu edo jo daitekenaren ideiak aurki daitezke, hurrek familia testuinguruan eman daitezken egoerak erreproduzitu ahal dituztelarik.

Familian emakumezkoek duten egoerara begira, maitasunaren amatasunak emakumezkoak haien burua alde batean uztera bultzatzen dituela azpimarratzen du Estebanek (2011), gizonezkoetan zailago ematen dela aipatuz. Horrek esan nahi du emakumezkoak bereziki ama izatetik bere izatea ukatzera pasa daitezkeela, nolabait lan honetan hizpide dugun “benetazkotzat” hartzen den maitasunaren ulerkerak norbanakoen desirak alde batera uztea esakatzen duelako, zure ondorengoa den beharretan osotasunean zentratzeko. Mezu honen baitan gizartean indarrean dagoen patriarkatuaren nahiak daude ezkutuan, sistemak aita diren gizonezkoak beste eginkizunak betetzera bideratzen baititu.

Halako egoerak aurkeztea baino, soziokulturalki eraiki eta birsortzen diren genero eredu patriarkalak birsortzeko eremu nagusienetarikoa familia izanik, haurrak arau soziokultural hauen baitan gizarteratzeak, maitasuna iraukortasun eta indarkeriarekin lotzera eraman ditzake, eskolen aldetik eskuhartzea eskatzen duen egoera bat sortuz. Maitasunak forma asko har ditzake, horregatik hurrek jendartean orokorrean transmititzen den azalduko ereduaz aparte, eredu anitzez jabetzea positiboa izan liteke, aniztasun horren parte direnez gero, etorkizunean haien desiretara eta izatera hobekien egikotzen den familia izateko modua aukeratzeko eskubidea dutela jakin dezaten, eta zentzu orokorrago batean, indarkerian oinarritutako genero harreman sozialak eraldatze bidean urratsak eman ditzaten.

## **2.6 Hezkuntza eredu hezkidetzaille baterantz**

Hezkuntzaren eremutik aldatetak ematera gonbidatuz, genero arteko berdintasunean oinarrituriko hezkuntza eredu garatze bidean, eredu hezkidetzaillearen alde egitea propoastzen dute hainbat aditu eta eragile sozialek, non neska eta mutilak berdinki heziko diren. Honela definitzen du Simonek hezkidetzak: “hezkuntza bat non neska eta mutilak desberdin eta baliokide bezala ikasten diren [...] guztion mundu eta ez konfortatu bat eraikitzeko, non lanaren banaketa sexuala eta sexuen arteko gerra

lurperatzen diren” (Egileak itzulia, Simon 2007:1). Definizio honek argi uzten du hezkidetzaren ez dela modernizazioaren osteko garaian eman; izan ere, orain arteko eskola ereduak curriculuma jarraitzea izan dute helburu, eta curriculumean agertzen diren edukiek orain arte ez dute hezkidetzaren kontuan hartu.

Subiratsek, bestetik, argi uzten du hezkidetzaren oinarrituriko hezkuntza lortzeko, ez dela bakarrik banakoen berdintasun egoeratik abiatu behar, eredu orokorren integrazioetik ere. Honek esan nahi du neska gazteei gizonezkoen lanpostuak lortzeko erraztasunak eskaini beharko zitzaizkiela haiek lortu eta horrela botere positiboetan dagoen desoreka gainditzeko eta baita eremu publikoan protagonismo handiagoa izateko ere. Era berean, berebizikoa da eskolako kurikulumean aldaketak egitea, hala nola momentura arte emakumezkoen egokitu zaizkien jarrera eta gaitasunen balioztatze handiagoa, eta bai mutilentzako eta bai neskentzako proposatuak izan behar direnak (Subirats, 1994: 72).

Egoera honen aurrean proposamen ezberdinak agertu dira hezkuntzaren munduan. Ahijado Gilek egin zuen doktore tesian Agustin Garcia Calvok kontra-ikaskuntzaren inguruan egin dituen hausnarketan inguruan haren nozioen berri ematen du. Horrela, kontra- ikaskuntza neska-mutilak desobeditzen irakatsi behar zaiela azpimarratzen da, ez esatera, alegia. Ez esatea ez da edozein egoeratan eman behar, denbora, boterea eta errealitateak datozen aginduei ezetza ematea, ordea. Kontra-ikaskuntzak jakina denaren kontra borrokatzearen asmoa dauka. Honen aurrean, Ahijadok gezurrak argitzeko arduragabetasun honek gazteak obedientzian heztera eramanez dituela esaten du, kritikotasuna galduz (Ahijado, 2015). Honekin guztiarekin ondoriozta daiteke gazteak beste modu batean heztea baino alde aurretik gizartearen eraginez ikasi dutenak desikastera bultzatu behar direla gehiago, dakiten ideia asko izan ere sistemak inposatutakoak izan direnez gero. Eskola, hortaz, neska-mutilak lehenagotik barneratu dituzten ideia eta sinesmenak birplanteatzeko espazioa izan beharko luke, kritikotasunez goitik jasotako ezkutuko mandatuak desglosatzeko espazioa, alegia. Halaber, eskola bestelako harreman eredu batzuei ateak zabaltzeko espazioa izan beharko luke, ikasleek eztabaidaezinak diren heteroaraua eta monogamiaren mandatuak jarraitu gabe haien harremantzeko moduak erabakitzeko aukera izan dezaten, beti ere errespetuan eta berdintasunean eraikitzen badira.

Maitasunaren iruditegi anitzak: Nafarroako hezkuntza komunitatean analisisa

Egoera horrela izanik, Nafarroko Gobernuak SKOLAE programa aurkeztu zuen, non hezkidetzan oinarrituriko hezkuntza proposatzen den. SKOLAEko prozesua izan ere, banakoen bizitzan “ezagutzan, askatasunean eta etorkizunari buruz genero-baldintzailerik gabe erabakitze gaitasunean finkatu behar da, berdintasun-eza identifikatzen haren aurka borrokatzen eta berdintasun eskubidea gauzatzen [...] ikasiz” (Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamendua, 2017). Horrela SKOLAE prozesu eta konpromiso bat da zeinak helburu bikoitza duen, batetik tokian tokiko eragileak koordinatzeko konpromisoa hazi eta ikasgelatik harantz joan dadin, eta bestea hezkidetzaren balioetan oinarritzen diren inguruneak sortzen laguntzea.

SKOLAEK programak lau ardatzetan banatu du bere eginkizuna; kritika eta ardura berdintasun-eza dela eta, autonomia eta independentzia pertsonala, lidergoa, ahalduntzea eta partaidetza soziala eta azkenik, sexualitatea eta tratu ona (Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentuko Berdintasuna eta Bizikidetzako atala, 2019). Besteak beste hezkidetzaren adituen inplikazioarekin diseinatutako programa honen marko legalak barne hartzen ditu 3/2007ko Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakume eta gizonen berdintasun efektiboarena, 14/2015ko Foru Legea, apirilaren 10koa, emakumeen kontrako indarkeriari aurre egitekoa, 1/2004ko Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero indarkeriaren aurka oso- osoko babesa emateko neurriei buruzkoa eta 8/2017ko Foru Legea, ekainaren 19koa, LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialari buruzkoa, besteak beste. Legedia Hezkidetzarako eta hezkuntza-sistemen genero indarkeria prebenitzeko Plan Zuzentzaileak planteaturiko egituratik egindako egokitzapena da (Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamendua, 2019).

### **3. METODOLOGIA**

Lan hau ardazten duen xedea hezkuntza komunitateko kidegoaren ikasle eta etorkizuneko irakaslegoan maiatasun erromantikoaren mitoen eragina izanik, proposaturiko helburuei erantzun ahal izateko, bi metodo ezberdin erabili dira. Lehenengo metodoa, Lehen Hezkuntzako ikasleekin egindako maitasun erromantikoaren jarduera, metodologia kullatiboarekin egin da, hau da, informazioa ikasleek eman digutenekin bildu da gaiaren inguruko galderen erantzunetatik jaso

delarik. Horretarako, behaketa eta jarduera partehartzaile bideratua erabili dira informazio kualitatiboa jasotzeko.

Bigarren metodoari dagokionez, Lehen Hezkuntzako etorkizuneko irakasleriarengan aplikatutakoa metodologia kuantitatiboa izan da. Datu bilketa egiteko erabili den teknika, izan ere, aukera anitzeko galdetegi bat izan da.

### **3.1. Metodologia kualitatiboa: Lehen Hezkuntzako bosgarren mailako ikasleriak maitasun erromantikoaren inguruan duen iruditegiaren analisia**

#### *3.1.1. Justifikazioa*

Bosgarren mailan dagoen Lehen Hezkuntzako irakasleriak maitasun erromantikoaren inguruan duen iruditegia zein zen aztertzeko metodologia mota hau haien pentsamenduak modu errazean adierazteko SKOLAE programak diseinatutako jarduera bideratu baten behaketa motedoa izan da. SKOLAE-k haurrentzako oraindik gai nahiko ezezaguna den maitasun erromantikoaren inguruan hausnarketa egitera bultzatu eta haiek dituzten ideiak adieraztea eragiten du jarduera honekin. Metodologia kualitatiboak ikasleak libreki pentsatzen dutena adierazteko aukera ematen du, modu ireki eta malguan dituzten ideiak adierazteko, alegia, askok aurretik gaiaren inguruan hitz egiteko aukerarik ez dutelako izan eta.

Askori oraindik kostatu egiten zaie kontzeptuak eta galderen abstrakzio maila ulertzea, hori dela eta, metodologia kualitatiboari esker gaiaren inguruko ideia asko hitz egin bitartean ateratzen dira, galderari modu zehatzean erantzutean izango lituzketen mugapenak kenduz. Datuen bilketari begira, aberasgarriagoa da ere metodo kualitatiboa erabiltzea, informazioa izan ere askoz ere orokorragoa eta modu ezberdinetan interpretatuta izan daitekeelako, informazio kantitatea handituz. Gainera, ikasle kopurua txikia denez gero, kualitatiboki eginez gaian sakondu eta eztabaidak proposatu daitezke, batak besteari ideia berriak eskaini eta denon galderen inguruan hausnarketak egin eta ondorioak atera daitezkeelako.

#### *3.1.2 Lagina; Lehen Hezkuntzako bosgarren mailaren ikasleriaren deskribapena*

Horrela, Mendillorri auzoan kokatzen den D ereduko Mendigoiti Ikastetxe Publikoko bosgarren mailako klasea 22 ikaslez osatuta dago, 10-11 urte bitarteko neska-mutilez, Maitasunaren iruditegi anitzak: Nafarroako hezkuntza komunitatean analisia

12 urteko neska errepikatzaile bat barne. Generoari dagokionez, jardueretan parte hartu duten ikasleak guztira 13 mutil eta 8 neska izan dira.

Klasearen ezaugarriei begira, hau bere ikasleriaren heterogeneotasunarengatik nabarmentzen da, ikasketa maila eta behar desberdinak dituzten ikasleek osatuta. Esan beharra dago orokorrean akademikoki maila ez dela oso altua, hala ere, alde handiak aurki daitezke eduki aldetik ikasleen artean. Ikasketa maila aldetik talde heterogeneoa dela behatzeko aukera izan dut, baita egoera sozioekonomiko eta familia egoera konplexuak bizi izan dituztela. Esan beharra dago hala ere, egoera hau asko aldatzen ari dela, eta irakasleriaren eta zuzendaritza taldearen aldetik klaseko harremanak zaintzeko dinamika asko aurrera eramaten ari direla.

Azkenik, ikasleen euskara hizkuntza maila nahiko baxua dela esan beharra dago. Hori dela eta, jarduerak egiteko haien emozio eta sentipenak helarazi behar zituztenez gero, jarduerak gaztelera egitea pentsatu zen, haiek seguruago sentitzeko eta parte hartzea handiagoa izan zedin. Izan ere, lehen aipatu den moduan, askoren ama hizkuntza gaztelera da, eta ikastetxetik kanpo ez dute euskaraz mintzatzen.

Eskolan jarraitzen duten metodologia ez da edozein eskola tradizionalan ematen den modura jorratzen. 2016tik geroztik izan ere eskolak metodologian aldaketa ematea erabaki zuenetik bertan Montessori, Waldorf eta disziplina positiboan oinarrituriko pedagogiak lantzen dira ikasleekin. Hortaz aparte, klasean ez dituzte libururik erabiltzen, edo haien erabilerak askoze ere mugatuak daude eskola tradizionalarekin konparatuz gero. Klasean dinamika ezberdinak jorratzen dira pertsonen arteko harremanak zaindu eta osasuntzeko, baita ingurumenarekin errespetuan bizitzeko ere. Horretarako, klasean bilera asko ematen dituzte, etengabeko komunikazioa ematen da irakasle eta ikasleen artean, eta errespetuan bizi eta tolaentzia oinarri duen jendarte bat osatzera begira hezten dira umeak. Honek, jarduerak egiterako orduan, eta bereziki lan honetan informazio bilketarako oinarritzat harturiko jarduera burutzean, ikasleriaren aldetik komunikazio gaitasun handia egotea, eztabaida errespetuz dinamizatzea ahalbidetzea eta ikasleen arteko errespetua ematea eragin du.

### *3.1.3 Tresna; Jarduera bideratu baten behaketa*

Ikasleriarekin egindako jarduerak burutzeko Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuan diseinaturiko SKOLAE programaren barnean aurki daitezke.

SKOLAE 2017. urtean martxan jarri zen hezkidetzan oinarrituriko programa da. Heziketa prozesua sistematizatzeko eta akonpainamendua egiteko asmoarekin jaio zen programa da. Bizitzaren hasierako urtetatik ezagutzan, askatasunean eta etorkizunari buruz genero baldintzatzailerik gabe erabakitzeko gaitasunean finkatu behar da prozesua, berdintasun-eza erakusten duten egoerak identifikatuz, haiei aurre eginez eta berdintasun- eskubidea gauzaten (Nafarroako Hezkuntza Departamentua, 2017). Horrela eta esan bezala, SKOLAE programa lau ardatzetan garatzen da, begiratzen eta ulertzen jakitean (kritika eta erantzukizuna ezaren aurrean), izaten eta bizitzen jakitean (autonomia eta independentzia pertsonala), eraikitzen eta ekarpenak egiten jakitean (lidergoa, ahalduntzean eta partaidetza sozialean) eta sentitzen eta tratatu onak ematen jakitean (sexualitatea eta tratatu onak). Modu honetan, SKOLAE-ren helburua hezkuntza sistemaren giltzarri izatea da, berdintasuna era eraginkor eta errealean jorratuz, transbertsalki, hezkuntza- sistemaren alor guztietan.

Ikastetxeko Lehen Hezkuntzako irakasleriak SKOLAEko formakuntza egiten ari ziren bitartean egin dira jarduerak eta Nafarroako Hezkuntza Departamentuak diseinaturikoak dira. Lehen Hezkuntzako bosgarren mailan lantzeko pentsatuak zeudenen artean maitasun erromantikoaren inguruko ideia lantzen zuena izan dalan hau osatzeko aukeratutakoa.

Horrela, egin zen jarduera “Merezi dugun maitasunean hasiko gara pentsatzen” izan zen, bosgarren mailako ikasleentzat pentsatuta zegoen maitasun erromantikoaren inguruko ekintza, bi ataletan banatua. SKOLAE-ko txostenean bertan deskribatzen diren jardueraren deskribapena eta helburuak A. *Eranskinak I*-n txertatu dira. Jarduera bideratuaren behaketa egin bitartean erabili zen informazioa biltzeko fitxa A. *Eranskinak II*-n aurki daiteke.

#### 3.1.4 Prozedura

Jarduerarekin hasi baino lehen honen nondik norakoak azaldu zaizkie ikasleei. Hasteko, maitasun erromantikoaren inguruko jarduera zela esan zaie, loti ederraren inguruko ipuin motz baten inguruan galdera batzuk erantzutea xede duena. Bigarren atalari

Maitasunaren iruditegi anitzak: Nafarroako hezkuntza komunitatean analisisa



begira, honetan ipuinaren inguruko galderak behin erantzun dituztelarik hausnarketara eramán eta bikote harreman sexu-afektiboen inguruan galdera batzu erantzuteko eskatu zaie. Hortaz gain, parte hartzea erabat boluntarioa eta ondoren erabiliko ziren lanerako erabat anonimoak izango zirela esan zaie, baita parte hartzea bolondresa izango dela ere. Izan ere, asko ez dira oraindik gaiarekin kontaktuan egon eta desoroso sentitzen badira ez luke zentzurik izaneren ariketak.

Hirugarren atalari dagokionez, idatzitakoak nik eta klaseko tutoreak bildu eta berriz ere, anonimotasunean erabiliko genituela abisatu zaie.

Hizkuntzari dagokionez, ama hizkuntza gaztelera dutenaren aldetik eta gaia adin horretan nahiko berria eta esperimentatu gabekoa denez gero, erdaraz egin da lanketa osoa. Modu honetan, ikasleek gaiarekiko duten hiztegia errazago erabili eta ideiak adierazteko orduan erraztasun handiagoa izan dezaten.

#### *3.1.4.1. 1. Atala:*

Jarduera hau burutzeko “balioak” saioa erabili da, ordu eta erdiko saio bat. Klasean jorratu da ere, erabat presentziala izan delarik. Atal hanetan ikasleak hiru taldetan banatu dira, lehenengo irakurgaia ozenean irakurri ostean galderak talde txikitan eztabaidatzeko eta ondoren ateratako ondorioak talde handian elakr banatzeko aukera aurkeztu zaielarik. Eranskinetan agertzen den modura, irakurgai motza irakurri ostean proposatzen diren lehenengo galderei erantzun diete ikasleek.

#### *3.1.4.2. 2. Atala:*

Prozedura berdina jarraitu da jardueraren bigarren galdera sorta burutzeko, bikote harremanen inguruko atala, alegia. Hau da, ikasleek lehenik eta behin talde txikietan eztabaidatu dituzte bigarren multzo horretan galdetzen direnak, eta ondoren talde handiarekin konpartitu dituzte iritziak.

#### *3.1.4.3. 3. Atala:*

Jardueraren hirugarren atala burutzeko hurrek eskutitz bat idaztea izan dute eginkizun. Lana indibidualki egin da eskolako “balioak” izeneko ordu eta erdiko saioan. SKOLAE-ko txostenean azaltzen den moduan, hurrek oraingo honetan pertsonen “merezi duten maitasunaren” inguruko hausnarketa egin eta gustuko duten norbaiti

eskutitza idatzi behar izan diote. Horretarako, eskutitzan txertatzeko SKOLAE-tik proposatzen diren zenbait esaldiren laguntza izan dute. Informazio bilketa egiteko ikasleen gutunak behatu dira.

### **3.2 Metodologia kuantitaboa: Lehen Hezkuntzako Irakasle Gradua ikasten ari den Nafarroako ikasleriaren maitasunaren iruditegiaren analisia**

#### *3.2.1 Justifikazioa*

Ikerketaren atal honetan parte hartzen duen biztanleriaren lagina heldua da, hau da, 18 urte baino gehiago dituzte. Hori dela medio, maitasun erromantikoaren gaiarekin ideia eta diskurtso osatuagoa dutela esan daiteke, esperientzia gehiago izan dituztenez gero. Horrela, galdetegiaren teknika geroz eta irakasle gehiagorengana iristeko pentsatua izan da, haien erantzunak esanguratsuagoak direlako eta maitasun erromantikoaren mito zehatzen inguruan duten adostasun maila adierazteko ahalmena dutelako, haiek alde zuzenetik ezagutzen baitituzte. Galdetegia laburra eta egiteko erraza da, modu arinean eta asko pentsatu gabe osatzeko, eta erantzunen artean aukeraketa egiteak prozesua asko errazten du, erakargarriagoa izan daitekeelako modu horretan egitea galderak idatziz erantzutea baino.

#### *3.2.2. Lagina; Lehen Hezkuntzako Irakasle Gradua ikasten ari den ikasleria*

Gradu Amaierako Lan honetan parte hartu duen beste populazioaren lagina etorkizunean irakasle izango diren Lehen Hezkuntzako Irakasle gradua ikasten ari den Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikasleria izan da, bai gaztelaniazko eta baita euskarazko taldekoak eta kurtso ezberdinetakoak. Adinaren aldetik 18 urtetik gorako pertsonak izan dira guztiak, genero aldetik bai neskek baita mutilek eta genero ez binarioko edozein pertsonak parte hartu dutelarik. Guztira galdetegia bete duten ikasle kopurua 133 pertsonakoa izan da, non gehiengo emakumeak izan diren, 95 guztira. Gizonezkoeki dagokienez 37k hartu dute parte, eta genero ez binarioarekin indentifikatzen den pertsona bakarrak.

#### *3.2.3. Tresna; Galdetegia*

Lehendik aipatu den moduan ikerlanaren bigarren atala egiteko etorkizuneko irakasleriari egindako galdetegia erabili da maisu-maistren aldetik dagoen maitasun Maitasunaren iruditegi anitzak: Nafarroako hezkuntza komunitatean analisia

erromantikoaren inguruko iruditegiaren berri izateko eta ondorioz, ikasleek dituzten eta indarrean dauden maitasun erromantikoaren ideien eraikuntzarekin dagoen harremana identifikatzeko. Izan ere, genero desberdintasunean oinarritzen diren eta sistemak bultzatzen dituen praktikak zabaldu diren sinesmen eta ideia askoren menpe daude, zeinak jendartearen eguneroko bizitzan jorratzen diren harremanetan hain barneratuak dauden non ez diren salatzen ezta kuestionatzen.

Galdetegia Nafarroako Unibertsitateko Lehen Hezkuntzako irakasleriari zuzenduta dagoenez gero, hizkuntzari dagokionez euskaraz eta gazteleraz diseinatu zen.

Galdetegia sortzeko erabili zen programa "Formularios de Google" izan da. Galdetegi osoa *A. Eranskinak III*-n txertatu da.

### 3.2.3.1 Galdetegiaren atalak

- Ezaugarri soziodemografikoak:

Galdetegia diseinatzerako orduan, bertan agertzen diren aldagai sozio-demografikoak diseinatzeko Bonilla-Algovi eta Rivas Riverok 2018an etorkizuneko irakasleriari egindako mito erromantikoen inguruko galdetegian erabiliak izan ziren aldagaiak erabili dira eredu moduan eta asko ere honetan errepikatu egiten dira; generoa, adina, familia eredu, genero indarkeria eremu hurbilean, familiaren egoera ekonomikoa eta erlijiozkotasuna hartu dira eredu (Bonilla-Algovi eta Rivas-Rivero, 2018). Aldagai hauei beste batzuk gehitzen zaizkie, hala nola; egoera sexu-afektibo pertsonala, gurasoen lan-egoera familia biparental heterosexuala izatekotan, eta norberaren egoera karrera ikasten egon den bitartean Bonilla-Algovik eta Rivas-Riverok ipini zuten aldagaiaren birformulaketa.

- Maitasun erromantikoen mitoen inguruko baieztapenak

Bigarren atal honetan, irakasleriari dimentsio ezberdinetan banaturiko gizartean indarrean dauden maitasun erromantikoaren inguruko baieztapen batzuen inguruan adostasun maila ipintzea eskatu zaie, Otik 4era.

Modu honetan, baieztapenak dimentsio ezberdinetan sailkatu dira. Dimentsio hauek eta agertzen diren maitasunaren inguruko mito eta esaldiak Alicia Pascual Fernandezek

(2016) Peñak et al. (2011) egin zuen maitasun erromantikoen mitoen inguruko sailkapenetik egindako egokitzapenetik abiatzen dira:

1. Dimentsioa: “Maitasunak dena gaindi dezake”
2. Dimentsioa: “Maitasuna gauzarik garrantzitsuena da eta erabateko entrega eskatzen du”
3. Dimentsioa: “Benetako maitasuna predestinatutakoa da”
4. Dimentsioa: “Maitasuna jabetza eta eksklusibotasuna da”

### 3.2.4 Prozedura

Lehenik eta behin galdetegiarekin batera zihoan oharrean galdetegiaren xedea eta gaia zein zen azaldu da. Galdetegia egitearen partaidetza erabat boluntarioa izanda ere. Informazioa anonimoki prozesatua izango denaz abisatu da ere, baita bakarrik lanarentzako erabilpena izango dutenaz ere. Galdetegian erabili zen teknikari dagokionez, esaldien inguruko adostasun maila ezberdinen arabera erantzuna anitzen aukera erabili da. Galdetegia eta oharra, baita honen barneko azalpena ere bi hizkuntzatan daude idatzita, bai euskaraz eta baita gazteleraz ere. Datuen media galdetegiaren erantzunetik abiatuta kalkulatu da.

### 3.3 Ikerlanean zehar egon diren zailtasunak eta oztopoak:

Ikerlana diseinatu bitartean aurkitu diren oztopoen artean lan hau garatzeko eta borobiltzeko diseinatuak zeuden jarduerak praktikan jartzeko ezintasuna izan da garrantzitsuena. 2020aren martxoan Espainian ematen hasi ziren Covid-19 birusak ekarritako biztanleria babesteko erabakien artean, izan ere, konfinamendu egoera aurkitzen da. Konfinamendu egoerarekin batera, hortaz, Nafarroako eskolak martxoaren 17tik aurrera ixtea eragin zuen, momentu hortatik aurrera lana telematikoki egitera bultzatuz. Modu honetan, praktikaldian zehar lan honetarako pentsatuak zeuden informazioa biltzeko jarduerak bertan behera geratu dira, praktikaldia bera ere eskolak itxi zirenetik suspenditu egin zela medio, jarduera horiek telematikoki garatzeko aukerarik eduki gabe. Aurretik eskolan praktikan jartzeko pentsatuak zeuden jarduerak beste modu batean ikasleek haien bizitza sexu-afektiboa nola garatuko luketen inguruko informazioa biltzea zuten xede.

Maitasunaren iruditegi anitzak: Nafarroako hezkuntza komunitatean analisia

Beste alde batetik, esan beharra dago ere Lehen Hezkuntzako ikasleriarekin egindako jardueren harira lagina oso txikia dela, 21 ikaslek hartu dutelako parte guztira, beste ikasle batzuekin lanketa egiteko aukerarik egon ez delarik. Horrek ateratako ondorioak orokortzeko zailtasunak ekarri ditu, izan ere lagina hain txikia izanik eta bakarrik bosgarren mailako ikasleen erantzunak bildu direnez gero, ezin dira ateratako ondorioak Nafarroako Lehen Hezkuntzako ikasleria osoari aplikatu. Hala ere, egia da ikasleriak izan dezakeen iruditegiaren pista bat ematen digula klase honetatik ateratako informazioak.

Jarduera burutu bitartean, gainera, talde txikitan egin diren ataletan ere informazio biltzea egin da mahaiaz mahai pasatuz, eta horrek ere zenbait informazio galtzea eragin du hein batean. Izan ere, gelan bi irakasle egon garen arren, hiru talde txiki izateak batzuetan talde bat entzule gabe egotea eragin du, bertan esaten zirenak biltzeko aukerarik eman gabe. Hala ere, esan beharra dago lehenengo talde txikietan esaten zirenak ondoren talde handian elkarbanatzeko aukerarekin galdu den informazioaren zati bat bereganatzeko espazioa eman duela.

#### **4. MARKO ENPIRIKOA; EMAITZAK**

Lan honetan eskolak gizartean indarrean dauden maitasun erromantikoaren inguruko ideien eraikuntzak norainoko eragina izan duen analizatzea du xede Lehen Hezkuntzako irakasleria eta ikasleriak maitasun erromantikoaren inguruan duen iruditegiaren analisia eginez.

Analisi hau burutzeko bi metodo erabili dira. Lehenengo metodoa Nafarroako D ereduko ikasleriarekin egindako bi jardueren lanketa izan da, Nafarroako Hezkuntza Departamentutik diseinaturiko hezkidetzan oinarrituriko SKOLAE programatik hartuak izan direnak. Bigarren metodoa berriz, Lehen Hezkuntzako etorkizuneko irakasleriari egindako galdetegia izan da, jendartean indarrean dauden mito erromantikoen inguruan dituzten sinesmenak ikertzeko.

Horrela, ikerlana bi zatitan banatzen da, ikasleriarekin egindako analisian eta irakaslearekin egindakoan. Modu honetan, hezkuntzaren parte diren eragileen usteak

zeintzuk diren aztertuko dira, eskolak mito horien eraikuntzan norainoko eragina izan dezakeen ondorioetara iristeko asmoz.

#### **4.1 Ikerlana burutu den ikastetxearen eta unibertsitatearen testuinguruaren analisia:**

##### *4.1.1 Ikastetxearen testuinguruaren analisia:*

Lehen Hezkuntzako Irakasle Graduaren azkeneko kurtsoan egindako praktika aldian garatu egin dut Nafar Gobernuako Hezkuntza Departamentuko SKOLAE programako jarduera hau, tutore praktikak egin ditudan bitartean, hain zuzen. Tutore moduan praktikak egitean klasea gehiago ezagutu eta ikasleriarekin harremana gehiago estutzea eta horrela taldea hobe ezagutzeko aukera eman dit, jarduera aurrera eramateko orduan lagungarria izan dena.

Ikastetxea esan dudana moduan Nafarroan kokatzen da, Iruñako auzo batean, Mendillorri, hain zuzen. Mendillorri nahiko auzo berria da eta garapen prozesuan dago oraindik, eta auzoko eta ikasleen familietako ekonomi eta kultur maila ertaina da. Ikastetxea 202-2003 urtean hasi zen funtzionatzen Mendigoiti IP izenarekin, metodologia tradizionalarekin hasieran. Ez zen 2016ra arte izan zentroak metodologia erabat aldatu eta beste pedagogietan oinarrituriko irakaskuntza jorratzen hasi zela. Metodologia alternatiboek eredu tradizionalarekin konparatuz gero hartzen ari diren pisu handiagoa dela eta, esan daiteke Mendigoiti zentro moderno bat dela, egunerokotasunera moldatu dena metodologiari eta hezteko moduari dagokionez, zeinak geroz eta gehiago familien arreta deitzen ari den, 2016tik bere metodologia aldatu zuenetik. Metodologia hauen artean Montessori eta Waldorf pedagogian oinarrituriko irakaskuntzak jorratzen dira, besteak beste.

Mendigoitik diziplina positiboan egiten du lan. Honek irakasleen eta ikasleen arteko harremanak erabat horizontalak direla esan nahi du, hezkuntza komunitatea osatzen duten eragile ezberdinen arteko errespetuan oinarrituta. Gatazkak eta egon litezkeen arazoak ez dira zigorrekin konpontzen, ikaslearen garapena bultzatuko duen bestelako ondorioetan baizik, konponbidera bideratuta dago, alegia.

Bestalde, metodologia hau ikasleak motibatzean oinarritzen da, akatsa garapenerako aukera bezala interpretatzen delarik, ezer negatiboa izan gabe, eta hori bera

Maitasunaren iruditegi anitzak: Nafarroako hezkuntza komunitatean analisia

transmititzen zaie ikasleei ere bai. Ikastetxeak haurren gaitasunak garatzeko rola dauka, etorkizunerako erabilgarriak suertatuko zaizkienak, epe luzeko ikaskuntza deritzona.

#### *4.1.2 Nafarroako Unibertsitate Publikoko testuingurua:*

Nafarroako Unibertsitate Publikoa Iruñea hirian dagoen unibertsitatea da. Egun unibertsitateak 25 ziklo ezberdin eskaintzen ditu eta kanpusak Tuteran eta Iruña artean banatzen dira. Gizarte Zientzien kanpua Iruñean aurkitzen da, hortaz, gure ikasleak Iruñean ikasten dute denek.

## **4.2 Emaitzak**

### *4.2.1 LH-ko bosgarren mailako ikasleriaren maitasunaren iruditegia: SKOLAE-ko ariketa LH-KO ikasleriarekin*

SKOLAE jarduera burutu bitartean erabili genuen fitxa *A. Eranskinak I-n* dago. Taula horrek genero aldetik egon ziren erantzun desberdintzen ditu lehenengo. Bigarrenik, galdera berdinez osatutako beste taula bat agertzen da, non eredia erreproduzitzen duten esaldiak eta eredia eraldatzen dutenak agertzen diren. Jarraian agertzen diren taulek genero aldetik egon diren erantzunak islatzen dituzte, eredia erreproduzitzen duten eta hura eraldatzen dutenen ikuspuntutik analizatuta daudelarik.

SKOLAE 2017. urtean martxan jarri zen hezkidetzan oinarrituriko programa da. Heziketa prozesua sistematizatzeko eta akonpainamendua egiteko asmoarekin jaio zen programa da. Bizitzaren hasierako urtetatik ezagutzan, askatasunean eta etorkizunari buruz genero baldintzatzailerik gabe erabakitzeko gaitasunean finkatu behar da prozesua, berdintasun-eza erakusten duten egoerak identifikatuz, haiei aurre eginez eta berdintasun eskubidea gauzatzen (Nafarroako Hezkuntza Departamentua, 2017). Horrela, SKOLAE programa lau ardatzetan garatzen da, begiratzen eta ulertzen jakitean (kritika eta erantzukizuna ezaren aurrean), izaten eta bizitzen jakitean (autonomia eta independentzia pertsonala), eraikitzen eta ekarpenak egiten jakitean (lidergoa, ahalduntzean eta partaidetza sozialean) eta sentitzen eta tratu onak ematen jakitean (sexualitatea eta tratu onak). Modu honetan, SKOLAE-ren helburua hezkuntza

sistemaren giltzarri izatea da, berdintasuna era eraginkor eta errealean jorratuz, transbertsalki, hezkuntza- sistemaren alor guztietan.

Jardueraren lehenengo atalean, esan bezala, ikasleek Loti Ederraren inguruko irakurgai txiki bat entzun eta haren inguruan galderak erantzutea eskatu zaie, haien erantzunak ondorengoak izan direlarik, taulatan banatuta.

#### 4.2.1.1 Atala; mikro-ipuinen inguruko galderak:

**Taula 1.** Loti Eder hau ezagutzen dugun lotia ez bezalakoa da? Zergatik?

Galdera	Neskak	Mutilak
<b>Loti Eder hau ezagutzen dugun lotia ez bezalakoa da? Zergatik?</b>	<p>“Aurrekoak behatza ziztatu egin zuen”</p> <p>“Honek lotan egoteko itxurak egiten ditu”</p> <p>“Ipuin hau laburragoa da eta ez da “Malefika” agertzen”</p> <p>“Tontunarena egiten du”</p>	<p>“Loti eder hau esna dago”</p> <p>“Honek lotan egoteko itxurak egiten ditu”</p>

#### **Iturria:** Lan honen egileak egina

Horrela, mikro-ipaina irakurri ostean jaso diren lehenengo galdera multzoaren erantzunei dagokienez, bai mutilek baita neskek ere multzoaren lehenengo galderari alde aurretik ezagutzen duten loti ederraren historiarekin alderatuz desberdina dela esanez erantzun zioten “Honek lotan egoteko itxurak egiten ditu” (neskak eta mutilak, 10-11 urte) bezalako esaldiekin. Neska batek ere galdera honi erantzuteko loti eder honek “tontunarena” (neska, 10-11 urte) egiten duela esan du, loti eder hau alde aurretik ezagutzen zuenarekin alderatuz. Gainerako erantzunak aurreko loti ederrarekin konparatuz loti eder berri honek lo egongo balitz bezala jokatzeko duenari egiten zioten erreferentzia, baita filmean agertzen diren pertsonaien faltari ere; “aurrekoak behatza ziztatu egin zuen” (neska, 10-11 urte), “honek lotan egoteko itxurak egiten ditu” (neskek eta mutilek, 10-11 urte) “ipuin hau laburragoa da eta ez da

Maitasunaren iruditegi anitzak: Nafarroako hezkuntza komunitatean analisisa



Malefika agertzen” (neska, 10-11 urte), besteak beste. Neskek erantzun gehiago eman dituzte gutxiago izan arren, ipuina mutilek baino hobe dakitela erakutsiz.

**Taula 2.** *Zergatik daki Loti Ederrak printzei buruz zerbait, inork esan ez badio ere?*

Galdera	Neskak	Mutilak
<b>Zergatik daki Loti Ederrak printzei buruz zerbait, inork esan ez badio ere?</b>	<p>“Jendeak hori esaten duela entzun du”</p> <p>“Printsezek lo egiten dutela entzun du”</p> <p>“Aktorea da eta badaki egin behar duena zer den”</p> <p>“Printzeari lotsa emango diolako begiak irekitzen baditu”</p> <p>“Herrian entzun ditu halakoak”</p> <p>“Azkarra da eta badaki lo egin behar duela”</p> <p>“Emakumeak lotan daudenean politagoak dira, zerbait gertatzen zaiola pentsatuko du eta hurbilduko da”</p>	<p>“Filma ikusi du lehenagotik”</p> <p>“Badaki printzesek biktimarena egin behar dutela printzeak erakartzeko”</p> <p>“Gizonak tontunak direlako eta haiengana joaten direlako”</p> <p>“Aktorea da eta badaki pelikuletan gertatzen dena”</p> <p>“Printzesak lo egonda politagoak direlako”</p> <p>“Printzesei ez zaielako gustatzen haiek esna harrapatzea”</p> <p>“Printzeak bestela ez dira hurbiltzen lotsarengatik”</p>

**Iturria:** *Lan honen egileak egina*

Bigarren galderari begira, galderari erantzuteko egon diren eredu klasikoa erreproduzitzen duten erantzunak honako hauek izan dira; “jendeak hori esaten duela entzun du” (neska, 10-11 urte), “badaki printzesek biktimarena egin behar dutela printzeak erakartzeko” (mutila, 10-11 urte), “emakumeak lotan daudenean politagoak dira, zerbait gertatzen zaiola pentsatuko du eta hurbilduko da” (neska eta mutila, 10-11 urte). Erantzunei erreparatuz, ikus daiteke nola lo egitearen zentzua edertasunarekin lotzen duten bi generoek. Neskaren erantzunak gizartean indarrean dagoen fikzioarekin lotutako printzesak lo badaude printzeak erakarriko dituztenaren ideari egiten dio erreferentzia batetik, eta mutilarenak berriz gizartean egiten duen emakumeak gutxi baliotze eta biktimizazioarekin. Mutilen aldetik egon diren erantzun

asko eredu patriarkala erreproduzitzen duten erantzunak izan dira, besteak beste, “gizonak tuntunak direlako eta haiengana joaten direlako” (mutila 10-11 urte) gizonak emakumeengana hurbiltzeagatik tuntunak direla baieztatuz, edota “printzesak lo egonda politagoak direlako” (mutila 10-11 urte) bezalako erantzunak emanez.

**Taula 3.** *Zergatik uste duzu ipuinak adierazten duela printzeak ez direla pasatzen begiak zabal-zabalik dituen emakume baten ondotik?*

Galdera	Neskek	Mutilak
<p><b>Zergatik uste duzu ipuinak adierazten duela printzeak ez direla pasatzen begiak zabal-zabalik dituen emakume baten ondotik?</b></p>	<p>“Makilatua egonda politagoak direlako, eta makillajerik gabe egonda hobe dago lo esna baino”</p> <p>“Makilatutako aurpegiak dituztenez gustuko eta hau makillajerik gabe dagoenez, begiak itxi behar ditu”</p> <p>“Begiak irekitzen aditu arraroa izango litzateke, beldurra emango luke”</p> <p>“Lotsatzen direlako”</p> <p>“Begiak itxita ez dio kasurik egiten, horregatik hurbiltzen da”</p>	<p>“Sorgin aurpegia duelako begiak zabalik baditu”</p> <p>“Begiak irekita itsusia delako”</p> <p>“Amesten dago, eta bibitza errealean ez da hori gertatzen”</p> <p>“Printzeari beldurra ematen dio esnatuta dagoen norbaitengana hurbiltzea”</p> <p>“Bestela ez duelako gustuko izanen”</p> <p>“Bibitza errealean ez dira printzeak hurbiltzen”</p>

**Iturria:** *Lan honen egileak egina*

Hirugarren galderara salto eginez, galderaren aurrean eredu erreproduzitzen duten esaldiei begira honako erantzunak eman dituzte neska-mutilek; “makilatua egonda politagoak direlako, eta makillajerik gabe egonda hobe dago lo esna baino” (neska, 10-11 urte) edota, “begiak itxita dituzenez ez dio kasurik egiten, horregatik hurbiltzen da” (neska, 10-11 urte). Erantzun hauek honela erakusten dutenez, neskek ere gizartean aurretik dagoen eredu matxista erreproduzitu egiten dute. Bestetik, mutilen aldetik egon diren erantzunek ere emakumeen edertasunari eta objetibazioari erreferentzia egiten diotela ikus daiteke; “sorgin aurpegia duelako begiak zabalik baditu” (mutila, 10-11 urte), “begiak irekita itsusia delako” (mutila, 10-11 urte) edota “bestela ez duelako

gustuko izanen” (mutila 10-11 urte). Hala ere nesken kasuan ez bezala, mutilen erantzunen artean ere horrelakoak entzun dira, eredu eraldatzen dutenak; “amesten dago, eta bizitza errealean ez da hori gertatzen” (mutila, 10-11 urte) eta “printzeari beldurra ematen dio esnatuta dagoen norbaitengana hurbiltzea” (mutila, 10-11 urte). Erantzun hauetan mutilen aldetik fikzio eta errealtatean gertatzen denaren bereizketa ematen da batetik, gizonezkoen esna dagoen emakume batengana hurbiltzean duten beldurra aipatzen dutelarik bestetik, nolabait ere ipuinetako eredu tradizionalari, non emakumeak beti diren beldurra sentitzen dutenak, buelta emanez. Horrela, esan daiteke emakumearen errepresentazio orokorrean edertasunari lotzen dela Simonek (2008) definituriko “atseginaren legea”, emakumeen gaineko araua erreproduzitzen.

**Taula 4.** *Zergatik ez da ezer esaten printzeen edertasunari buruz?*

Galdera	Neskak	Mutilak
Zergatik ez da ezer esaten printzeen edertasunari buruz?	<p>“Pelikulak egiten dituztenak gizonak direlako”</p> <p>“Lehen kontsideratzen zen emakumeek gehiago zaintzen zuetela haien burua”</p> <p>“Emakumeek soineko politak eramaten dituztelako”</p> <p>“Protagonista emakumea delako”</p> <p>“Orokorrean beti emakumeen edertasunaz hitz egiten da gehiago”</p> <p>“Ipuin zaharra da eta matxistak ziren”</p> <p>“Mutilak itsusiak direlako”</p>	<p>“Aspaldi idatzitako ipuina da eta emakumeek ez zuten eskubiderik, gainera haien edertasunean zentratzen ziren gehiago”</p> <p>“Pelikulak egiten dituztenak gizonezkoak direlako”</p> <p>“Protagonistak emakumeak direlako, bestela haserretu egiten dira, gehiago ordaintzen diotelako protagonista izanda”</p> <p>“Ipuin zaharra da, matxistak ziren”</p> <p>“Egilea (gizona) emakumetaz maitemintzen delako”</p>

*Iturria: Lan honen egileak egina*

Laugarrengez, taula honetako galderari erantzuteko eredia erreproduzitzen duten erantzunen aldetik “emakumeek soineko politak eramaten dituztelako” (neska 10-11 urte), “protagonista emakumea delako” (neska 10-11 urte) edo “mutilak itsusiak direlako” (neska, 10-11 urte) bezalako erantzunak entzun dira nesken aldetik. Modu honetan neskek emakumezkoen edertasuna goraipatzen dutela antzeman daiteke gizonezkoenaren aurrean, lehenagotik eman zituzten erantzunetan gertatu zen bezala. Mutilen kasuan, eredia erreproduzitzen duten erantzun antzekoak bildu dira, hala nola, “protagonistak emakumeak direlako, bestela haserretu egiten dira” (mutila, 10-11 urte) edota “egilea (gizona) emakumeekin maitemintzen delako” maitasun edo orientazio sexual heterosexualari erreferentzia eginez. Hala ere, erantzun hauetaz aparte, neska-mutilek pentsamendu tradizionala eraldatzen eta kritikatzten duten beste erantzun mota batzuk esan dituzte, esaterako, “pelikulak egiten dituztenak gizonak direlako” (neska, 10-11 urte), “lehen kontsideratzen zen emakumeek gehiago zaintzen zutela haien burua” (neska 10-11 urte), “orokorrean beti emakumeen edertasunaz hitz egiten da gehiago” (neska, 10-11 urte) , “ipuin zaharra da eta matxistak ziren” (neska, 10-11 urte), edota “orokorrean emakumeen edertasunaz hitz egiten da gehiago” (neska, 10-11 urte) bezalako erantzunak nesken partetik eta eredia eraldatzen duten mutilek aldetik emandako erantzunak ere; “aspaldi idatzitako ipuina da eta emakumeek ez zuten eskubiderik, gainera haien edertasunean zentratzen ziren gehiago” (mutila, 10-11 urte), “pelikulak egiten dituztenak gizonezkoak direlako” (mutila, 10-11 urte), besteak beste.

Honekin garbi antzeman daiteke ere haurrak genero berdintasun eza eta esterotipoetaz jabetzen direla eta horien kontziente direla, baita aurretiko garaietatik hona transizioa egin dela ere. Izan ere, alde batetik sexu-genero sistemak ezartzen dituen harreman desorekatuen eta eskubide urraketaren jabe dira ikasleak, eta bestetik, begirada androzentrikoa auzitan jartzen dute ipuinaren sortzailea gizona izanik, ikuspegi maskulinoaren pribilejiaz bati erantzuten badio errelatoak.

**Taula 5.** *Zergatik printzesek ez dituzte bilatzen lo dauden gizon ederrak, haiek esnatzeko?*

Galdera	Neskak	Mutilak
---------	--------	---------

<p><b>Zergatik printzesak ez dituzte bilatzen lo dauden gizon ederrak, haiek esnatzeko?</b></p>	<p>“Erromantikoagoa da printzeek printzesak bilatzen badituzte”</p> <p>“Neska nekatuta dago beti” “Printzesak alferrak dira”</p> <p>“Ez dute korrikarik egin nahi, alferkeriarengatik”</p> <p>“Etxean geratzen direlako garbitzen edota umeak zaintzen”</p>	<p>“Egileak matxistak direlako”</p> <p>“Emakumeak ezer ez egiteko gai izango balira bezala aurkezten zituztelako”</p> <p>“Lehen gizonak beti emakumeen bila joaten zirelako”</p> <p>“Emakumeak seme-alabak dituztelako eta haiek zaintzen geratu behar direlako, eta gero deskantsatzen. Ondoren gizonezkoek maitasuna ematen diete haiek maitasun hori haien seme-alabei eman ahal izateko”.</p>
---	---	---

***Iturria: Lan honen egileak egina***

*Taula 5-n* ikus daitekeen modura, galdera honi erantzuteko neskek maitasun erromantikoaren mitoak txertatu dituztela antzeman daiteke “erromantikoagoa da printzeek printzesak bilatzen badituzte” (neska, 10-11 urte) bezalako erantzunekin. Eredua erreproduzitzen duten gainontzeko erantzunen artean “ez dute korrikarik egin nahi, alferkeriarengatik” bezalako erantzunak aurki daitezke, emakumeen pasibitateari eta jarrera ez aktiboari erreferentzia eginez, gizartean indarrean dagoen genero estereotipoaren eraginez. Gainera, sexuaren araberako lanaren bereizkerari eta emakumeen eremu pribatuko lanari aipamena egin dion erantzuna ere eman du neska batek, emakumeak “etxean geratzen direlako garbitzen edota umeak zaintzen” (neska, 10-11 urte), esanez. Mutilen kasuan, eredua eraldatzen duten erantzunak eman dira, ikus daitekeen moduan. Erantzun horien artean, adibidez, mutil batek “matxistak direlako” (mutila, 10-11 urte) dela baieztatu du, ipuinen egileei erreferentzia eginez. Beste ikasle batek, beste alde batetik “emakumeak ezer ez egiteko gai izango balira bezala aurkezten zituztelako” (mutila 10-11 urte) dela erantzun du, eredu klasikoarekin ere hautsiz. Azkenik, ikasle mutil batek emandako usteak aipatu beharrekoak dira, zeinak “emakumeak seme-alabak dituztelako eta haiek zaintzen geratu behar direlako, eta gero deskantsatzen. Ondoren gizonezkoek maitasuna ematen diete haiek maitasun hori haien seme-alabei eman ahal izateko” (mutila, 10-11 urte) esan duen, modu

honetan emakumeen zaintzarako joerari eta Simonek horrela definituriko emakumeei aplikatutako “la ley del agrado” [atseginaren legea] delakoari erreferentzia eginez, zeina hiru ardatzetan garatzen den; edertasunean, zaintzan eta afektuan (Simon, 2008).

**Taula 6.** *Uste duzu Loti Eder honek, bere jarrerari esker, ipuin tradizioaletako printzesek baino lagun hobeak izanen dituela?*

Galdera	Neskak	Mutilak
<p><b>Uste duzu Loti Eder honek, bere jarrerari esker, ipuin tradizioaletako printzesek baino lagun hobeak izanen dituela?</b></p>	<p>“Bai. Lotan geratzen bada ez ditu lagunak egingo”</p>	<p>“Bai, begiak irekita baditu jende gehiago ezagutzeko aukera izango du, begiak itxita gezurretako bizona bat biziko du bestela”.</p> <p>“Bizona gehiago bizitzeko aukera dauka begiak irekita baditu”</p> <p>“Begiak itxita printzeari gehiago itxaron behar dio”</p>

***Iturria:*** *Lan honen egileak egina*

Galdera honen inguruan ikasle neskek bereziki izan dituzten usteek eta ideiek ez dituzte galderak eskatzen duen abstrakzio maila hori lortu. Izan ere, ikus daitekeen bezala, ikasleek modu nahiko literalean erantzun dituzte galderak, lo geratzea bizitzan aktibo ez egotearekin konparatzen duen metafora ulertu gabe. Mutilen aldetik egon diren erantzunek hala ere galderarekiko adostasuna erakutsi dute, izan ere “bai, begiak irekita baditu jende gehiago ezagutzeko aukera izango du, begiak itxita gezurretako bizona bat biziko du bestela” (mutila, 10-11 urte). Erantzun honetan garbi dago mutil honek emakumeak begiak itxita baditu bizona bizitzeko aukera galtzen ari dela ulertu duela, ipuinetan ematen den egoerari modu horretan zentzua kentzen diolarik. Horrela, suposa daiteke ikasle honek behintzat ulertu duela emakumeen pasibitatea adierazten duen “printze urdina itxarrotearen” mito horrek jendarte patriarkarrean emakumeek izan beharreko rolaen transmisoreren metafora dela, hau da, zeharka bada ere identifikatu egin duela. Hau azpimarratzekoa da, izan ere arau soziala Maitasunaren iruditegi anitzak: Nafarroako hezkuntza komunitatean analisisa

transmititzeko mekanismoa da ipuina, genero gizarteratze ezberdinak oinarri dituelako halako baliabide kulturalak. Herrerak esan zuen moduan, maitasun erromantikoak emakumeei egokitzen dien rola pasibitatearen rola da, “printze urdinak” itxarrotearen rola, haiei identitate eta bizitzari zentzua emango dienaren esperoan. (Herrera, 2010).

**Taula 7.** *Gustatuko litzaizuke ipuin bateko printze urdina izatea? Zergatik?*

Galdera	Neskak	Mutilak
<p><b>Gustatuko litzaizuke ipuin bateko printze urdina izatea? Zergatik?</b></p>	<p>“Kanpoko edertasunean fijatzen dira bakarrik, ez”</p> <p>“Oso harroak dira eta ez litzaizuke gustatuko”</p> <p>“Egozentrikoak dira”</p>	<p>“Bai, dotore jantzita joan nintekelako eta zaldi bat eduki ere”</p> <p>“Ez baina aldi berean bai, nahi dudana guztia izan nezakelako”</p> <p>“Ez, bakarrik printzesekin ezkondu ahal dutelako”</p> <p>“Oso pinpirinak eta berekoiak direlako”</p> <p>“Bakarrik ederrenean fijatzen dira”</p> <p>“Ez. Ez dut muxuak ematea gustoko”.</p> <p>“Bai, boteretsua izateko”</p>

***Iturria:*** *Lan honen egileak egina*

Galdera honetara salto eginez, lehenagotik eztabaidatu den printze urdin honen rola inguruan iritzia emateko eskatu zaie ipuin bateko printze urdina izatea gustatuko litzaieken ala ez galdetuz. Taulak horrela adierazten duenez, neska guztiek ezetz esan dute, eman dituzten arrazoen artetik “kanpoko edertasunean fijatzen dira bakarrik” (neska 10-11 urte), “oso harroak dira eta ez litzaizuke gustatuko” (neska, 10-

11 urte) edota “egozentrikoak dira” (neska, 10-11 urte) bezalakoak entzun direlarik. Mutilen erantzunen artean ere ezezoak egon dira, “bakarrik ederrenetan fijatzen direla” (mutila, 10-11 urte), “oso pinpirinak eta berekoiak direla” (mutila, 10-11 urte) eta “bakarrik printzesekin ezkondu ahal dutelako” (mutila, 10-11 urte) argudiatuz, bezteak beste. Hala ere, baiezkoen artean “botereitsuak direlako” (mutila, 10-11 urte) edota “nahi dudan guzia eduki ahal izateko” (mutila, 10-11 urte) edota “dotore jantizta joateko eta zaldi bat izateko” (mutila, 10-11 urte) bezalako arrazoiak eman dituzte, Simonek horrela deskribatutako “la ley del dominio” [nagusitasunaren legea] (Simon, 2007) gizonezkoei eskatzen dien botere, diru eta indarrari erreferentzia eginez. Horrela, nahiko esanguratsua da aipatzea ikasleek ipuinaren genero errepresentazioa boterearekin lotu izana, begirada zorrotza adierazten bait dute oinarrian dagoen egiturazko botere desoreka identifikatuz.

#### 4.2.1.2 Atala: Harreman sexu-afektiboen inguruko galderak

**Taula 9. Zergatik gustatzen zaigu bikote harremana izatea?**

Galdera	Neska	Mutil
<b>Zergatik gustatzen zaigu bikote harremana izatea?</b>	“Maitasuna polita delako”	“Bizitzan bakarrik ez egoteko”
	“Bakarrik ez geratzeko”	“Maitasunarengatik”
	“Elkarbanatzeko”	“Gurasoek behartzen gaituztelako”
	“Ondorengoak izateko, familia bat sortzeko”	“Bakarrik ez jolasteko”
		“Gustuak eta zaletasunak elkarbanatzeko”
		“San Valentín ospatzeko, (negozio bat dela jakinda ere)”
		“San Valentín ospatzeko eta seme- alabak izateko”
	“Diruarengatik”	



		<p>“Bakarrik ez hiltzeko”</p> <p>“Seme- alabak izateko” (askok)</p>
--	--	---

***Iturria: Lan honen egileak egina***

Bigarren atal honetan haurrei maitasun erromantikoaren errepresentazio eta pertzeptzioek baldintzatu ditzaketen harreman sexu-afektiboan inguruko pentsamendu eta iritzien inguruan galdetu zaie. Horiek horrela, lehenengo galdera honi modu honetan erantzun diote; lehenik eta behin, eredu erreproduzitzen duten erantzunei dagokienez, neskek “bakarrik ez geratzeko” edota “ondorengoak izateko eta familia bat osatzeko” dela esan dute, mito erromantikoa den “haientzako izate” “besteentzako izate” (Onagro, 1987) nahiz maitasunik gabe erabateko zorientasuna lortzerik ez dagoelaren ideari erreferentzia eginez. Mutilek ere, haien erantzunetan maitasun erromantikorik gabe “bakarrik” gaudenaren ideia dutela adierazi dute, maitasun erromantikoa erdigunean jartzen duen mitoari erreferentzia eginez “bizitzan bakarrik ez egoteko” (mutila, 10-11 urte) edo “bakarrik ez hiltzeko” (mutila, 10-11 urte) bezalako erantzunekin. Horrela, bizitzan dauden gainontzeko harremanen baliogutzitzea ematen dutela adierazten dute, bikotekidea lagunak edo familia bezalako bestelako harreman motei baina garrantzi kualitatibo handiago bat emanez, harreman sexu-afektiborik gabe pertsonen bakardadea ematen dela adierazten dutelarik.

Beste alde batetik, egia da askok bestelako erantzunak eman dituztela, hala nola, “maitasunarengatik” (mutila, 10-11 urte), “gurasoek behartzen zaituztelako” (mutila, 10-11 urte) nahiz “diruarengatik” (mutila, 10-11 urte), gurasoen modernizazioa heldu baino lehenagoko hitzartutako ezkontzak egiteko joerari erreferentzia eginez, ezkontza interesarekin lotuz. Patermanek adierazten duen moduan, gizartean eman den kontratu sexualak izan ere, emakumeak ezkontzarekin alderdi pribatura eraman eta subordinazio eta dominazio harremanak sustatu ditu, emakumeak kasu honetan subordinazio egoera horretara eramanda (Paterman, 1988).

**Taula 10. Zer elementu onuragarri izan ditzake bikote harreman batek?**

Galdera	Neska	Mutil
Zer elementu onuragarri izan ditzake bikote harreman batek?	<p>“Gauzak elkarbanatu, elkarrekin bizi”</p> <p>“Konfiantza asko izan norbaitekin”</p> <p>“Ez zara aspertzen”</p>	<p>“Zoriontsuak izan”</p> <p>“Seme-alabak izatea” (askok)</p> <p>“Aitaginarreba ezagutzea”</p> <p>“Dirua elkarbanatzea”</p>

**Iturria:** Lan honen egileak egina

Galdera honi dagokionez, honetan ikasleek bikote harreman bat izatearen onuren inguruan hausnartzea eskatzen zaie, non neskek elementu onuragarri horien artean “gauzak elkarbanatu eta elkarrekin bizi” (neska, 10-11 urte), “konfiantza asko izan norbaitekin”(neska, 10-11 urte) eta “ez zara aspertzen” (neska, 10-11 urte) bezalako erantzunak eman dituzten, besteak beste. Nesken erantzunetan ez da antzematen bikote harreman eta maitasunaren inguruan ezarrita dagoen eredu hegemonikoa erreproduzitzen eta maitasun erromantikoaren idealizazio horri erreferentzia egiten dioten esaldirik, hala ere egia da oraindik gazteak direnez gero eta esperientziarik izan ez dituztenaren aldetik erantzunak eraldatu daitezkeela, urteak pasa ahala. Mutilen aldetik, azpimarragarria da esatea askok ondorengoak izatea nabermendu dutela, baita familia bat osatzearen ideia ere; “seme-alabak izatea” (mutila, 10-11 urte), “aitaginarreba ezagutzea” (mutila, 10-11 urte). Berrito ere, mutilezkoen aldetik diruaren ideia atera da “dirua elkarbanatzea” (mutila, 10-11 urte) bikote harreman baten elementu onuragarrietako bat dela azpimarratuz. Horrela, bikote harremana familiarekin eta ondorengoak izatearekin lotzen dutela ikus daiteke, mutilen kasuan behintzat, haiek haien etxeetan duten ereduaren ideia hori jasotzea eragin duela, beste faktore askoren artean, suposa daitekelarik.

**Taula 11.** *Bikotekidea izatearen gauzarik hoberena besteak ematen dizun babesa da?*

Galdera	Neska	Mutil
Bikotekidea izatearen gauzarik hoberena besteak	<p>“Bai”</p> <p>“Baliteke, tratatzeko moduaren</p>	<p>“ Kasuak kasu. Baliteke baietz”</p> <p>“Hoberenatarikoa”</p>

ematen dizun babes da?	arabera”	
------------------------	----------	--

**Iturria:** Lan honen egileak egina

Oraingo honetan, ikasleriari goiko taulan agertzen den galdera aurkeztu zaie. Nesken aldetik baietza nabarmendu da, erantzunen artean “bai, tratatzeko moduaren arabera” izango zela eta mutilen kasuan “kasuak kasu, edo gauzarik hoberenetarikoa” dela azpimarratuz. Kasu honetan ikasleak oraindik gaiarekin gutxi harremandu izana ondorioztatu da, izan ere askok erantzun aurretik zalantza handiak izan dituzte, esperientzia eta komunikazio faltaren ondorioz, beste faktore batzuen artean. Hala ere, esan beharra dago, neskek izan ere erantzuna argiago zeukatenaren sentsazioa izan nuela, izan ere baliteke gizartean hori entzun edo ikusi izana, mito erromantikoaren parte denaren aldetik, hau da, bikotekideak (gizonak) emakumea babesten duenaren ideia, *breadwinner* bezala adierazi ohi dena. Izan ere, Herrerek horrela esaten duenez, gizonaren rola ezkontzaren eta familiaren barnean babeslea izatearena da (Herrera, 2010).

**Taula 12.** Zer iruditzen zaizu neska batek beste neska bat izatea gustuko? Edo mutil batek beste mutil bat?

Galdera	Neska	Mutil
Zer iruditzen zaizu neska batek beste neska bat izatea gustuko? Edo mutil batek beste mutil bat?	“Ongi, primeran, beste edozein pertsona bezala, nik beste neska bat dut gustoko”	“Ez da gertatzen asko lotsa ematen dielako eta bakarrik geratuko direla pentsatzen dutelako”  “Ezin dituzte seme- alabarik izan, hori alde txarra da”  “Ongi, primeran”

**Iturria:** Lan honen egileak egina

Galdera honetan, ikasleek heteroarauarekin hautsi eta bikote homosexualen inguruan haien iritziak eman dituzte. *Taula 12*-n ikus daitekeen bezala, nesken aldetik sexu

bereko bi pertsonak elkar maitatzea primeran dago. Gainera, neska batek beste neska bat gustuko duela azpimarratu du, neska eta mutil bat maitemindu daitezkeen moduan bera ere neska batekin maiteminduta dagoela esanez, modu honetan sexu aniztasunaren errealitateari aitortza eginez. Gainontzeko neskek ere bere adostasuna adierazi dute galderaren aurrean, horren kontra egotea zentzugabekeria zela argudiatuz. Mutilen kasuan ere, askok ongi iruditzen zaiela baieztatu dute. Hala ere, baten batek ondorengoak izatearen harira, sexu bereko bi pertsonak familia bat sortzearen ezintasuna elementu negatibo bezala nabarmendu du, haren ustetan izan ere guraso homosexualak familia bat sortzea ezinezkotzat duelako. Gainera, lehen aipatu den moduan, askok bikote harremanen elementu onuragarri garrantzitsuena familia sortzearen ahalmena dela esan dute, horregatik bikote homosexuala izatearen kasuan elementu hau desabantaila balitz bezala interpretatzen dute. Ideia horrek, familiaren ulerkera biologizistaren ereduaren indarra adierazten du, familia lortzeko bide bakarra biologiko-genetikoa balitzan.

Horrela, esan daiteke ikasle mutil batzuen kasuan behintzat, bakarrik familia eredu heterosexual biparentalen berri izan dutela, gainontzeko familia modeloen adibiderik eta ezagutzarik gabe. Beste alde batetik, ikus daiteke nola ere homosexuala izatearen desabantaila gizartean dagoen diskriminazioa eta zapalkuntzaren existentzia dela onartzen duten, askok homosexuala izateagatik jasaten duten bazterkeria azpimarratuz; “ez da gertatzen asko lotsa ematen dielako eta bakarrik geratuko direla pentsatzen dutelako” (mutila, 10-11 urte). Hori dela medio, esan daiteke homosexualitatea bezalako kontzeptuak ezagutu eta egoeraren berri dutela, errespetuan oinarrituriko eta anitza den gizarte batean sinesten dutela, alegia.

**Taula 13.** *Noiz ez du jada merezi bikote harreman batean jarraitzea?*

Galdera	Neska	Mutil
<b>Noiz ez du jada merezi bikote harreman batean jarraitzea?</b>	<p>“Beste pertsonak gaizki tratatzen zaituenean”</p> <p>“Adarrak jartzen dizkigutenean”</p> <p>“Traizionatzen digutenean”</p>	<p>“Bestearengan konfiantzarik ez dagoenean”</p> <p>“Tratu txarrak daudenean (errespetu faltak, bullyng-a...)”</p>

	“Desleialtasuna”	“Zutaz aprobetxatzen direnean eta gaizki tratatze zaituztenean”
--	------------------	---

***Iturria: Lan honen egileak egina***

Bikote harremanen inguruko galdera sorta honi amaiera emateko ikasleek bikote harreman bati amaiera ematearen inguruan hausnartu dute. Hausnarketen artean neskek “beste pertsona batek gaizki tratatzen zaituenean” (neska 10-11 urte) bukatzea merezi duela baieztatu dute, “desleialtasuna” (neska 10-11 urte), “adarrak jartzen dizkigutenean” (neska, 10-11 urte), “traizionatzen gaituztenean” (neska 10-11 urte) eta antzeko erantzunak eman dituztelarik. Antzeman daitekeen moduan, neskek “adarrak jartzearen” ideia, traizioa eta abarrak bikote harreman baten gauzarik txarrenetarikoa izango balira bezala interpretatzen dituzte, izan dituzten eruedetan oinarrituta. Bestetik, muiten aldetik ere “bestearengan konfiantzarik ez dagoenean” (mutila, 10-11 urte) edo “tratu txarrak daudenean (errespetu faltak, bullyng-a...)” (mutila, 10-11 urte) bezalako erantzunak egon dira; beraz, bai mutil zein nesken partetik, indarkeriaren deslegitimatzen bat antzeman daiteke, eta beraz elementu positiboa dela ikus liteke, harreman osasuntsu batzuen adierazgarri izan daitekeelako etorkizunera begira tratu txarren auzia txertatu dutelarik eredu eraldatzaile moduan.

***4.2.1.3. Atala: Maitasunezko eskutitza***

Azkeneko atal honetan, esan bezala, ikasleek maitasunezko eskutitz bat idaztea izan dute eginkizun, SKOLAE-tik porposatzen ziren esaldi batzuk txertatu behar dituztelarik. Askori ez zaie gustatu maiteminduta edo gustuko zuten norbaiti eskutitza idaztearen ideia, izan ere askori ez zitzaion inor gustatzen edo lotsa ematen die horrelako ariketa egiteak. Horrela, beste proposamen bat egin zaie; maiteminduta dagoen norbaiten izenean beste pertsona bati eskutitza idaztea, asmatutako pertsona maitemindu baten eskutitza idaztea, alegia. Kasu honetan ere askok ez dute proposatutakoa egin izan nahi, ez direlako gustura sentitu.

Maitasunezko eskutitza idatzi dutenek, hala ere, ez dute ariketak eskatzen zuenarekin bete, izan ere proposaturiko esaldiak kopiatu eta zentzurik gabeko beste esaldi asko txertatu dituzte eskutitzetan, esanguratsua zen ezer aipatu gabe.

Horiek horrela, honekin ondorioztatu egin da balitekela oraindik ikasleak gazteegiak izatea maitasun erromantikoaren inguruan pentsatzeko, haien egoeren inguruan lanketa egin behar dutenean batez ere, izan ere, imajina daiteke oraindik ez dituztela esperientziarik izan eta ez dutela nerabezaroan garatzen den desira sexuala eduki. Horrela, eskutizetan eman diren emaitzak ez dira lan honetan aipatzeko esanguratsuak.

#### *4.2.2 Maitasun erromantikoaren inguruko iruditegia Lehen Hezkuntzako Irakasle Gradua ikasten ari diren ikasleetan*

Datozen lerroetan, Nafarroako hezkuntza komunitatearen parte diren etorkizuneko irakasleek maitasun erromantikoaren mitoen inguruan duten ideiak aztertuko ditugu. Ikerlanaren atal hau burutzeko irakasleri zuzendutako galdetegi bat osatu da, non, dimentsio ezberdinetan banatuta, modernizazioaren hasieratik gaur egun arte sortu diren mitoak agertzen diren. Lehengo, aldagai soziodemografikoak islatuko dira, laginaren ezaugarriak ezagutzera emateko asmoz. Azkenik, mitoenganako irakasleek izan duten adostasun maita agertuko dituzten taulak agertuko dira, esan bezala dimentsio eta mitoen tipologiaren arabera sailkatuak izan direnak.

##### *4.2.2.1 Aldagai soziodemografikoak:*

Lehenbizi Lehen Hezkuntzako Irakasle Gradua ikasten ari diren ikasleen aldagai soziodemografikoak modu deskriptiboan azalduko ditugu, gure ikerlanean parte hartu dutenen profil orokorrak ezagutu ahal izateko. Galdetegian parte hartu duen biztanleriaren lagina Nafarroako etorkizuneko irakasleria izan da. Guztira 133 ikaslek bete du galdetegia; 95 emakumek (%71,4), 37 gizonezkoek (%27,8) eta genero ez-binarioko pertsona batek (%0,8). 1. Taulan laginaren ezaugarri orokorrak ikus daitezke. Adin tarteari dagokionez hau 18 urtetatik 25 urtetara edo gorakoa da; 51 ikaslek 20-21 urte bitarte (%38,3), 37 ikaslek 22-23 urte bitarte (%27,8), 30 ikaslek 18-19 urte bitarte (%22,6), 11 ikaslek 24-25 urte bitarte (%8,3) eta 4 ikaslek 25 urtetik gora (%3).

Galdetegia bete behar duten ikasleen aukeraketa egiteko erabili ziren bi irizpideak honako hauek izan dira: a) Nafarroako Lehen Hezkuntzako Gradua ikasten egotea edo ikasi berri izana lanean hasi gabe b) 18 urte baino gehiago izatea. Galdetegia diseinatu

ostean honekin batera zihoan oharrak horrela adierazi du. Galdetegia zabaltzeko erabili den metodoa internet izan da, banakoen mugikor kontaktua.

**Taula 14.** Laginaren generoa

Aldagaia: Generoa	Kopurua	%
● Emakumezkoa	95	71,4
● Gizonezkoa	37	27,8
● Ez-binarioa	1	0,8

*Iturria: Lan honen egileak egina*

Taulak horrela adierazten duen moduan, galdetegian parte hartu duen etorkizuneko irakasleriaren laginean emakumeak (%71,4) gizonen gainetik (%27,8) eta genero ez binarioa duten pertsonen gainetik ere (0,08) nagusitzen dira.

**Taula 15.** Laginaren adina

Aldagaia: Adina	Kopurua	%
● 18-19 urte	30	22,6
● 20-21 urte	51	38,3
● 22-23 urte	37	27,8
● 24-25 urte	11	8,3
● 25 urtetik gora	4	3

*Iturria: Lan honen egileak egina*

Adin tarteari dagokionez, irakasleriaren gehiengoak 20-21 urte bitarte ditu (38,3), gutxiengoa 24-25 urte bitarte (%8,3) edo 25 urtetik gorako ikasleak direlarik (%3). Gainontzekoei begira, 22-23 urte bitarteko 37 etorkizuneko irakaslek hartu du parte (%27,8), baita 18-19 urte bitarteko 30 pertsonak ere (%22,6).

**Taula 16.** Laginaren egoera sexu-afektiboa

Aldagaia: Egoera sexu-afektibo pertsonala	Kopurua	%
---	---------	---

● Harreman sexu- afektiborik gabe	59	44,4
● Harreman sexu- afektiboak ditudan pertsona batekin	65	48,9
● Harreman sexu- afektiboak pertsona batzuekin	9	6,8

***Iturria: Lan honen egileak egina***

Egoera sexu- afektiboaren inguruan galdetu zaienean irakasle gehienak harreman sexu- afektiboak dituen pertsona batekin dagoela adierazi du, 65 pertsonak zehazki (48,99). Hala ere, kopuru hau nahiko orekatua egon da harreman sexu- afektiborik ez dutela adierazi duten parte- hartzaileekin, guztira 59 izan direla (%44,4). Gainontzekoek, azkenik, harreman sexu- afektiboak dituzten pertsona batzuekin daudela adierazi dute, 9-k guztira (%6,8), alde handiarekin laginaren ehuneko txikiena izanik.

**Taula 17.** Laginak genero indarkeriarekin bizitzako esperientzia

<b>Aldagaiak: Genero indarkeria eremu hurbilean</b>	<b>Kopurua</b>	<b>%</b>
● Bai, genero indarkeriari aurre egin diot	9	6,8
● Bai, kasuak eremu hurbilean	42	31,6

***Iturria: Lan honen egileak egina***

Gehiengoak, beste alde batetik, eremu hurbilean genero indarkeria kasurik izan ez duela adierazi du (%61,7), eremu hurbilean kasuak ezagutu dituztenen aurretik, guztira 42 pertsona izan direlarik (%31,6), eta aldi berean azken hauek zuzenean genero indarkeriari aurre egin diotenen aurretik, 9 osotara (%6,8). Hemen adierazgarria litzateke azpimarratzea ia laginaren erdiak genero indarkeriaren kasuren bat eremu hurbilean izan duela edota indarkeriari aurre egin diola, lagina mistoa izanda ere. Honekin esan nahi da lagina bakarrik emakumezkoek osatuko balute agian genero indarkerien kasuen ehunekoak gora egingo zuela, bai zuzenean aurre egin dioten edota eremu hurbilean kasuak izan dituztenenak.

**Taula 18.** Laginaren erlijiozkotasuna



Aldagaiak: Erlijiozkotasuna	Kopurua	%
● Bai, kristaua	16	12
● Ez	116	87,2
● Bai, beste erlijio bat	1	0,8

**Iturria:** Lan honen egileak egina

Lehen adierazi den moduan, kristautasuna mito erromantiko asko gizartean txertatzeaz arduratu izan da aurreko garaietan. Hori dela eta, laginaren zenbatekoak kristauak diren jakiteak erlijioak norainoko eragina izan lezakeen aztertzea ahalbidetu dezake. Hala ere, kasu honetan aukeratutako lagina ez da nagusitzen kristaua izateagatik, izan ere, erlijiorik ez dutenak nagusitzen dira, osotara 116 direlarik, ia lagin absolutua (%87,2). Erlijiodunen artean kristautasuna nabarmentzen da, 16 ikaslek horrela adierazita (%12), beste erlijio bat dutela aukeratu duen pertsona bakarraren aurrean (%0,8).

**Taula 19.** Lagina hezi den familia eredia

Aldagaiak: Hezi zaren familia eredia	Kopurua	%
● Familia biparental heterosexuala (ama eta aita)	123	92,5
● Familia biparental homosexuala (bi ama edo bi aita)	0	0
● Harrerako familia	0	0
● Familia monoparentala (ama edo aita bakarrik)	2	1,5
● Familia banandua	8	6

**Iturria:** Lan honen egileak egina

Hezi diren familia ereduaren inguruan galdetu zaienean etorkizuneko irakasleriaren gehiengoak familia biparental heterosexuala izan duela adierazi du, 123 pertsonak hain zuzen, guztien %92,5, ia lagin osoa izanda. Gainontzekoek, 8k familia banandua dutela (%6) eta 2k familia monoparentala dutela adierazi dute (%1,5). Familia biparental heterosexualak beraz adierazgarritasuna izango du erantzunetan, gehiengoaren kasua denaren aldetik.

**Taula 20.** Familia biparental heterosexuala izatekotan, laginaren gurasoen lan egoera

Aldagaia: Familia biparental heterosexuala bada, gurasoen lan egoera:		Kopurua	%
● Aktiboa, lanean:	Ama	21	17
	Aita	18	14
	Bien egoera	80	63
● Aktiboa, lanik gabe	Ama	10	0,8
	Aita	6	0,4
	Bien egoera	0	
● Ez-aktiboa, gaixorik	Ama	2	0,016
	Aita	3	0,024
	Bien egoera	0	
● Ez-aktiboa, etxeke lanetan	Ama	8	0,06
	Aita	4	0,03
	Bien egoera	0	
● Ez du lanik egiten	Ama	0	
	Aita	0	
	Bien egoera	0	
● Erretiratua	Ama	1	0,01
	Aita	13	0,1
	Bien egoera	0	

**Iturria:** Lan honen egileak egina

Gehienek kasua familia biparental heterosexualan hezteko izan denez, gehienek taula honetako aukeren artean aukeraketa egin dute. Horrela familia eredu biparental heterosexuala dutela adierazi duten 13 irakasleren artean gehiengoak bi gurasoak aktibo lanean dituztela adierazi du, 80 pertsonen %63a, alegia. Bestetik, gurasoen artean bereizketa egin dutenen artean, ama eta aitaren lan egoerari dagokionez 21ek ama dute aktibo lanean (%17) eta 18k aita (%14). Gurasoren bat lanik gabe baina aktibo dutenen artean gehiengoak amaren kasua dela adierazi dute, 10 pertsonen guztira (%10), eta 6k aitaren egoera dela (%0,4), bien egoera hori dela inork adierazi duenak. Gurasoak Ez-aktibo eta gaixorik dituztenen artean 2k bakarrik amaren kasua dela (%0,016) ipini eta 3k (%0,024) aitarena dela jarri dute. Ez-aktibo eta etxeke lanetan dituzten gurasoen inguruan irakasleriaren artean 8k amaren egoera dela adierazi dute. Erretiratua gurasoen artean 13 pertsonen %0,1a da.

Maitasunaren iruditegi anitzak: Nafarroako hezkuntza komunitatean analisisa

adierazi dute (%0,06) eta 4k aitarena (%0,03). Inork ez du adierazi gurasoek lanik ez dutela egiten bestetik, eta erretiratuen artean 13k aitaren egoera dela adierazi dute (%0,1), ama erretiratu bakarra dagoelarik (%0,01). Datu hau adierazgarria da honekin suposa daitekeelako bikote heterosexualen eredu honetan gizonezkoak nagusiagoak direla, kasu gehienetan.

**Taula 21.** Karrera ikasi bitartean laginak izan duen egoera ekonomikoa

<b>Aldagaia: Karrera ikasten egon naizen bitartean izandako egoera:</b>	<b>Kopurua:</b>	<b>%</b>
• Ez dut soldatapeko lanik egin eta ez dut bekarik jaso	31	23,3
• Soldatapeko lana egiten egon naiz eta beka jaso dut	38	28,6
• Soldatapeko lana egin dut eta ez dut bekarik jaso	46	34,6
• Soldatapeko lanik ez dut egin eta beka jaso dut	18	13,5

***Iturria: Lan honen egileak egina***

Azken aldagai soziodemografikoari dagokionez, irakasleriak karrera ikasi bitartean izan duen maila ekonomikoa zein den eta zenbateko adierazgarritasuna izan duen aztertzeko asmoz, irakasleriak honako erantzunak aukeratu ditu; batetik, gehiengoak soldatapeko lana egin eta bekarik jaso ez duela adierazi du, 46k guztira, (%34,6). Datu horri jarraituz, 38k soldatapeko lana egin eta beka jaso duela adierazi du (%28,6), 31k ez duela soldatapeko lanik egin eta bekarik jaso ez duela (%23,3), eta 18k soldatapeko lanik ez duela egin eta beka jaso duela adierazi duelarik (%13,5).

**4.2.2.2 Maitasun erromantikoaren mitoaren dimentsioak:**

Behin profilen argazki orokorra ezagututa, jarraian agertzen diren taulak maitasunaren mitoen inguruan etorkizuneko Lehen Hezkuntzako irakasleriak duen iruditegiaren emaitzak erakusten dituzte. Taulatan galdetegia egiteko erabili diren mito erromantikoen deskripzio eta baieztapenak agertzen dira ezkerrean, eta eskuinean baieztapenenganako irakasleriaren adostasun mailaren batz-bestekoa,

emakumeenak, gizonenak eta orokorrean. Genero ez- binarioarekin identifikatzen den pertsona bakarria dagoenez gero, ez da oso adierazgarria eman dituen erantzunak islatzea, hala ere haren erantzunak taulan agertzen ez badira ere aipatuak izanen dira. Etorkizunean irakasle izango diren pertsonen maitasunaren iruditegia analizatzeko, Otik 4rako adostasun eskala erabili da, non parte-hartzaileek zenbaki bat edo beste hautatuz haien onarpen maila islatu duten.

- Lehenengo dimentsioa: *Maitasunak dena gaindi dezake*

Lehenengo dimentsio honek maitasunaren iruditegian dagoen “dena gaindi dezakeenaren” ideiarri egiten dio erreferentzia. Dimentsio honek barne hartzen dituen mitoen artean, pertsonok maitasunarengatik aldaketa egiten behar dutenaren falazia, eta harreman sexu-afektiboetan gertatzen direnak amodioarekin gainditu eta justifikatzen direnaren usteak sartzen dira. Horien artean, tratu txarrak, istiluak eta osasuntsuak ez diren beste elementu batzuk onartzea maitasunaren parte direla baieztatzen dutenak aurki daitezke.

**Taula 22.** *Maitasuna dena gaindi dezake* dimentsioari dagozkion mitoak

Mitoak	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Orokorrean
1.1 Beharrezkoa bada nire izaera aldatuko nuke maitasunarengatik	0,26	0,78	0,33
1.2 Normala da harreman sexu-afektiboen egunerokotasunean istiluak egotea	1,63	1,54	1,60
1.3 Errespetuaren galera ematea eta irainak jasatea normala da maitasunezko harreman batean	0,02	0,27	0,15
1.4 Maitasuna benetakoa bada dena barka eta aguanta dezake	0,17	0,4	0,29
1.5 Maitasuna besteak egiten dituen gauza guztiak onartzea eta sostengatzea da	1,03	1,02	1,025
1.6 Sufritzea maitasunaren parte da	0,27	0,95	0,61
1.7 Tratu txarrak maitasunaren parte da	0	0	0

***Iturria:*** Lan honen egileak egina

Taulan ikus daitekeen modura, lehenengo dimentsioari dagozkien esaldienganako adostasun maila ez da oso altua izan orokorrean. Hala ere, dimentsioen artean *maitasunak dena gaindi dezakeenaren* ideia irakasle taldearen artean gehiago Maitasunaren iruditegi anitzak: Nafarroako hezkuntza komunitatean analisia

onartzen da beste mito talde batzuk baino, onartuen dagoen hirugarren dimentsioari jarraituz, esaldi guztien adostasun maila kontuan hartuta batezbesteko 0,57ko puntuazioarekin. Horrela, esan daiteke irakasleria maitasunak dena gaindi dezakeenaren ideiarekin “pixka bat ados” dagoela, puntuazioa 1 zenbakitik 0tik baino hurbilago dagoenez gero. Generoari dagokionez, emakumeen onarpen maila gizonezkoena baino txikiagoa izan da ia esapide guztietan, *istiluak harreman sexu-afektiboan egunerokotasunaren parte* direnaren baieztapenarekin eta benetako *maitasunak dena aguanta eta barka dezakeenaren* esaldietan izan ezik, lehengo horrekin emakumeak izan ere nahiko ados daudela adierazten baitute, gizonezkoen adostasun mailarekiko alde txikia dagoelarik (0,1ko aldea, gutxi gorabehera). Honek horrela argi uzten du *istiluak egunerokotasunaren normalizazioaren parte* direnarekiko adostasun maila jakin bat dagoela. Honekin ondoriozta daiteke ikasleak istiluak izatearekin konforme daudela hein batean, baina noraino hedatu litezke istiluak? edo hobe esanda, noiz ez du merezi harreman sexu afektiboarekin jarraitzea? Suposa daiteke azkeneko esaldiari begira tratu txarren eta istiluen artean dagoen tarte oso zabala dela, izan ere, inork ez du onartu tratu txarrak maitasun erromantikozko harremanen parte direnik.

*Maitasunak dena barka eta aguanta dezakeenaren* esaldiari dagokionez ere, emakumeak ez dira hain ados egon (0,17) baina gizonezkoen onarpen graduarekin alderatuz konformeago daude (0,13 gehiago). Gainontzeko esaldiei dagokienez, bi salbuespen horietan izan ezik, gizonezkoek emakumezkoek baino adostasun handiagoa erakutsi dute lehenengo dimentsioaren baieztapenen aurrean. Esaldien artean genero aldetik adostasun mailari dagokionez alde handiena erakutsi duena *sufrimendua maitasunaren parte denaren* baieztapena izan da. Horretan gizonezkoek pixka bat ados daudela adierazi dute (0,95), emakumeak ez daudela erabat ados aukerarengandik hurbilago agertu direlarik (0,27). Alde honekin imjina daiteke gizonezkoen kasuan maitasunezko harremanetan entrega handiagoa espero dela bikotekidearen aldetik emakumezkoek espero dutena baino. Modu horretan ondoriozta daiteke gizonezkoen aldetik dagoen exigentzia maila bikote harreman batean handiagoa dela nolabait, emakumeek haien aldetik emateko prest daudena baino gehiago, behintzat. Ondorio

hau, paradoxikoa ala eraldatzailea litzateke, feminitatearengan dagoen “entregarekiko” presio soziala handiagoa baita.

*Maitasunarengatik izaera aldatuko* ote zutenaren inguruan ere gizezkoek emakumezkoek baino adostasun maila handiagoa erakutsi dute, 0,51ko desberdintasunarekin. Beraz, orokorrean gizezkoen dimentsio honekiko sinesmenekiko duten onarpen maila orokorrean emakumezkoek dutenaren baino handiagoa izan arren, esan daiteke adostasun maila aldetik “pixka bat ados” daudela etorkizuneko irakasleak maitasunak dena gaindi dezakeenaren dimentsioarekin. Modu honetan, esapide honetan ere agerian geratzen da gizezkoek bikote harreman bat bezala ulertzen duten jokabide mota edo entrega maila, emakumezkoek eman edo alda dezaketena baino gehiago delarik. Hala ere, izaera maitasunezko harremanarengatik aldatzeko prest egongo liratekeen onarpen maila honek haiek bestearengandik berdina espero izatea pentsatzera eramanezake, hau da, bikotekideari beharrezkoa bada hein batean izaera aldatzea exijituko lioketela.

Esan beharra dago, bestetik, etorkizuneko irakasleriaren artean gutxien onartzen den dimentsio honen taldearen barnean dagoen mitoa *errespetuaren galera ematea eta batak besteari irainak esatea maitasunaren parte dela* izan da. Izan ere, bi generoen arteko batezbestekoa eginez 0,15ko balorazioa jaso du honek, “ez nago batere ados” aukeraren oso hurbil. Hemen ere istiluen larritasunaren muga agertzen da, non errespetuaren galera ematen den momentuan ez duen zilegitasunik irakasleriaren ustetan.

Azkenik, azpimarragarria da islatzea *tratu txarrak maitasunaren parte* direla baieztatzen duen esaldiari dagokionez ehuneko ehunean inork ez duela adostasun gradurik adierazi. Horrek garbi uzten du irakasleriaren lagin honetan behintzat ez dela maitasunaren barnean tratu txarrik onartzen, maitasuna ez dela modu horretan adierazten. Bai emakume, gizon, genero ez-binario duen edota edozein adinekoa den inkesta hau bete duen pertsona ororentzat. Indarkeria, hortaz, esan daiteke ez dela irakasleriaren maitasunezko harremanen dinamiketan sartzen, horrela, indarkeria maitasunaren parte denaren ideia eskolan transmitituko ez dela baieztatu daiteke.

- Bigarren dimentsioa: *Maitasuna gauzarik garrantzitsuena da eta erabateko entrega eskatzen du*

Maitasunaren iruditegi anitzak: Nafarroako hezkuntza komunitatean analisisia

Dimentsio honetan biltzen diren mitoek, gizartearen maitasunaren iruditegian dauden *maitasunarengatik bakoitzaren nolakotasunak aldatzea eta norberaren bizitza eta nahiak alde batera uztearen* antzeko falaziak sartzen dira. Izan ere, mito hauek bi pertsonen maitasuneko harreman bat dutenean bi pertsona izatetik bakarra izatera pasatzen direnari egiten diote erreferentzia, bestearen zaletasunak, nahiak, itxaropenak eta bizitzako helburuak norberarenak izatera pasatzen direlarik.

**Taula 23.** *Maitasuna gauzarik garrantzitsuena da eta erabateko entrega eskatzen du*  
dimentsioari dagozkion mitoak

Mitoak	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Orokorrean
2.1 Maitasun erromantikorik gabe ez dago erabateko zoriona aurkitzerik	0,19	0,35	0,27
2.2 Maitasunak zuretzako izatetik besteentzako/bestearentzako izatera pasatzea esan nahi du	0,07	0,59	0,33
2.3 Maitatzerakoan bakoitzaren pribatutasuna entregatzea beharrezkoa da	0,08	0,68	0,38
2.4 Maitatzerakoan duzun guztiaren entrega ematen da	0,77	1,65	1,21
2.5 Nortasuna, interesak, beharrak eta zaletasunak alde batera uztea normala da norbait maitatzen duzunean	0,09	0,35	0,22
2.6 Normala da gure harreman sozialak bigarren plano batera pasatzea norbait maitatzen dugunean	0,18	0,81	0,45

***Iturria:*** *Lan honen egileak egina*

Bigarren dimentsiora salto eginez, atera diren emaitzek ere orokorrean etorkizuneko irakasleen mitoenganako adostasun eza adierazi dute. *Maitasunak erabateko entrega eskatzen duen eta gauzarik garrantzitsuena denaren* baieztapenaren barne esaldietan ere, generoen aldetik desberdintasunak antzeman daitezke. Adibidez, bi generoen erantzunen batezbestekoen artean alde handiena erakusten duen baieztapena *maitatzerakoan guztiaren entrega ematen denarena* izan da. Izan ere, gizonezkoak nahiko ados agertu dira 1,65ko puntuazioko meriarekin emakumezkoak pixka bat ados agertu diren bitartean, 0,77ko puntuazioa adierazten dutelarik batezbesteko.

Azterturiko subjektuen haien *inguru sozialean dituzten bestelako harremanak harreman erromantikoaren batean inplikaturik daudenean bigarren plano batera pasatzearen* inguruan, esan liteke gizonezkoek emakumezkoek bainogehiago normalizatzen dutela, erantzunei erreparatuz, gizonezkoen batezbestekoak 0,81 eta emakumezkoenak berriz 0,18 adierazten duenez gero, erabateko ezadostasunarengandik hurbilago leudeke emakumezkoak. Azpimarratu beharra dago ere *maitatzen denean pribatutasunaren entrega ematen denaren* inguruan gizonezkoen onarpen mailak emakumezkoenak baino 0,60ko puntuazio handiagoa jaso duela, “pixka bat ados” aukeraren alde (0,68ko batezbestekoa). Hemen genero aldetik dagoen alde honek agerian uzten du gizonezkoek maitasun erromantikoan oinarrituriko harreman batengatik aldean utziko lituzketenak. Hau onartuz, hein batean beti ere, gizartean dagoen maitasun erromantikoaren ideiak baldintzaturiko harremanak erdigunean jartzeko joera indartzen dute hein batean, harremanen hierarkikazioa ematen delarik, non sexu-afektiboak garrantzitsuenak bihurtzen diren.

*Maitasun erromantikorik gabe erabateko zorientasuna aurkitzerik ez dagoela eta maitasunak zuretzako izatetik besteentzako izatera pasatzea* aipatzen duten esapideek ere orokorrean adostasun maila txikia izan dute, gizonezkoena nabari altuagoa izanik ere, 0,35 eta 0,59ko puntuazioarekin, emakumezkoen 0,19 eta 0,07 puntuazioekin alderatuz. Esan daiteke beraz, kasuak kasu, irakasleriak *maitasun erromantikorik gabe zorientsu izan daitekenaren* ideia dutela barneratuta, maitasun erromantikoaren mito honen ahultasuna adierazten duelarik. Hala ere, puntuazioa 0 izan ez denez gero, onoriozta daiteke mitoak eragin apur bat izan duela gazteengan.

Orokorrean onarpen maila txikia jaso duen beste esapide bat *nortasuna, interesak eta zaletasunak alde batera uztearena* izan da, guztira 0,22 batezbesteko puntuazioarekin, gizonezkoen onarpen maila handiagoa izan delarik, berriz ere (gizonezkoen 0,35ko puntuazioa emakumezkoen 0,09ko puntuazioaren aurrean). Oraingo honetan ere maitasun erromantikoan oinarrituriko harremanak izatean bizitzako hainbat aspektu edo gehienak harremanaren menpe ezartzearen mitoa ezeztatu egiten du etorkizun laburreko irakasleriak, izaera aldatzearen esapidean gertatzen den esaldian gertatu den modura. Hala ere, esan beharra dago onartuagoa izan dela *izaera alde batera*



*uztearen* esapidea, gizonezkoak honekin “pixka bat ados” agertu direnez gero, mito honen puntuazioarekin alderatuz gero.

- Hirugarren dimentsioa: *Benetako maitasuna predestinatutakoa da*

Hirugarren dimentsio honetan, pertsona bakoitzarentzako predestinatutako beste bat dagoenaren mitoak aurkitzen dira. Horiek horrela, munduan pertsona bakoitzaren existentzia nolabait osatuko lukeen beste bat existitzen dela baieztatzen dute, betirako iraungo lukeen eta bizitzan behin bakarrik emango litzakeen maitasunari aipamena eginez.

**Taula 24.** *Benetako maitasuna predestinatutakoa da* dimentsioari dagozkion mitoak

Dimentsioak	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Orokorrean
3.1 Pertsona bakoitzarentzako munduan laranja erdi bat dago	0,43	0,78	0,60
3.2 Bizitzan osatuko gaituen norbait bilatu behar dugu	0,42	0,89	0,66
3.3 Bizitzan benetako maitasuna behin ematen da	0,28	0,57	0,43
3.4 Norbaitekin benetan maitemintzerakoan pasioak betirako irauten du	0,71	1,30	1,01
3.5 Norbait benetan maitatzen bada betirako iraungo du	0,69	1,14	0,92

***Iturria:*** Lan honen egileak egina

Hurrengo dimentsioak, hirugarrenak hain zuzen ere, *benetako maitasuna predestinatua denaren* ideiarri egiten dio erreferentzia, bere gain mito ezberdinak hartuz. Aipagarria da, dimentsio honetako mitoek batezbestean puntuazio altuen jaso dutenak izan direla (0,73 batezbestean), beraz esan daiteke irakasleriaren artean *benetako maitasuna predestinatutakoa denaren* siniskera onartuagoa dagoela beste itemek jasotzen dituzten ideiak baino. Mito horien artean irakasleriaren partetik onartuen izan dena *norbaitekin maitemintzen garenean pasioak betirako irauten duela* dion esapidea izan da (1,01ko batezbesteko puntuazioa). Hemen ere, gizonezkoen adostasun nabarmen altuagoa izan da emakumezkoenarekin konparatuz gero, izan ere, gizonezkoek 1,30ko puntuazioa eman diote batezbesteko, emakumeek 0,71ko eman dioten bitartean. Hala ere, orokorrean bi generoak pixka bat ados daudela ikus

daiteke, emaitzen 1 zenbakiarekiko hurbiltasunarengatik. Ondoriozta daiteke, hortaz, *benetako maitasuna* delakoa aurkitzerakoan irakasleariak onartu egin duela nolabait pasioaren betirako iraupena, hein batean.

Azpimarratu beharra dago oraingoan ere esaldi guztiek gizonen partetik adostasun handiagoa jaso dutela emakumeen partetik baino. Taulari erreparatuz gero, garbi ikus daiteke nola gizonezkoen batezbesteko puntuazioak emakumezkoenak baino altuagoak diren. Erantzunetan generoari dagokionez puntuazio aldetik alde handiena jasan duen esaldia *bizitzan osatuko gaituen norbait aurkitu behar dugula* baieztatzen duen mitoa izan da, izan ere, emakumezkoek 0,42ko puntuazioa eman diote, erabateko ezadostasunarengandik hurbil. Gizonezkoek ordea, 0,89ko puntuazioa eman diote batezbestean, pertsonak osatzeko beste pertsona baten beharra dugunaren mitoaren alde, emakumezkoak baino.

Puntuazioari begira alde handia jasan duen beste item bat *norbait benetan maitatzen denean betirako iraungo duenaren ustea* adierazten duen esaldia izan da. Kasu honetan, gizonezkoen media 1,14koa izan da, pixka bateko adostasuna adierazten duelarik. Emakumeen kasuan berriz, puntuazioa 0,69koa izan da, pixka bat ados erantzunetik hurbil egon arren erabateko ezadostasunarekin gehiago lotzen dena.

Adostasun maila txikien jasan duen mitoa *bizitzan benetako maitasuna behin ematen denaren* ideia izan da. Orokorrean bi generoen batezbestekoak batuz 0,43ko puntuazioa izan du. Horrek irakasleriak predestinatutako maitasunarekin duen onarpen eza uzten du agerian, *bizitzan benetako maitasuna bakarrik behin ematen denaren* mitoa ezeztatzearen alde daudela, alegia. Onarpen txikia jaso duen beste mito bat *laranja erdiaren* mitoa izan da, adostasunarengandik hurbilago hala ere mutilen aldetik emakumeengandik baino, gizonezkoak pixka bateko adostasunarengandik hurbilago daudenez gero, 0,78ko batezbestekoarekin, emakumeek, aldiz, 0,43koa eman diotelarik.

Horrela, dimentsio hau guztien artean onartuen izan denaren aldetik, esan daiteke etorkizunean irakasle izango den populazioaren lagin honek behintzat *predestinatutako maitasunean* nolabaiteko sinesmena duela. Predistinatuko maitasuna beraz bizitzak norberarekin harreman bat eraikitzeke prestatua dagoen norbaiten existentziari egiten dio erreferentzia, modu honetan harreman monogamoe

Maitasunaren iruditegi anitzak: Nafarroako hezkuntza komunitatean analisisa

ta eternalaren filosofia indartu egiten delarik, mito multzo hauek izan ere predestinaturiko pertsona bakarraz hitz egiten baitute. Hala ere, narbarmendu behar da espide guztietan gizonezkoen adostasun maila altuago izan dela. Horrenbestez, suposa daiteke genero aldetik ezberdintasunak daudela mitoa interpretatzeko moduan eta emakumezkoengan eragin gutxiago izango lukeela.

- Laugarren dimentsioa: *Maitasuna jabetza eta eskusibotasuna da*

Azkeneko dimentsio honek maitasunaren interpretazio monogamoari egiten dio erreferentzia. Arestian azaldu den moduan, Vasallok esan duen moduan, monogamia patriotismoarekin batera eztabaida ezina izan den kontzeptua izan da (Vasallo, 2020), gizarteak onartu eta normalizatu egin duena, pertsonon izatearekin batera jaio den elementua izango balitz bezala. Horrela, jarraian aipatzen diren mito hauek posesioarekin zerikusia duten ideiak islatzen dituzte, maitasuna eta desioa eskusibotasunez pertsona bakarri eskaini ahal zaizkionaren inguruko sinesmenak, alegia.

**Taula 25.** *Maitasuna jabetza eta eskusibotasuna da* dimentsioari dagozkion mitoak

Dimentsioak	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Orokorrean
4.1 Ezkontzarekin pertsonen arteko maitasuna finkatu eta indartu egiten da	0,14	0,65	0,40
4.2 Jeloskortasuna maitasunaren adierazle da	0,37	0,57	0,47
4.3 Norbaitekin maiteminduta zaudenean ezin zara beste batekin maitemindu	0,78	0,89	0,84
4.4 Pertsona bat baino gehiago momentu berdinean desiratzea auto-kontrol faltaren seinale da	0,25	0,43	0,34
4.5 Jeloskortasun mailak beste pertsona noraino interesatzen zaizun adierazten du	0,05	0,35	0,2

**Iturria:** *Lan honen egileak egina*

